

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-09-16
EGUBAKOITZA
477. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

'Monzon' pastoralabihar

Karpa jarri dute, euriaren beldur | 33




Karpa muntatzen. | AMAIA TXINTXURRETA

Bizikletan hasiko dute Mugikortasun Astea Arrasate eta Eskoriatzan | 12 eta 24



San Martin jaiak gaurtik domekara Bergaran | 16



Euskadiko parapente akrobatiko txapelketa domekan Urkulun | 29

Matrikulazio epea ireki dute bailarako udal euskaltegiek

Irailean zehar egingo dute ibarreko bost zentroetan | 4

"Estatuek oraindik ere euren inertzia zaharkituan jarraitzen dute"

Maixol Iparragirre | Preso eskoriatzarra | 8



Vespa eta Lambretta eguna etzi Elgetan | 27



Denboraldiko lehen derbia jokatu da domekan

UDAk Bergara hartuko du lbarran, 17:00etan | 29



EUSKARA ETA SAGARDOA AHOAN

Aramaioko Txirritola euskara elkarteak urteko hitzordu garrantzitsuena ospatuko du domekan: Txirritola Eguna. Euskararen erabilera helburu nagusia izanda, hainbat ekitaldi egongo dira egun osoan. Besteak beste, herriko dozena bat sagardogileren salda dastatzeko aukera egongo da 12:00etan. | 26

Martin Arriolabengoa, Jesus Arregi eta Iñaki Errasti sagardogileak eta Olatz Altuna eta Eskarne Ugarte Txirritolako zuzendaritzako kideak. | JOKIN BEREZIARTUA

Astelehenean hasiko da gripearen kontrako kanpaina

Gripearean aurkako txertaketa-kanpaina iritsiko da udazkenarekin batera. Astelehenean, hilak 19, hasiko dira txertoak jartzen, eta urriaren 31ra arte iraungo du kanpainak. Anbulatorioetan jarriko dituzte txertoak, astelehenetik egubakoitzera, aldeztatik txanda hartuta. | 4



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

SEAT
ALHAMBRA
BERRIA
Gozatzeko
teknologia



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



SINADURAK



Zaborra eta kontsultak | 6
MANU ARREGI



11-9-11, 'capicua' | 6
JON BEREZIABAR



Gertu daz, gertu | 23
BEÑAT ZAMALLOA



Intxaurrendotik sagarondora | 25
PATXI OLABARRIA



Jo no acato | 26
ANDER ELORTONDO



Etzegarate | 40
AINTZANE OIARBIDE



Barreanean, baserri eraberritua, araztegiko bulegoekin.

Gizakiak eragindako prozesu naturala, ura garbitzeko

- ▶ Mekolaldeko araztegiko ateak ireki dizkiote Goienari
- ▶ Modu naturalean garbitzen dute ura, kimika barik
- ▶ Uraz gain, lokatza eta gasa ere kudeatzen dituzte

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Ur-araztegi bat zertarako den jakinekoa da: ura garbitzeko. Baina beharbada ez da hain ezaguna hori zelan egiten den. Prozesua samurra da ulertzen, baina teknologia asko eta tamainako instalazioak eta ekipamendua behar dira horretarako. Ez da hain jakinekoa ere araztegiak, ura garbitzeaz gain, lokatza garbia eta gasa ere sortzen dituela, esate baterako.

Araztegi bakarra daukagu oraingoz Debagoienean: Mekolalde auzoan, Bergaran dagoena; hala ere, handiagoak edo txikiagoak izan, araztegi guztiek oso modu antzerakoan funtzionatzen dute.

Mekolaldeko arduradun Gorka Izkok pausoz pauso azaldu dio Goienari bide osoa. Eta hauxe azpimarratu du: "Araztegiak tratamendu naturala ematen diogu urari, produktu kimiko barik. Bakar-bakarrik, udan, fosforoa kentzeko, kloruro ferrikoa botatzen diogu; besterik ez".

Teknologia, lagun
Mekolaldeko araztegiak, momentuz, Bergarako eta Osintxuko urak doaz. Ubera eta Elgeta ez daude konektatuta, eta Angiozarrek bere araztegitxoak dauka. "Batez beste, segundoko 42 edo

43 litro ur tratatzen da araztegiaren", dio Izkok. Horrez gain, gaur egun baino ur gehiago tratatzeko gaitasuna dauka. Bere esanetan, Mekolaldera ailegatzen den ura "ez da beste araztegitakoa baino zikinagoa egoten; araztegi guztiek antzera jasotzen dute".

Nahikoa dira sei langile eta arduradun bat araztegia eramateko: "Hasieran, 24 orduan zegoen norbait lanean; baina orain, gauez ez dugu lan egiten. Aste bukaeretan, berriz, lagun bat egoten da hemen. Beti bi lagun gaude guardian. Orain dugun teknologiarekin, zerbait gertatzen bada, segituan jasotzen dugu abisua, eta etorri egiten gara".

Epelekoaren zain

Irail bukaeran edo urri hasieran, arduradunen esanetan, hasiko da lanean Epeleko araztegia, martxa-ipintze fasean, sei hilabetean. Mekolaldekoarekin batera, horrek osatuko du Deba ibaiaren saneamendu sare nagusia.

ESANAK

"Hemengo ura ez dator beste inongoa baino zikinagoa"

GORKA IZKO
ARAZTEGIKO ARDURADUNA



Begirada batekin jakin daiteke zelan dauden instalazioak.

Honela garbitzen dute ura

URA EKARRI Ur kutsatua ailegatzen da araztegiara. Industrietatik datorren ura, edo bereziki kutsatuta dauden beste urek hasierako tratamendu berezi bat jasotzen dute: putzu batera sartzen dira eta argazkian agertzen den palarekin zabor handiena kentzen dute; zabor solidoa da. Araztegiko arduradun Gorka Izkok azaltzen duenez, baina, ur horietarako ere "gehieneko kutsadura muga" dute, eta zorrotz kontrolatzen dituzte ur horiek. Horregatik, enpresa gehienek euren araztegi bertan garbitzen dituzte urak, Mekolaldera bidali aurretik.



Zaborra kentzeko pala.



Lehen dekantagailua; erdian, iturria. Hortik betetzen da depositua.

DAGOENKO GARBIAGO Ura tratamendu fisikoaren azken pausoa dekantagailuan ematen da. Ura erdiko iturri antzekotik irteten da andel edo depositu handi horretan. Geratzen diren hondar (lokatzak) arrastoak pilatu eta kanpora botatzen dira. Normalean, dekantagailu bakarra erabiltzen dute, eta bestea euriteetarako-eta daukate.

Dagoeneko bistan da ura askoz garbiagoa dagoela.

EGONKORTU Lokatza digestorera bidaltzen da. Han, 35°C-ko tenperatura lortu arte berotzen du galdarak, eta horrela, lokatza egonkortzea, bizigabe bihurtzea lortzen dute.

Prozesu horrek azpiproduktu bat du, gasa; hau da, prozesuak berez sortzen du. Gas hori digestorearen ondoko gasometroa (esfera formakora) bidaltzen dute, aire-kamara handi batek inguratuta, babes gisa. Gero, araztegiko energia behar batzuk asetzeko erabiltzen dute: ura berotzeko, adibidez. Udan, soberan izaten dutenez, suzi baten erre egiten dute gasa.



Digestorea eta gasometroa.

konbinatu 2 m²

2 betaurreko partekatuzko

97€
kristalak barne

ESKAITZA HAU BILLAGARRIA IZANGO DA 2011/11/30RA ARTE. KONTSULTA ITZAZU OPTIKAN, KANPAINAREN EZAGARRIAKI. EZINGO DA PILATU BESTE PROMOTIO BATZUEKIN.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan



Eskuman, zaborra pilatzeko edukiontzia.

HOBIAN Hobi horretan lehenengo garbiketa, fisikoa, egiten da. Lehenengo, zabor potoloena kendu behar da, eta argazkian ikusten den edukiontzian pilatzen da: zaborra da eta zabortegira bidaltzen dute. Hobi horretan, hainbat iragazki dituzte: horietako baten, ur-bideak 4 mm-ko kalibrea dauka, ura ez beste guztia pasa ez dadin. Hodi batzuen bidez, ura ponpatu egiten da eta altuera eta grabitatea ematen zaio, araztegioko prozesu osorako.



Urak zikinagoa ematen du atal honetan; hori guztiz normala da.

BIGARREN ETAPA Tratamendu biologikoaren fasea hasten da: urak dituen zenbait substantzia –amonioa, nitratoak...– kendu egin behar dira. Horretarako, uretan dauden mikroorganismoendako baldintza egokiak sortzen dituzte, eta mikroorganismoek eurek kentzen dituzte substantzia kutsagarriak. Tratamendua guztiz naturala da; ez da produktu kimikorik erabiltzen. Hemendik dekantagailura doa ura, eta han azkeneko garbiketa egin eta gertu uzten da.

TRIPAK "Araztegiaren prozesu naturala jarraitzen da, baina hori gerta dadin, gauza asko geuk egin behar ditugu", esaten du Gorka Izkok. Hala, prozesu guztia martxan jartzeko, den-dena neurtzeko, pausoz pauso kontrolatzeko, akatsak zuzentzeko... ordenagailu, makina eta aparailu asko erabiltzen dira, eta leku handia hartzen dute: eraikin oso bat. Argazkian, eraikineko atal bat bakarrik. "Tentsioa, instalazio elektrikoak, indarra... den-dena kontrolatzeko, ekipo asko behar dira", esaten du Gorka Izkok. Egunero-egunero doitu eta zaindu behar dira kontrolak.



Kontrol-makina batzuk.

HAREA KENDU Oraindik uraren tratamendu fisikoaren etapan jarraitzen dugu. Hobitik gora bultzatu ondoren, herri-sareko ura eta industrietako ura, dena, harea kentzeko tankera pasatzen da. Han, airea sartzen diote urari, eta horrela, harea hondoan gelditzen da eta olioia, aldiz, ur-azalera igotzen da. Hondarrak eta koipeak, bakoitzak bere aldetik, berri hobira joaten dira, eta bakoitzak dagokion trataera jasotzen du. Hondarra prozesuan berri erabiliko da, aurrerago.

Argazkian agertzen den tankea hutsik dago eta bertan oraindik antzematen dira harea arrasto batzuk.



Harea arrasto batzuk.

LOKATZEN LERROA

Araztegiak ura garbitzen du, baina handik kentzen den lokatza ere kudeatzen du. Hasieran batu den lokatza dekantagailu honetara bidaltzen da, eta berri iragazten da, zikinkeria txikiena ere kentzeko: ileak, janari apurrak... denetarik. Gero, dekantagailuan, ura eta lokatza banandu eta ahalik eta gehien loditzen da lokatza. "Hona ailegatzen den lokatzaren %3 da solidoa, eta gainerako guztia ura da; biak banatu eta ura hasierako puntura eramaten dugu, oso zikin dagoelako", azaltzen du Gorka Izko arduradunak.



Lokatza loditzen.

BI EMAITZA Araztegiak bukatu du bere lana eta bi emaitza daude, bat lerro bakoitzeko.

Eskumako argazkian, Gorka Izkok tratatutako eta prentsa erraldoi baten txikitutako lokatza erakusten digu; plastilina gogor baten adina trinkoa da, eta ez du usainik botatzen. Lokatza hori zabortegira bidaltzen dute.

Ezkerreko argazkian, araztegiaren garbitutako urak, hantxe jendeari erakusteko duten iturri baten. Ibairu botatzen dute berri, baina ez iturri horretatik, Deba Mekolaldeko industrialde ingurutik pasatzen den zatian baizik. Apar pixka bat dauka,



Ur garbitua. | ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA



Gorka Izko, lokatza erakusten.

baina ibaiko urarekin bat egiteko egokia eta garbia da. Araztegiaren erabiltzen duten ura –edatekoa izan ezik– horixe da: instalazioak garbitzeko eta beste premia batzuetarako.

DATUAK

7

LANGILE

Mekolaldeko araztegiaren zazpi langile eta arduradun dabilta, astean bost egun.

3

KOLEKTORE

Bergara, Osintxu eta San Juan poligonoko kolektoreetako urak tratatzen ditu.

43

LITRO

Segundoko 43 litro tratatzen ditu; eta urtero 600 tona lokatz eta 100 tona zabor irteten dira.

2

INSTALAZIO

Araztegi berrietan, aparailu eta instalazio guztien bi ale dituzte; bat erreserba gisa izaten dute.

estetika zentrua

angela

PROMOZIO BEREZIA

Ferrerias 35 - Arrasate - Tel.: 943 79 88 23

FOTODEPILAZIOA

Hankak osorik eginez gero,
izterondo eta **besapeak**
DOAN

Saio bakoitzeko 110 euro aurreztuko duzu!
Etorri irailan eta promozioa behar dituzun saio guztietara luzatuko dizugu!

www.angelaestetika.net

Gripearen kontrako kanpaina abian astelehenean

M.B. | ARRASATE

Gripearen aurkako txertaketa-kanpaina iritsiko da udazkenarekin batera. Astelehenean, hilak 19, hasiko dira txertoak jartzen, eta urriaren 31ra arte iraungo du kanpainak. Aurreko urteotan bezala, 65 urtetik gorako debagoiendarrei zuzenduta egongo da, eta baita gaitz kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoendako ere, hala nola diabetesa edo bihotzeko, birrikako edo giltzurruneko gaixotasunen bat dutenendako.

Arrasateko Lehen Mailako Atentzioko Taldeak jakinarazi du anbulatorioan astelehenetik egubakoitzera jarriko dituztela txertoak, alde aurretik txanda hartuta. Horretaz gainera, honako zaharren goizetan ere jarriko dituzte, 12.00etatik 13.00etara bitartean: hilaren 22an, Etxaluze erai-kinean; hilaren 23an, Urribarrin; hilaren 26an, Santa Marinan; eta hilaren 27an, Musakolan. Gaineratu dute etxean dauden ezinduek euren mediku edo erizainekin harremanetan jar daitezkeela txertoa etxean jartzeko.

Aramaion, txanda barik

Bestalde, Aramaioko kontsultategitik azaldu dute txertoa jartzeko kontsultategira joan beharra dagoela, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 09:00etatik 13:00etara. 65 urtetik gorakoak zuzenean joan daitezkeela azaldu dute, bolanterik gabe. Gainerako herri guztietan txanda hartu behar dela aurretik. Antzuolarrek Bergarako osasun etxera deitu behar dute; txertoa martitzen eta egunetan jarriko dute han, eguerdian.

Bergaran, astelehenetik egubakoitzera eskainiko dute zerbitzu hori, 10:00etatik 17:00etara; eta Oñatin, aste egunetan, 10:00etatik 16:30era. Elgetan eta Angiozarren medikuaren kontsulta orduetan emango dute horretarako txanda. Azkenik, Aretxabaletan eta Eskoriatzan oraindik zehaztu barik dute ordutegia.



Bergarako Irizar jauregian egin zuten agerraldia, martitzen arratsaldean. | MIRIAN BITERI

Euskaraz biziko direnak nahi dituzte udal euskaltegietan

- ▶ Arrasate, Bergara, Oñati eta Leintz euskaltegiek kanpaina aurkeztu dute
- ▶ Irailean zehar eman daiteke izena gertatu duten askotariko ikastaroetan

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara eta Oñatiko udal euskaltegiek agerraldia egin zuten joan den martitzen arratsaldean,

Bergaran, 2011-2012 kanpaina aurkezteko. Jakinarazi zuten matrikulazio kanpaina irailean zehar egingo dela eta eskaintza zabala gertatu dutela ikasturte

berriari begira: tituluen baliokidetzak, HABEren mailetako azterketak, 4. maila, tutoretzak, gazte etorkinak eta hizkuntza errefortzuak, auto-ikaskuntza ikastaroak, euskalkia, hitanoa, AISA ikastaroak eta merkataritza eta ostalaritzari zuzendutako ikastaroak. Berrikuntzen artean, aipatzekoa da Oñatin 4. mailako eskolak ere eskainiko direla aurrean.

Elkarlanean

Begarako Irizar jauregian egin dako aurkezpenean, Leintz euskaltegiko zuzendari Karmele Agirregabiriak nabarmendu zuen bilarako lau euskaltegiok, autonomoak badira ere, elkarlana bultzatu dutela azken urteotan, eta, horren ondorioz, aurrean, lehen aldiz, Oñatikoak ere parte hartu duela ikasturte hasierako ekitaldian. Horrekin batera,

lazko ikasturtea zenbakitan

- ▶ 653 ikasle izan zituzten lau udal euskaltegietan.
- ▶ 60 talde.
- ▶ 43 ikasle autoikaskuntzan.
- ▶ 93 ume etorkin, 5 eta 15 urte bitartekoak, euskarako errefortzu eskoletan.
- ▶ Ikasleen %64,01. emakumeak eta %35,99 gizonezkoak.
- ▶ Batez besteko adina, 37 urte.
- ▶ %32,15 langabeak.
- ▶ %17,76 etorkinak.
- ▶ 27 irakasle eta 4 administrari.

nabarmendu zuen euskaltegien lana eskolak ematek haratago doala. Horren harira, "hizkuntza komunitatean txertatu" eta "euskaraz biziko" diren lagunei ongietorria egingo dietela esan zuen.

Udalen "ahalegin berezia"

Bestalde, Oñatiko euskaltegiko zuzendari Roberto Altunak azpimarratu gura izan zuen bailarako udalak "ahalegin berezia" egiten dabiltzala. Horren harira, honakoa aipatu zuen: "Krisiak krisi, euskara ikasteko samurtasunak ematen dabilta behar duen guztiari".

Internet lehiaketa berria

Kanpainarekin jarraituz, aurrean, lehen aldiz, Internet lehiaketa egingo dutela jakinarazi zuten. Gipuzkoako 21 udal euskaltegiok hartzen dute parte horretan. Matrikula kanpaina irauten duen bitartean, astero hiru galdera egingo dituzte www.udaleuskaltegiak.net webgunean, Facebooken eta Twitterren.

Urriaren 25ean jakinaraziko den irabazleak 16 GB eta wi-fidun iPADA edo urtebeteko matrikula doan lortuko du.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Egin bazkide eta lortu...

GAHIR
FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA
Eskoriatza, 943 71 43 41
■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA
Aretxabaleta, 943 08 21 89
■ -%15 deskontua zerbitzu guztietan.

943 25 05 05 | kluba@goiena.com
goienakluba.com Urteko kuota: 48 €.

Eskoriatzako Zubiate burdinola bisita daiteke txanda hartuta

Eskoriatzako Ibarrauditik gogorarazi dute Zubiate burdinola bisita daitekeela aurrez txanda hartuta, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago nahi dutenek 943 71 54 53 telefono zenbakira dei dezakete, edo www.eskoriatza.net edo www.turismodebagoiena.com webgunera sartu.

Guardia zibilek Bilduren aurkako elkarretaratzea egingo dute Oñatin

Guardia Zibilek Elkarte Bateria-ak (AUGC) Euskal Herrian dauden kideen aldeko kanpaina abiatuko du. Hala, urrirako bi elkarretaratze deitu dituzte, bata Oñatin eta bestea Gasteizen, Eusko Legebiltzararen aurrean. Elkarteak honakoa esan du: "Manifestazioa egingo dugu hango lan-kideek Bilduren presiopean lan egin behar dutelako".

Kimu Berri programari buruzko erakusketa Arrasaten eta Oñatin

Gazteengan enpresa ekintzailera sustatzeko Kimu Berri programaren harira aurrean egingo dako proiektuak ikusgai izango dira hilaren 21etik 25era bitartean Arrasateko Kulturaren eta urriaren 5etik 7ra Oñatiko Enpresagintza fakultatean. Aurrean, berritasun moduan, Inbertitzaileen Azoka egingo dute Oñatin.



JOXE ARANTZABAL

Lau europar Huhezira ikastera

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Erasmus ikasle berriak ditu. Lau etorri dira, Komunikaziokoak: Suitzako Rahel Schnuriger eta Markus Baertschi, Danimarkako Nana Hansen eta Herbehereetako Meryl Geugies. Ingelesa erabiliko dute bai ikasteko eta baita jendearekin komunikatzeko ere.

Kalitate turistikoa sustatzeko kanpainan Debagoieneko 28 establezimendu

Eusko Jaurlaritzak abian ipini du 'Praktika onak' delako programa

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Kalitatezko turismoa sustatzeko kanpaina jarri du abian Eusko Jaurlaritzak *Ikus ezazu kalitatearen alde dibertigarriena!* leloarekin. Horren barruan, turismo sektoreko profesionalen lana erakutsi eta alor horretako jarduera onak indartzeko helburuarekin, kale antzerki bana eskaini zuten eguaztenean Oñatin eta Arrasaten. Turismo sektoreko profesionalen betebeharren eta haien jarduera onen inguruko hainbat esketx egin zituzten Iker Galartza, Ylenia Baglietto eta Ugaitz Alegria aktoreek.

Debagoiengan hainbat enpresa turistikoak egin dute lan kalitate turistikoaren alde, eta diplomak jaso dituzte, batzuek bigarren aldiz, gehienak hirugarren aldiz eta beste askok laugarren aldiz. Guztira, 28 negoziok jaso dute aipamena.

Profesionalizatzeko aldera

Praktika egokiak programak duen helburua turismo arloan kalitate turistikoaren aldeko konpromisoa bultzatzea da. Bi helburu nagusi ditu: alde batetik, turismoaren sektorea profesionalizatzea; eta beste alde batetik, jomugaren kontzientzia sortzea, eskual-



Turismoaren gaineko kale antzerkia Arrasaten, eguaztenean. | MIREIA BIKUÑA

de bereko enpresari guztiek elkar ezagut dezatela lortzea eta taldean lan egitera bultzatzea, "bezeroari emandako arreta hobetzeko eta indartzeko".

Establezimendu guztiek dute Eusko Jaurlaritzaren programan parte hartzeko aukera, baina bereziki enpresa txikiendako proposa da. "Batez ere turismo arloko azpi-ataletan diharduten establezimenduak animatzen dira; besteak beste, landetxeak, pentsioak, hotelak, kanpinak, informazio turistikoa emateko bulegoak, interpretazio zentroak,

museoak, jatetxeak, tabernak eta kafetegiak eta turismo gidak", diote eragileek.

Gaineratu dute *Praktika onak* delako programan parte hartzen dutenek onura asko jasotzen dituztela trukean. "Haien iritziz programa honetan parte hartzeak enpresa barruko egoerari eragiten dio. Ikaragarri hobetzen da barne antolakuntza eta bezeroari emandako zerbitzua. Bestalde, enpresaz kanpo lehiakortasuna handitzen da. Gainera, establezimenduarekiko iritzia hobetu egiten dute", diote.

Historiaren gainean hausnartuko dute hainbat adituk Oñatin

M.B. | OÑATI

Nabarralde antolatutako Euskal Herriko II. historialarien biltzarra 16:45ean hasiko dute Oñatin, Bergarako UNEDeko irakasle Victor Herreroekin egingo duen aurkezpen ekitaldiarekin. Ondoren, Mikel Sorauarekin, Estibaliz Gonzalez Diosen eta Jose Antonio Rekondok hitzaldi bana egingo dute unibertsitatean eta historia izango da protagonista. Edo beste modu batera esanda, *Euskal lurraldeak eta nafar Estatua*.

Irakasle, historialari eta aditu talde bikaina bilduko da. Euren helburua da euskal lurraldeen eta nafar estatuaren harreman historikoa aztertzea, lurralde horietako batzuek Albako dukearen inbasioan eta geroko gertaeretan jokaturako papera barne.

Domekara arte askotariko hitzaldi eta mintegiak egingo dituzte. Joseba Asironekin egingo du itxiera hitzaldia, domekan 11:45ean. 12:00etan diplomak banatuko dituzte.

Beste ekintza batzuk

Eztabaida akademikoaz gain, biltzarraren antolatzaileek publikoari zabalduko jardueraz betetako egitaraua antolatu dute: "Gure iraganeko atal hau biztanleriaren artean zabaltze-

ko eta ezagutarazteko asmoz". Hala, unibertsitateko esparrutik kanpo hainbat ekitaldi prestatu dituzte (ikus beheko taula). Asteon egin dituzte afari tematikoa eta ikasleendako saio didaktikoa. Bestalde, hilaren 23ra arte erakusketa dago ikusgai kultura etxean.

BILTZARRETIK KANPOKOAK

EGUBAKOITZA, 16

19:30 Ingrid Gaslter idazle alemaniarrek Lope de Agirreraren gaineko liburua aurkeztuko du Oñatiko kultura etxean.

ZAPATUA, 17

11:00 Artisanu azoka Oñatiko plazan: eskulanak haurrentako, barazki eta fruta ekologikoen erakusketa, ipuin tradizionalen kontaketa, Oñatzen emanaldia, bisita gidatua...

20:00 Joseba Tapiaren kontzertua gaztelekuan. Aurretik Eskuez bikote oñatiarra.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartera esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

ZABALIK

MANU ARREGI
http://goiena.net/iritzia/



Zaborra eta kontsultak

Zaborraren gestioaren kontua dago eztabaidan Gipuzkoan, dakizuen bezala. Uste dut, gure bailaran behintzat, gehienok gaudela birziklatze osoaren alde, baina zein da hori lortzeko sistemarik egokiena? Badirudi atez ateko sistema ezarriko dela gure artean. Sistema egokiena al da hori? Esperimentatu gabe, ezin alde edo aurkako iritzirik eman.

Badira, dena den, kezkatzen nauten zenbait puntu. Aukerazten den sistema aukeratuta, erabiltzailearentzat eroso izan behar du. Ez du ematen zabor mota bakoitza ateratzeko egun konkretu batzuk izatea sistema komodoa denik. Kantitate mugatu batean, gainera. Horrek, toki aproposa izan edo ez, zaborra etxean pilatzera behartzen zaitu. Hala ere, gehien kezkatzen nauena zaborra ateratzerakoan kale egiten duzunean ematen diren abisuak dira. Zenbait abisuren ostean, multa etorriko dela suposatzen dut. Ez dakit zuei, baina niri George Orwellen 1984 nobelako *Big Brother* etorri zitzaidan burura horren berri izan nuenean. Kontrolpean gaude, motel.

Herri kontsulta egingo al da sistema berria martxan jarri aurretik? Sistema polita da kontsultena herri baten funtzionamendurako, baina arduraz erabili behar dena. Urte bat pasa da Bergaran dohaineko OTaren sistema ezarri zenetik. Ez dut uste hasiera batean herritarren gustukoa zenik, baina esperientziak erakutsi du onurak ekarri dizkiola herriari. Beste muturrera joanda, jakingo duzuen bezala erakunde publikoek dirutza jarri behar dute Athletic bezalako erakunde pribatu bati futbol zelai berria egiteko. Kapaz dira bilbotarrak, galdetuz gero, diru gutxi jarri dela esateko.

Dena den, ondo etorriko da zaborraren gestioaren sistema aldaketa herritar guztiak birziklatze osoaren beharrez kontzientziatzeko. Eta, guztiz egokia ez bada, beti gaude garaiz sistema hobetzeko edota beste eredu batzuk praktikan jartzeko.

USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | jberezibar@goiena.com

11-9-11, 'capicua'

Urte asko dira, baina ematen du ez dela denbora luzerik igaro. Gauzak ikaragarri aldatu dira, baina munduak berdin jarraitzen duela esan liteke. Ipuin kontalariak erabaki zuten bi dorreak jausita amaituko zela tomoa eta tomo berriko kapituluak irakurri ditugu, egunez egun, albistegiz albistegi, hamar urtean, eta dorreen ostean ekonomiak bota dituzte eta zain utzi ipuinak jarraituko zain. Ez dugu ezer ulertu, ezta behin eta berriz orriak irakurritan. Irakurle txarrak gara ala narratzaileek engainatu gaituzte? 11-9-11 eta hasitako moduan gaude, *cap i cua*, buru eta isats, bakoitza non daukagun jakin ere ez dakigu, azkenean. *The end?* Ematen du ezetz.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Hurrengo mundualdian, kaxalote nahi dut

Pello Zubiria
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Ez dut beste modurik ikusten hildakoa Zubiriatarren Aginagako malkarrean lurperatu nazaten.

Iaz oso garbi esplikatu zigun Unai Break: "Legeak eta usadioak traba egiten diote heriotza ekologikoari". Beraz, kaxalote sortzea beste aukerarik ez, baldin eta nahi badut nire hezur-mami eskasok milioika urtez hominidoek erabilitako sistema merke eta garbienean hobiratu ditzaten.

Hil nadinerako kapritxo handirik ez daukat [...] Baina kontsolatzen naizen arren jakinik nire ondorengoek ez dutela gorputz hau erraustuko -hori moda burugabe eta pozoitzailea- tamalez akaberako nire desio bakarra ezingo dute konplitu: zertarako gastatu dirua alferrikako kutxa garesti bernizdun kutsakorretan, zertan inkomodatu udaletzeko hilobizaleak, zergatik zorpetu herria kanposantua hormigoiztatzen?

Metro eta erdi sakonerako zulo koxkorra egin, maindire zuritan bilduta sartu, hiru zotal, lau palakada eta listo. [...] Legeak debekatzen duenez, iraunkortasunaren bila, pentsatuta neukan hurrengo mundualdirako bildots jaiotzea, ahal balitz Itsasuko Aroztegiko tropan; baina laster ohartu nintzen laborari ardidunek beti izango dutela eritasunen baten zigorra gainean galaraziko diena ahari zahar akabatu berria eskorta ondoan lurperatzea edo putreei eskaintzea.

Nekazaritza informalean pentsatu nuen gero, Hernaniko Errotararen ahuntz bilakatzea; jakinarazi didate, ordea, kale-baserritar amateurren zuhaitzak eta aziendak ere bijilatzen dituztela goardek, udala baino goragoko instituzioek sortutako enpresa berezituren batek eraman beharko lukeela kabala krematzerara.

Zakur bilakatzea ere bururatu zitzaidan, etxeetan errege bizi baitira gaur, jakin nuen arte Pinttoren gorpuzkia zure baratzean ez daukazula lurperatzerik: albaiteoari eraman behar diozu, pagatuta prefosta, Astigarragan maskotentzako ireki duten erraustegiak kiskali dezan!

Laburbilduz, *Physeter Macrocephalus* birsortzea interesatzen zaidala. [...]

Segur naiz orduan ere Aquariumeko buru egongo dela Gipuzkoako aberats jatorren bat, lortuko duena [...] nire hogeitona ustelkorrak lubaki zabal batean hobiratzea.

Hala utzi dute abuztuan Kontxan hildako kaxalotea Hernanin, esku batekin probintziako egunkari salduenean bi orriko publiekreportajea eskainiz, bestearekin herritarrei eskatuz mesedez ez salatzeke Intsusadin dagoela, kanpokoak peregrinazioan heldu litezkeelako.

Izango naizen kaxalote harekin horrelako sofistrazioak aurreztea nahiago nuke aukeran, baina ez da izanen nire esku. Beraz, hona inportanteena: lurpean ipiniko dute-naute estalki kutsakorrik gabe ezarian-ezarian natural usteltzeko, inguruko auzotarrek ez dute kiratsagatik gutunik bidaliko periodikoetara eta udaltzainek -are gutxiago ertzain prestuek- ez dute inol molestatu beharrik izango itaun indiskretoekin. Dena diru publiko subentzionatuta eta ontsa zigitatutako paperetan legezaturik egongo delako.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Sormen nazionala: auzolana

Izaro Gorostidi

(EHUko Politika eta Administrazio Zientziako irakaslea) Usurbil

Charles Darwingek 1859. urtean *Espezien jatorriaz* liburua plazaratu zuen, eta bere hain ezaguna den hautespen naturalaren teoria azaldu zuen.

Piotr Kropotkin zientzilariak, berriz, pentsalari anarkista moduan ezaguna dena, 1902. urtean *Elkar laguntza: faktore bat Eboluzioan* argitaratu zuen, eta Darwingen teoriari bestelako ikuspuntu bat gehitu zion.

Bai, halaxe da, espezieen elkarren arteko borroka bizi iraupenerako errealitate bat da, baina berak Siberian egindako ikerketetan joera ezberdin bat aurkitu zuen: elkarri laguntzea.

Eta bere tesia argia zen: elkarri laguntzea garatzen zuten espezieek geroago eta garapen hobea lortzen zuten

eta, aldiz, barne borroka garatzen zuten espezieek espeziearen gainbehera sortzen zuten.

Autore batzuek teoria hauek kontrastatzeko inguruneak modua determinatzen duela adierazten dute.

Hots, Darwinek Galapago irletan egin zituen bere ikerketak, klima atsegin batean, hain zuzen, eta Kropotkinek, aldiz, Siberian, negu gorrian.

Hori dela eta, espezieen joera aldatzen da.

Ingurune gogorretan elkarri laguntzeko joera agertzen da; ingurune atseginetan, aldiz, konpententzia.

Hemen eta orain, XXI. mendeko euskaldunok ingurune latza pairatzen ari gara esan dezakegu.

Krisialdi ekonomiko sakona daukagu, gizarte eredu kolokan dago, balioen krisia, elikagaiak, klima...

Edozelan ere, askotan errepikatu bada ere, gogorarazi nahi dut txinatarrez *krisia* eta *aukera* esateko hitz berbera erabiltzen dela.

Zibilizazioaren krisi bat

bizi izaten ari gara, baina, era berean, zibilizazio berri bat sortzeko aukera ere badaukagu.

Gaur egungo krisialdi globalak erantzun integrala eskatzen digu.

Hitz potoloak.

Eredu aldaketa bat behar dugu, mundu berri bat sortu behar dugu, baina nondik hasi?

Ni?

Gu?

Nola eragin?

Zer egin?

Gure historiak badauzka horretarako giltza izan daitezkeen formulak.

Auzolana eta batzarrea gizarte tresna komunalak izan dira bestelako Euskal Herri bat egiteko.

Adelaide Daraspe ikelariak 2011/9/4ko 7Kan adierazten zuen moduan, XVII. mendeko bidairiek Euskal Herria definitzerakoan euskaldunen sosegua nabarmentzen zuten: anaitasuna, elkarri laguntzea, lan komunitarioa, horrek larritasuna kentzen zuela adieraziz.

Baina hori gaur egun nola lotu?

Baditugu adibide garbiak.

Gure gurasoek beraien haurrei bestelako hezkuntza eskaini nahi zieten eta auzolanean bestelako eredu bat sortu zuten: ikastolak, hain zuzen ere.

Herri guztietan bizi eta gozatzen ditugun jai herrikoiak jai batzordeek sortzen dituzte, baldintza bakarra oinarritzat izanik: ospakizun herritarra, gozamen komunala, hain justu ere.

Izan ere, gaur egungo kontsumo taldeak bestelako harreman merkantilista bat sortzen ari dira baserritarraren eta kontsumitzailearen artean.

Adibide mordera ditugu gure herrian, anitzak eta pluralak, tokian tokikoak, herrialdeetakoak eta nazionalak; bestelako erantzunak emateko garaian txapeldunak garelako.

Horra hor Korrika, horra hor ikastolen jaiak, besteak beste.

Auzolan egitasmoko kideek urtebete baino gehiago daramagu auzolanaren inguruko hausnarketak lantzen.

Bestelako saiakera bat.

Hori guztiori

sozializatzeko, hausnarketa kolektiboa egiteko, elkar ezagutzeko eta Euskal Herriko Auzolan sare nazionala sortzeko, Usurbilen irailaren 30an, urriaren 1ean eta 2an, Auzolan I. Topaketak antolatu ditugu.

Bada, 500 petsonarentzako lekua dago, eta www.aulolan.info webgunean informazio osoa aurkitzeko aukera daukazue.

Krisialdi garaia erantzun berrien garaia eskatzen du, eta, bide batez, ardura berrien garaia.

Saiakera denona da, gure esku dagoelako, eta bakarrik gure esku, eraldaketa sozio politikoa.

Nire aldaketak gure aldaketan eragiten duelako eta ondorioz ingurunearen aldaketan.

Eta nia gu barik ezin da jokatu.

Herri honetan hori oso argi daukagu.

Sormen nazionalaren garaia heldu da, ez dago eraikuntzarik lur emankor barik.

Ez dago aitaren etxerik amalurra bizirik gabe.

Sortu dezagun bidea, aukera garaia heldu da eta.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

DEBAGOIENA EZAGUTZEN

Goiena Klubeko bazkide bazara, Jakioneko otar bat zurea izan daiteke



Artzai munduan oso ezaguna den bailara agertzen da argazkian. Nola du izena?

Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

PARTE HARTZEKO

Telefonoz: 943 25 05 05 • e-postaz: kluba@goiena.com

SMS bidez. Bidali KLUBA ERANTZUNA

[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.



JAKION
www.jakion.es

Jakionek emandako
Produktu sorta*

* 50 eurotan baloratutako sorta.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozatzeko. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 48 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



Maixol Iparragirre | Preso eskoriatzarra

"Estatuek oraindik ere beraien inertzia zaharkituan jarraitzen dute"

- ▶ Espainiaratzeko euroaginduaren gaineko epaiketa izan du Iparragirrek
- ▶ Preso eskoriatzarrak dio "torturatzeko" erabiltzen dela euroagindua

ENEKO AZKARATE | ESKORIATZA

Martitzenean egin zuten Borden Maixol Iparragirreraren kontrako euroaginduaren gaineko auzi-saioa. Espainiara hiru hila-beterako ekartzea eskatzen dute Espainiako epaileek. Edizio hau ixterakoan ez genuen epaiaren berririk. Epaiaketaren aurretik, Iparragirre elkarrizketatzeko aukera izan du Iñaki Garitonandia. Laburpen bat ekarri dugu hona.

Zer dela eta zaude orain Lyon-Corhaseko kartzelan?

Zergatik hemen? Ez, behintzat, legeak dioena jarraitzen dutelako. Sakabanaketaren beste urrats bat izan da. Udaberrian estreinatu genuen Lyon-Corhas kartzela euskal presoak. Parisen espetxerata geunden hiru kide eta beste hiru atxilotu berri hartu, eta Lyon-Corhasera. Mapan kokatzeko, Alpeetatik gertu dagoela esan dezaket. Kartzela berri-berria da. Hona iritsi ginenetik ez dugu arnas askorik hartu, oinarritzakoak diren eskubideak ere borrokatu behar baititugu. Kolektibo izaera onartzeko ahaleginean ari gara. Zigor-ziegetan egon berri gara eta edozein unetan gaude berriro han.

la zazpi urte igaro dira atxilotu zintuztenetik. Zein da zure egoera juridikoa?

Bai, 7 urte beteko ditut urrian. Abenduan epaitu ninduten, azkenean, epaitzeko epe guztiak topera eraman eta gero. 20 urtera kondenatu gintuzten bikotekidea eta biok, baina helegitea jarri genuenez epaiketa berriro noiz egingo zain gaude. Frantziar dossier bakarra dut, baina espainolak ez dira geldirik egon 7 urte hauetan. Igorri dituzten estradizio eta euroagindu guztiak onartu dituzte epaile frantsesek. 14 ditut onartuta. Uda honetan sorpresa eman didate, onartutako lau euroagindurengatik berehala Espainiaratzea eskatu baitu Andreu Merelles epaileak, presa omen du ni epaitzeko.

Orain, Frantziar epaitu aurretikuzten dituzte euskal presoak Espainiako justiziaren eskuetan...

1993a baino lehenagoko aferengatik estradizio eskaerak egin behar zituen Espainiak. Estradizio epaiketa batean eskaeraren oinarria aztertu behar izaten zen eta defentsa egiteko aukera, txikia bazen ere, ematen zuen horrek. Ondorengo aferentzat euroagindua erabili behar du -Europako Bata-suneko legedia osatzen hasi eta formula hori asmatu baitzuten estradizioa ordezkatzeko-. Euroagindua oso espeditiboa da, lagun

arteko formalismo batera mugatzen da. Eskaerari buruzko epaiketa egin behar da, bai, baina tramite hutsa da, zuri zuzendua dela baieztatu eta ezer gutxi gehiago egiten dute epaileek. Baina espainolek presa dute beti. Eta orain arte Frantziak bertan epaitu arte itxoiteko agintzen bazuen ere, bada urtebete-edo epaiketaren zain egonda ere Espainiaratzen gaituztela. Azkenean lortu dute espainolek! Frantziak eskatu ahala bidaltzen gaituzte orain Espainiara.

Ze ekartzen dio horrek presoari?

Ezegonkortasuna, kondena bikotzak, bizi baldintzak okertzea... Badakigu espainolek nola osatzen dituzten beraien dosierak. Torturapean egindako deklarazioetako datuetan oinarritutako eskaerak igortzen dituzte dozenaka. Nik jaso ditudan guztiak horrela eginda daude. Bakoitzarengatik epaiketa egin behar dizute. Printzipioz, epaiaketaren zain zaudenean zure defentsa prestatzen ari zara, alde batetik bestera erabiltzen zaituzte, beraien interes mediatikoa eta mendeku gogoia asetzeko. Zure kalterako da, zu egoera ezegonkor batean baitzaude ezer prestatzeko. Espainiako kartzelan isolamenduan sartzen gaituzte gehienok. Behin Espainian zaudela mailegu egonaldia luzatzeko eskatzen dute espainolek eta Frantziak onartzen.

Ze interes du Espainiak?

Espainiaren helburua, nahiz eta Frantziar atxilotu, gu beraien eskuetan ahalik eta azkarren edukitzea izan da beti, eta Frantzia pozik, gu paretik kentzeko aukera izanda, beraien diskurtsoa beti izan baita euskal arazoa espainiarren arazoa baino ez dela. Espainiarrentzat ehiza piezak dira, auskalo zenbateko indarra eta dirua ere jartzen duen Frantziako Estatuan bertan gu atxilotzeko. Baina zer gertatzen zaie espainolei gurekin? Gu atxilotu eta ezin ehiza argazkia aterala! Ezin gu erakutsi beraien eskuetan Frantziar dossierra ireki eta urteetan gordetzen baikaituzte epaitu aurretik. Baina hori ez da izan beti beraien helburu nagusia. Espainolen helburu aitoren ezina euskal militanteak torturatzeko aukera izatea izan da beti eta nazioarteko legedia traba izan da horretarako.

Zein da Frantziaren jarrera tortura salaketan aurrean?

Nire ustez, frantsesek ez dute inongo zalantzarik. Badakite Espainiak tortura erabiltzen duela. Baina begiak ixten dituzte. Ez da



Maixol Iparragirre. | JOSEBA GARITONANDIA

beraien afera. *Raison d'état* deitzen zaio horri. Frantziak, giza eskubideen jatorrian badago ere, tortura erabili du beharrezkoa ikusi duenean. Espainiak ere erabil dezakeela iritziko dio. Epaitegi desberdinak ezagutu ditut sakabanaketa dela eta, Tolosa (Okzitania) eta Aix-en Provenceko epaileek interesa agertzen zuten tortura testigantza entzuteko. Kontrakoa gertatu izan zait Parisen. Tortura testigantza irakurtzen hasi eta bortitz erantzuten zuten, irainduak sentituko balira bezala. Abenduko epaiketan Pello Alkantarillak bere tortura testigantza egin zuenean epaileetako batzuen interes falta nabarmena zen. Besteok zirrarak hartuta geundela epaileetako batek lo hartu zuen. **Euskal Herrian prozesu demokratiko bat eraikitzeo urratsak egiten ari dira hainbat eragile. Zer eragin daukate euroaginduen bidezko entregak hauek?**

"Lortu dute: Frantziak eskatu ahala bidaltzen gaituzte Espainiara"

"Euskal militanteak torturatzeko aukera izatea da Espainolen nahia"

"Agerian gelditu da euroagindua bidegabekeriei bidea irekitzen diela"

Euskal Herrian prozesu demokratiko bat irekitzeko ahaleginean ari garen bitartean, Madriletik —eta Paristik bere neurrian— hori guztia zapuzteko ahalegina baino ez dator. Une garrantzitsura iritsi gara, ageri-agerian dago zein den arazoaren muina, independentziaren ordezkotri kimailuek porrot egin dute eta garden ageri da Herri bezala etorkizuna erabakitzeo aukera berri bat ireki dela. Euroaginduen kontuekin (presoen aurkako neurriekin bezala) urteetan eraikitako errepresio bideak direla jakin behar da. Makina martxan jarri eta geldiezinak direnak bertan behera uzteko erabaki argi bat hartu arte. Guk gure hausnarketa egin eta militantzia egoera berrira egokitzea erabaki badugu ere, estatuek oraindik beraien inertzia zaharkituan jarraitzen dute. Nik ringean nokeatuta bakarrik gelditu den boxeolariaren antza hartzen diet. Baina badakite: partida jada ez dago ring horretan. Alferririk ari dira.

Ze gaitasun ikusten diozu errepresioaren aurrean eraikitzen ari den herri harresiari?

Ez dut inoiz ahaztuko euroagindu baten epaiketan epaileak serio-serio frantses herritarrengandik jasotako agindua betez epaitzen ninduela esan zidanean. Ezer gutxi zekiten herritar frantsesek gela horretan gertatzen ari zenaz eta, are gutxiago, beraien izena tortura babesteko erabiltzen ari zirenik. Gaitasun handia ikusten diot herri harresiari, gaitasun osoa. Jendarteraren parte handi bat terrorismorekin aurkako lege berezi eta bidegabeken bidez baztertu, zigortu eta ehizarako pieza bihurtzea onartu eta babestu duten ordezkari politikoei ardurua handia

dute gaur bizi dugun egoeran, berdin politika epaitzearen bidez egitea ahalbidetu duten epaileek. Boterea herriari lapurtu eta beraien interes ekonomiko eta politikoak babesteko eta bermatzeko errepresio modu guztiak ahalbidetu dituzten politikari eta epaileak dira. Lotsarik gabe herriaren izenean ari direla esaten digute, gainera!

Tortura salaketak daude euroaginduhoriek oinarritu diren adierazpen iturburuan, iazko abenduan Parisen epaitu zintuztenean ere tortura aipagai izan zen askotan; loturarik ikusten duzu bien artean?

Bai, egon daitekeela uste dut. Ahal izan dudan bakoitzean, torturaren erabilpena salatu izan dut. Atxilotu gintuzten garai bertsuan atxilotu zuten Amaya de Paz, lagun batek bere testigantza gogorra helarazi zidan frantziar kartzelara itzultita, ez nuen besterik, baina nahikoa zen entzun nahi zuenaren konbikzioak dardarka jartzeko, eta horrela izan zen Tolosan eta Aix-en Provenceko epai-geletan. Eta Andreu Merellesen aldetik mendeku gogoia egon daitekeela uste dut. Abenduko epaiketan, Parisen bere izena askotan atera zelako torturari lotuta. Izan ere, Pello Alkantarillaren dossierra berak egin zuen, berari kontatu zion Pello guardia zibilaren eskuetan jasadakia, berak erabaki zuten guardia zibilari egindako adierazpenak legezko baldintzetan egin zirela eta horrela idatzi zuten Pello Frantziar epaitu zezaten onartu eta epaile frantsesari igorri zion txostenean. Abenduko epaiketan, Parisen, abokatuaren helburu nagusietako bat Pelloren deklarazioak zein baldintzetan egin ziren argitzea izan zen, horretarako Andreu Merelles barrara deitzeko eskatua zion epaile-buruari. Epailak ez zuten indar handirik egin: Andreu Merellesek gutunez igorritako erantzuna irakurri zuen, bertan egun horietan lana zuela eta ezinezkoa izango zitzaioela etortzea zioen.

Euroaginduen aurrean kontzientzia pizten ari da eta aurkako mugimendua indartzen ari da.

Kontzientzia piztu da, lan asko egin delako piztu da. Hainbeste bidegabekeria gertatzen ari den unean, ez naiz ari bakarrik euskal militanteoiegi egiten zaizkigunaz —hor dago kanporatze agindupean edozein baldintzetan giltzapetuta daukaten paperik gabeko jendea adibidez— bada zertan militatu eta batez ere isiltasun mediatikoa hausteko gaitasuna izatea. Euroaginduen kontuarekin mugimendu zabala lortu da, prentsa eta irrati zein telebista frantsesetako zentsura gaintu da ere eta hori gaur egun urrats handia da. Euroagindua zer den jendarteratzea lortu da, agerian gelditu da osatu gabeko lege bat dela, bidegabekeriei bidea irekitzen diela... Torturan oinarritutako euroagindua bertan behera uzteko borroka egingo dut, egingo dugu. Tortura desagerrarazteko beste urrats bat emateko aukera dut edo dugu eta erronka horri gogor eutsiko diot eta diogu.

TORRA+PORTELLA

Zure Tekno sofa baino leku hoberik ez duzu interneten ibiltzeko. Bere eserleku irristagarriekin, eta sofak berak duen argindar-hartunearekin, bateriarik gabe gera ez zaitez, erosotasun guztia ematen dizu. Izan ere, Kibuc-en altzariak eta osagarriak zure bizitzeko moduaren neurria egindako konponbide moduan ulertzen baititugu. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU on-line zaude



Zuri bizitza errazteko aukerak

gutxieneko prezioa bermatuta



1.369 €

114,10 € x 12 hilabete interesik gabe*

Irristagarria

Bizkar etzangarria

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Tekno sofa Erosotasun eta teknologia proposamena. 3 launentzako sofa eta chaiselonguea Claudia 9 ehun grisean. Neurriak: 270/165 zm. Eskuz mugi daitezkeen eserlekuak eta buruko etzangarriak ditu. Motorrak jartzeko aukera dago (2 eserlekurentzat, 240 euro). Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. Ehun eta kolore aukera handiaqoa ere badaqo (Brontzea eta Sustapena serieak). BEZ barne. *Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

DUELA 10 URTE

2001-09-19

Euskararen erabilerarako plana

Debagoieneko zazpi udalek –Leintz Gatzagak ez beste guztiak– hitzarmena sinatu zuten Euskadiko Kutzarekin, gure ibarrean euskararen erabilera bultzatzeko. Akordioa sinatu zuten alkateek eta Euskadiko Kutxako zuzendari Juan Jose Arrietak, Olandixon. Horrela, Udalen eta finantza erakundearen artean eta horien eta herritarren artean euskara erabiltzeko hainbat neurri hartzeko konpromisoa hartu zuten.



Hitzarmenaren ekitaldia. | IKER BARANDIARAN

2001-09-18

Autorik ez Arrasateko alde zaharrea

Arrasateko erdigunean ibilgailurik ez sartzeko debekua jarri zen martxan, eta oinezkoendako bakarrik utzi. Ondorioz, Erdiko kalean, Ferreriasen, Iturriotzen, Olarten, Maisu Aranon, Seber Altuben eta Maalako Errabalean autoek goizez bakarrik sartzeko baimena ezarri zen. Ibilgailuen sartu-irtena galarazteko piboteak ipini zituen Udalak alde zaharreko sarreretan, eta piboteak zabaltzeko urruneko aginteak atera zituen.

DUELA 5 URTE

2006-09-16

Agorrosinen inaugurazioa

San Martin egunean inauguratu zuten Agorrosin. Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Bergarako Udaleko ordezkariak egon ziren ekitaldian, baina herriko ume eta gaztetxoak izan ziren igerileku berriak estreinatzen lehenak. Eraikinak zazpi milioi euroko kostua izan zuten. Eraikin berriko lanak 2005ean hasi zituzten.

ARETXABALETA

Ramon Eraña Gallastegi Martxoan hartu zuen erretiro aurreratua, baina ez du aspertzeko unerik izan; mila saltsatan dabil eta esan digu denbora faltan ere izaten dela batzuetan. | IRATI GOITIA

"50 urteak ospatzeko Hiru Handiak eta Behobia-Donostia egin nituen"

Zaletasun asko dituen gizona da Ramon Eraña aretxabale-tarra. 61 urte ditu eta martxoan erretiro aurreratua hartu zuen. Orduetik hona, gehien gustatzen zaizkion gauzak egiten ematen du denbora: mendian ibili, korrika, txistua jo, eta zer ez... Hark dio obrei begira egotea baino, hobe dela "okupatuta" bizi izatea. Dituen zaletasunen gainean jardun dugu harekin.

Gustura erretiratu zara?

Bai, baina oraindik ez diot guztiz martxa hartu. Ez dut ohitzeko denborarik izan. Batzuetan, denbora faltan ere izaten dut.

Zer egiten duzu, bada?

Orain, asko joaten naiz mendira. Adibidez, joan den astean birritan izan nintzen Aizkorrrin. Degurixa aldea ere gustuko dut. Korrika ere egiten dut. Astean birritan Urkulura joaten naiz antxintxika egitera. Atletismoa asko gustatzen zait. Entrenatzaile lanetan ere ibilia naiz Almenen gaztetxoekin. 15 bat urte aritu nintzen horretan. Herri lehiaketetan ere parte hartutakoa naiz; adibidez, Behobia-Donostian.

Zeure 50 urteak ere modu berezian ospatu zenituen.

2000. urtean egin nituen 50 urte, eta, hori ospatzeko, lehenik, Hiru Handiak txapelketan hartu nuen

parte eta gero, Behobia-Donostian korritu nuen. Nire bi zaletasun nagusiak uztartu nituen: media eta korrika egitea.

Sahararako martxan ere hartu zenuen parte. Ez da horrela?

Bai. Martxa Berdea Saharan sartu zenetik 25 urte bete zirenean egin zen martxa hori lehenengoz eta gu lehen edizio hartan izan ginen. Aretxabaleatik bi joan ginen eta beste hiru Bilbotik. Nik hamar kilometro bakarrik egin nituen; temperaturak asko zailtzen du proba. Desertuan korritzea berezia izan zen. Oso esperientzia polita izan zen eta bertako familien harrera, bikaina. Orduz gero izan dugu harremana eurekin. Materiala bidali izan diegu; adibidez, eguzki plakak. Iesbaa elkar-tekoek jana biltzeko egiten dituzten kanpainetan ere lagundu izan dugu bertara joandakook, eurek eskatuta. Horretaz gain, urtero antolatzen dugu lasterketa bat herrian.

Sahararen alde nahiko egiten dela uste duzu?

Guk bidaltzen dieguna ez da nahikoa izaten. Gobernuei presio handiagoa egin beharko litzaieke, maila altuagoan lan egin dezaten. Oso garrantzitsua deritzot sahararren egoeraz jabetzeari eta kontzientzia hartzeari.

HERRITARRAK



Ramon Eraña, eskuan txistua eta mendiko makila dituela. | IRATI GOITIA

"Jada 1.000 bider emango nuen odola; garrantzitsua da emaleak izatea"

"Saharrek bizi duten egoeraz kontzientzia hartu behar dugu"

Odol emaleen herriko arduraduna ere bazara.

11 urte daramatzat arduradun moduan. Horrek ez dit lan handirik ematen: unitate mugikorra datorrenerako gauzak antolatu, komunikabideetara deialdiak bidali eta batzarretara joan. 18 urterekin hasi nintzen odola ematen eta orduetik hona, ez naiz gelditu. Uste dut 1.000 bat ateratze eginak izango ditudala.

Kasu honetan, gizartea kontzientziatuta dago?

Ez dakit, nik ikusten dudana da odola ematera batez ere adindun jendea joaten dela. Aretxabaletan, behintzat, 40 urtetik gorakoak dira joaten direnak; 18 eta 30 urte bitartekoak dira falta direnak. Nik uste dut jendea badela kontziente odola ematearen garrantziaz, baina erosotasunagatik ez dela joaten. Zeren beldurra izatearena, nire iritziz, aitzakia baita; erosotasunagatik da.

Azkenaldian txistua jotzen hasi zarela uste dut.

Dantza taldean ere aritutakoa naiz, bai dantzan eta baita txistua jotzen ere. Neure aldetik ikasi nuen txistua jotzen, dantza taldean beharra zegoelako. 20 urte inguru ibili nintzen eta gero utzi egin nuen, baina orain berriro hasi naiz. Izan ere, urriaren bederatzian, txistulari eguna egin behar da Aretxabaletan eta bertan parte hartzeko deitu didate. Hala, berriz hasi naiz praktikatzen. Esfortzua egiten nabilenez, gero jarraitu egingo dut.

Erretiroa beste zerbait egiteko aprobetxatu duzu?

Bidaiatzea oso gustuko dut eta orain gehiago bidaiatuko dut. Datorren urtean Indiara joateko asmotan nabil; ondo antolatu nahi dut guztia. Baina hurrengo bidaia urrian izango da, La Palmara; hango ibilaldi batzuk egitera goaz, mendira.

NIRE HERRIAN

KULTURA ETXEA ETA PARKEAK

Uste dut orain dugun kultura etxea oso ondo dagoela eta herriari zerbitzu ona ematen diola. Lehen, faltan sumatzen nuen. Bestalde, umeendako parkeak eta ibilaldiak egiteko guneak ere oso ondo daudela iruditzen zait; adibidez, Eskoriatzara joateko bidegorria eta Urkulura joateko bidea.

AUTOBUS GELTOKIAK

Azkenaldian, autobus geltokiak direla-eta, arazoak izan dira herrian, eta uste dut hori konpondu beharreko zerbait dela. Zehaztasun falta ikusi dut gai horretan. Horrez gain, asteburuetan ez da udaltzainik izaten eta hori salatu nahiko nuke. Izan ere, ikusten dira autoak edozein lekutan aparkatuta eta ez dago inor ezer esateko.

HERRIAK

ARAMAIO

Bi harraska topatu dituzte Aramaioako Barajuen auzoan

- ▶ Mariakako bidea hartuta, Ametibar izenarekin ezagutzen den parajea daude
- ▶ Bi putzuak ondo daude, baina arropa igurzteko lau harriak falta zaizkio

MIREIA BIKUÑA | ARAMAIO

Aramaio. Barajuen auzoa. Solo-barri baserria. 09:30. Julian Untzuetarekin (Aramaio, 1929) hitzordua daukagu. Ibilaldira bat daukagu esku artean, Ametibar izenarekin ezagutzen den parajea topatu dituzten bi harraskak ikustera joateko. Gu gauden lekutik 800 bat metrora daude. Lehenengo, aldapa behera; eta ondoren, aldapa gora.

Mariaka alderako bidea hartu dugu, eta Etxabe baserrikoen terrenotan topatu dituzten harrasken gaineko kontakizunarekin hasi da: "Gure baserriatik -Salasan baserria- ikusten genuen emakumeak arropa garbitzera nola joaten ziren. Bi astotan joaten ziren. Beti taldean, elkarri laguntzeko".

Sastraka eta asun artetik pasata, heldu gara harraskak (garbiletzak) dauden lekura. Urez beteta daude: ur garbia eta freskoa. Ura-aren gaineko bi bitxikeria kontatu dizkigu Untzuetak: "Arropa garbitzera etortzen zirenean, ura eramaten zuten etxera lapikoetan. Antza, babarrunak eta garbantzuak egosteko ur ona zen. Orduan bazeo-aren auzoan metal-ura ematen zuten iturria, baina sukaldean ibil-



Julian Untzuetak, Barajuen auzoan dauden harrasken alboan. | MIREIA BIKUÑA

tzeko gogorregia zen. Bestalde, ura hotza dator, eta hona etortzen ziren emakumeek apustu egiten zuten: ea nor edukitzen zuen eskua ur-tan sartuta denbora luzeen".

Suaren hautsa

Arropa garbitzeko prozesua nola-ko zen ere kontatu digu: "Arropa xaboiarekin igurzten zuten etxean, eta 200 litro inguruko tinetan eramaten zuten. Harraskara helduta, sua egiten zuten ura berotzeko. Garbitu beharreko arroparen gainean trapu zaharrak jarri, eta gainean suaren hautsak ipintzen zituzten. Gainetik ur beroa botatzen zuten behin eta berriz, arropa garbi utzi arte. Tinak iturri bat zeukan, eta handik ur garbia irteten zenean, arropa garbia zegoela esan nahi zuen".



Arropak eramateko tina. | MIREIA BIKUÑA

JULIAN UNTZUETA
ARAMAIOARRA

"Orain dela 40 urte arte, erabiltzen ziren harraskak garbitzeko"

Oso gogoan du Julian Untzuetak Barajuengo harraskak non zeuden.

Zuen etxean erabili zenu-ten?

Ez. Guk ura etxeraino genuen, eta ez ginen Barajuenera joaten. Zentzu horretan pribilegiatuak ginen, ura etxean genuelako.

Noiz arte erabili dituzte harraskak?

Barajuen auzora ura eramaten zuten arte. Ni neuz nintzen Aramaioko alkate. Orain dela 40 urtera arte bai, behintzat.

Harraskak ondo kontserbatzen dira?

Nahiko ondo. Ura batzen den putzu biak ondo daude. Elkarri lotuta daude. Dena den, arropa igurzteko harriak falta dira. Bina harri zituzten harraskek, eta guztiak falta dira.

Sastraka asko daude inguruetan?

Lehen, paraje ederra zen. Harrasken alboetan gaztairondoak zeuden. Orain, berriz, sastraka eta asun asko dago.

Ondarea berreskuratzeko taldea

Aramaioko ondarea berreskuratzeko taldeak bazuen Barajuen auzoan dauden harrasken berri. Uztailean Ametibar inguruan pinuak moztzen hasi zirenean, harraskekin kontuz ibiltzeko eskatu zieten han zebiltzan langileei. Bada, harraska horiekin zer egin erabaki beharko dute orain: parajea garbitu, harrasken gaineko datuak batu auzotarren artean...

IDIOMASTER
ARRASATE

matrikula zaitetz!!

hizkuntzak

Ingelesa, Frantsesa, Alemana



Otalora 29 - 20500 ARRASATE
Tel./ Faxa: 943 79 07 84

idiomaster@euskalnet.net www.idiomaster-arrasate.com





Bizikleta da autoa utzi eta garbi mugitzeko modu eraginkorra; Birzikleta azoka bihar egingo da Seber Altuben. | ARTXIBOA

Eskola agenda atera du Hezkuntza Sailak, Txatxilipurdi eta AEDrekin

J.B. | ARRASATE

Hezkuntza Sailak, Txatxilipurdi eta AEDrekin elkarlanean eta ikastetxeetako hiru irakasleren laguntzarekin, 2011-2012 ikasturterako eskola agenda atera du. Hainbat helburu ditu eskola agenda berriak: kultur eta hizkuntza transmisioa sustatzea, ohiko eskola agenda baten funtzioak betetzea, bertako euskalkia erabiltzera bultzatzea eta Arrasateko auzoen erreferentziak eta historia pasarteak jasotzea, besteak beste.

Gainera, gurasoengana ere heltzea gura dute, Arrasateko historia eta euskalkia ezagut ditzaten. Eta ez hori bakarrik, Arrasatera etortzen diren ira-

kasle berriendako lagungarri izatea ere gura dute. Agendak eduki informatiboak, funtzionalak eta transmisiozkoak jasotzen ditu eta Udalak irakasleei proposatu die ikasleekin landu ditzaten.

LHko ikasleei banatu zaie

Hezkuntza Sailaren arabera ikasturte berrirako eskola agendak Lehen Hezkuntzako ikasle guztiei eta tutoreei banatu zaie.

Iaz Hiki Hasi aldizkariko kideekin eta hiru irakaslerekin elkarlanean unitate didaktikoak atera zituzten eta orduko esperimentari jarraipena eman gura izan dio Udalak.

Beste era batera mugitzeko beharra gogoratzeko astea

Mugikortasun Astearen barruan, ekintzaz lepo dator asteburua; hiri autobusa doan irailaren 22ra arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gaur hasi eta hilaren 22ra arte autoa utzi eta hiri barruan mugitzeko beste era bat badagoela erakutsiko digu Agenda 21 egitasmoaren barruan Udalak antolatutako Mugikortasun Iraunkorraren asteak. Ekitaldi arrakastatsuenak Birzikleta azoka bada ere –bihar, Seber Altube plazan, 11:00etatik 15:00etara–, beste hainbat ekitaldi egongo dira hilaren 22ra arte.

Asteburua ekintzaz lepo dator: bihar, Birzikleta azokaren ostean, Biteri plazan Segway eta Trikke ibilgailuak probatu ahalko dira (11:00-14:00) eta emisio txikiko ibilgailuen erakusketa egongo da (11:00-15:00). Domekan, berriz, bizikleta bira egingo dute bidegorritik, Eskoriatzako plazara. Seber Altuben elkartuko dira, 11:00etan.

Alternatibak eskaini beharra

Josu Pereda Ingurumen zinegotziari egitarauaz haratago Arrasate dituen premien gainean galdetu diogu: "Arrasaten dugun

premia handienetako bat da autoen erabilera murriztea, erdigunean batez ere", adierazi du asteon Arrasate Irratian egindako elkarriketan. Aparkalekuen auziari irtenbide bat eman gura diote, Biteri eta Garibaiko aparkalekuen arazoa konponduz; urrats zaila

eta kontraesan bezala, baina: "Aparkalekuak erdigunean erabilgarri jarriz gero autoaren erabilera indartuko dugu eta hori gure asmoen aurka doa".

TAO sistema unibertsitate eta ospitale inguruan jartzea pentsatzen dabilta –esperimendu moduan– baina oraindik ez dago ezer erabakita. Bestalde, bidegorri sareari, herri artekoari zein herri barrukoari, lehen tasuna emango dio Udalak, baina Aldundiaren erantzukizuna da hein handi baten.

Garraio publikoaren aldeko kanpaina iraunkorra egin behar dela uste du Peredak, dioenez, erabilera jaisten dabilelako: "Autobus zerbitzua bikoiztu egin den arren, erabilera gutxitu egin da, eta hori oso kezagarria da".

Mugikortasun Astearen barruan hiri autobusa asko erabiltzen da– doakoa da gaur hasi eta hilaren 22ra arte–. Peredak argi dauka ibilgailua alde batera utzi gura bada Udalak alternatibak eskaini behar dituela.

ESANAK

"Bus zerbitzua bikoiztu den arren, gutxiago erabiltzen da"

JOSU PEREDA | INGURUMEN ZINEGOTZIA

OHARRAK

EA-REN ALKARTASUN EGUNERAKO AUTOBUSA

Domekan Alkartasun Eguna ospatuko du Eusko Alkartasunak. Arrasateko Eusko Alkartasunak autobusa antolatu du Lizarrako Foruen plazan egingo den ospakizunera joateko: Abaroatik irtengo da, 09:30ean. Aurtengoa ospakizun berezia izango da, izan ere, 25 urte betetzen ditu alderdi abertzaleak.

AUTOBUSA 'EGIN DEZAGUN BIDEA' MANIFESTAZIORAKO

Bihar euskal presoek eskubideen aldeko manifestazioa egingo da Donostian (17:30). Autobuserako txartelak salgai daude Iratin, sei eurotan; Garibaitik, 16:00etan.

YOGA IKASTAROA

Astehenetik egunera, goiz eta arratsalde. 635 71 06 16 (Maite) eta 943 78 31 26 (Ana).

'Euskalkixari heldu!' ikastaroa AEDri esker, kaleko hizkeraren alde

AEDk beste behin antolatu du Arrasateko euskalkia lantzeko ikastaroa. Jende gaztea erakartzea da euren asmoa, Itxaro Artola AEDko kideak adierazi duenez: "Euskara batuan ikasi duten hainbat euskaldun hankamotz geratzen dira hemengo hizkeran berba egiteko orduan; horiendako da bereziki". Urriaren 19an hasiko da eta ordura arte eman daiteke izena. Izena AEDn eman behar da (943 77 12 28). Bazkideek 50 euro ordaindu behar dituzte eta gainerakoek, aldiz, 55 euro. Eguazteneko bilduko dira Udala Euskaltegian, 18:30etik 20:30era.

Baserritarren azoka egingo da bihar, beste bi azokarekin batera

Uztaileko azoka oparoaren ostean, ikasturte berriko lehen baserritarren azoka egingo da bihar Seber Altuben (09:00-14:00). Arrasateko baserritarren postuak bakarrik egongo dira; izan ere, leku eta ordu berean Birzikleta azoka egingo da. Merkemerkaua ere egongo da Biterin, eta, Marga Garmendia udal teknikariaren arabera, bata ez du bestea zapalduko: "Elkarren lagungarri dira azokak. Jende mugimendua egongo da eta horrek mesede egingo dio baserritarren azokari". Hurrengo hilabeteetan salmentak sustatzeko estrategia berriei helduko diete.

Aukeratu bizi izateko espazio libre bat

biodantz

Rakel Ampudia

Euskal Herriko biodantzako profesionalen prestakuntza eskolaren zuzendaria

Asteazkenero
19:30etik 21:30era
Arrasate Yoga Elkartearen (Altamira)

Ate irekiak: Irailaren 28an,
19:30etik 21:30era
Arrasate Yoga Elkartearen (Altamira)

Biodantzako profesionalen prestakuntza eskola
Hasiara urriaren 22-23an
1. Modulua: BIODANTZAREN MODULU TEORIKOA

Informazioa:
679 44 12 29 biodanzavitoria@gmail.com
www.biodanzavitoria.com

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Restaurante

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Merkemerkaua bihar, inoiz baino luzeago eta merkeago

Ibai-Arteren azoka berezia 10:00etatik 21:00etara izango da, %70 eta %80ra arteko deskontuekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Badator Merkemerkaua, seigarrenez. Otsaileko bosgarren edizio arrakastatsuen ostean, udaberri-udako azoka lehenengoz antolatu dute Ibai-Arte elkarte-koek. Aurreko edizioetan moduan, herriko merkataritza elkarte-ko kide diren saltoki gehienek kalitatezko produktuak prezio murriztu-terekin aterako dituzte euren erakuslehoetara.

Olarte, Otorra Lizentziaduna, Iturriotz, Garibai eta Zerkasteta kaleetako Ibai-Arteko dendak kalera irtengo dira eta erdialdetik urrun dauden saltokiek eta euren produktuak erakuslehoi aurrean jartzeko aukerarik ez dutenek, aldiz, Biteri plazan kokatutako karpeta-ramango dute azoka. Aurrekoetan Uarkape pilotalekura eramana izan da azoka. Aurten, berriz, Biterira.

Seigarrena, nobedadez josita
Dena den, seigarren edizioak berritasun gehiago ere baditu.



Kalitatezko produktuak preziorik onenean lortzeko aukera egongo da. | ARTXIBOA

Izan ere, Ibai-Arteko kide diren saltokietan azokako mapak jarri dituzte bezeroen eskuetara. Zertarako? Honela azaldu dute: "Parte-hartzaileak zeintzuk diren erakustez gain, haien kokapena ere jakinarazteko".

Hala, zapatuko udaberri-udako Merkemerkaua joaten direnek %70 eta %80ra arteko deskontuak izango dituzte produktu ezberdi-

netan: helduendako eta haurrendako arropa, lentzeria, mertzeria, osagarriak, oinetakoak... Inoiz baino merkeagoa izango da seigarrena, baina baita ohi baino luzeagoa ere, 10:00etatik 21:00etara iraungo du-eta, inongo etenaldirik barik.

Gainera, eguna girotzeko, kalean eta Biteriko karpeta-ramango musika jarriko dute.

Gripearen aurkako kanpaina irailaren 19an hasiko da, 31ra arte

J.B. | ARRASATE

Arrasateko lehen mailako atentzio taldeak jakinarazi duenez, 2011ko gripearen aurkako txertaketa kanpaina datorren astelehenean, hilak 19, hasiko da. Egun horretan hasi eta hilaren 31ra arte iraungo du kanpaina.

Azken urteetako ohiturari jarraituz, txertaketa 65 urtetik gorako guztiendako izango da, baita gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik behera-koendako ere. Horien artean daude, esaterako, diabetesa duten pertsonak eta bihotzeko, biriketako, giltzurrunetako edo bestelako gaixotasunen bat dutenak.

Zaharren egoitzetan

Herriko zaharren egoitzetan emango dituzte txertoak. Ordu-betez egongo dira egoitza ezberdinetan, 12:00etatik 13:00etara, hain zuzen.

Lehendabizi, egoitza handienetik pasako dira; hau da, San Andres auzoan dagoen Etxaluze eraikinetik. Irailaren 22an, eguena, pasatuko dira bertatik. Gainerako egoitzei dagokienez, honako egun haue- tan pasatuko dira: Uribarriko egoitzara hilaren 23an, Santa Marinara 26an eta Musakolara 27an. Etxean dauden ezinduek euren mediku edo erizainarekin harremanetan jarri beharko dute txertoa etxean jasotzeko.

Obrak amaitu ez diren arren, bihar itzuliko da zinema Amaiera

Amaia antzokiko ataria ego- kitzeko obrak amaitu ez diren arren -irail amaieran ama- ituko dira-, lanek ez dute kul- tura eskaintzan eraginik izango. Beraz, udako etenal- diaren ostean, bihar buelta- tuko da zinema, Woody Alle- nen *Media noche en París* filmarekin (19:30 eta 22:00).

Hilaren 23an ez da azokarik egongo Laubide plazan

Egubakoitzero Laubide plazan egiten den azoka ez da egingo datorren astean. Izan ere, EAE- ko Andaluziako etxeen topa- ketak egingo dira datorren asteburuan -hilak 23, 24 eta 25- eta jaialdirako beharrezkoa den materiala muntatzen ari- tuko dira udal langileak, egu- neko lehen ordutik.



ARRASATE
MONDRAGON

**ARRASATEKO
MUGIKORTASUN
ASTEA 2011**

Irailaren 16-22



Egitaraua • Arrasate

EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA
2011KO IRAILAREN 16tik 22ra

HIRIBUSA

Irailaren 16tik 22ra, hiribusean guztiz DOAN ibili izango da.

- Adin txikikoek autobusa erabili ahal izango dute nagusi batengatik lagunduta badoaz edo ohiko eskolako bidaiak egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezten)

Irailak 17 - Zapatua

BIRZIKLETA AZOKA - Bigarren eskuko bizikleta azoka - Seber Altube plazan -
11:00-15:00

SEGWAY ETA TRIKKE ZIRKUITOA - Biteri plaza -
11:00-14:00

ERAKUSKETA - EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK - "mugitzeko beste era bat" - Biteri plaza -
11:00-15:00

Auto hibridoak eta elektrikoak, Motor elektrikoak, Motor hibridoak, Paseoko bizikletak, Bizikleta tolesgarriak, Bizikleta elektrikoak, Segway ...

Irailak 18 - Domeka

BIZIKLETA BIRA - Arrasatetik Eskoriatzako plazaraino bidegorritik
Irteera 11:00etan - Seber Altube plaza-

Irailak 20, Martitzena

"FAMILI GIROAN BIZIKLETAK BIDAIATZEA" zure neurriko proposamen bat - ikus-entzunezkoa
Kultur Ate - Jokin zaitegi gela 19:00

Irailak 22 - Eguena

MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN TAILERRAK

Seber Altube plaza - 17:00

Irisgarritasuna lantzeko jarduerak eta mugikortasunari buruzko hausnarketa

Pitxi Herrero zenaren oroimenezkoa asteburuan

El Pilar, Trapagaran eta Tolosa gonbidatu dituzte torneo jokatzeko

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Astebete geratzen da Euskadiko txapelketako taldeek denboraldia has dezaten -Hondarribiaren kontra izango da lehen jardunaldia-, eta oraingo asteburua probak egiten joateko eta ondorioak ateratzeko baliatuko du Ane Herrerok, Ford Mugarriko entrenatzaileak. Hain zuzen, haren aitaren oroimenezko torneo antolatu du Arrasateko eskubaloitako taldeak; zazpigarren edizioa izango da.

Aurtengo gonbidatuak El Pilar, Trapagaran eta Tolosa dira, eta, denboraldi-aurrean edozer gerta badaiteke ere, berez, El Pilar eta Ford Mugarri Arrasate dira domekako finalerako sailkatzeko faboritoak. Bi talde horiek maila berekoak dira eta Trapagaran eta Tolosa Gipuzkoako eta Bizkaiko ligetako bi talde txukun.

Azkenean, puntako taldea

Ford Mugarri Arrasateko taldean izan behar zituen bajak betetzeko ardurarekin hasi zuen denboraldi-aurrea, eta, taldeko



Ligan, aurrez aurre, Ford Mugarri Arrasate eta El Pilar, Musakolan. | JULIO CALLEJA

PARTIDUEN ORDUA

ZAPATUA

16:00 El Pilar-Tolosa

18:00 F. Mugarri-Trapagaran

DOMEKA

10:30 3. eta 4. postuak.

12:00 Finala.

ordezkari Andoni Arandok baieztatu duenez, konturatu direnerako sekulako taldea egin dute.

Izan ere, Arrate desagertu izanaren ondorioz hiru jokalarik Arrasaten aurkitu dute maila txukunean jokatzeko aukera. Gorka Bernal oñatiarraren izena joan den astean aurreratu genuen, eta harekin batera Goierriko bi anaia etorri dira, Mikel eta Asier Larrañaga. Laugarren fitxaketa, berriz, Arrasateko jokalaria bat izan da, Bidasoatik etorri den Aitor Txabarri atezaina: "Ia konturatu barik oso talde indartsua geratu zaigu eta, gainera, etorri direnak hainbat postutan joka dezaketen jokalaririk dira. Hala, asteburuan ikusiko dugu lehenengoz taldea osorik."

Miquel Illescas estu hartu zuten etxeko xakelariek

X.U. | ARRASATE

Miquel Illescas xakeko maisu handi katalana Donostian egon zen joan den astean, Fortuna Kirol Elkarteak gonbidatuta -elkarteak 100. urteurrena ospatu zuen-. Illescas zortzi aldiz izan da Espainiako txapelkun, eta Kasparov mendean hartu zuen Deep Blue konputagailua programatzen parte-hartze zuzena izan zuen. Bada, Arrasateko Josu Tornayk eta Asier Etxagibekek haren kontra jokatu ahal izan zuten, Gipuzkoako xakelariz osatutako selekzioan izan ziren-eta.

Illescasek jardunaldi gogorra izan zuen, 25 lagunena kontra jokatu behar izan zuen -eta aldi berean, baina Arrasatekoek ondo egin zioten aurre, bi partidatan maisu handiak berdinketa eskaini zien-eta, eta eurek onartu. Etxagibelen kontrako partidaren Arrasateko gazteak hasieratik lortu zuen posizio sendoa. Tornayren partida, berriz, "oso posizionala" izan zen. Bost orduko lehiaren ostean jaso zuen Arrasatekoak partida berdintzeko eskaintza.



OINTXE!

Tafallakoegonaldiari zukua atera dio Ointxe!-k

Ointxe!-ko talde guztietako ordezkariak Tafallan izan ziren joan den asteburuan, hango taldeen kontra lagunarteko partiduak jokatzen. Klub zuri-moreak 85 jokalaria

eraman zituen Beireraino, lehen nazional mailako jokalarietatik hasi, eta infantil mailakoetaraino. Denboraldia hasteko modurik onena.

Hil honetarako bi mendi irteera Besaiderekin

X.U. | ARRASATE

Irailerako bi proposamen ditu Besaidek: irailaren 25ean egun osoko irteera egingo dute Valderejora (Araba). Izen emateko egunak: irailak 19, 20 eta 21 (19:30-20:30).

Eta asteburu berean bi eguneko irteera egingo dute, baina Pirineoetara joateko. Hala, irailaren 24an eta 25ean bi eguneko mendi zeharkaldia egingo dute, Selva de Ozan hasi eta Somporten amaitu -Arletoko aterpean egingo dute lo-. Izen-ematea: irailak 19 eta 20 (19:30-20:30).



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Musika lasai az gozatzeko aukera gaur hasi eta domekara arte

'Kulturate akustikoak' zikloaren barruan hiru saio 20:00etan, doan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Kulturateko akustikoak zikloaren azken aste bukaera izango da oraingoa; hala ere, ez da edonolako aste bukaera izango. Hiru saio eskainiko dituzte Kulturateko areto nagusian.

Gaur, Mamy Watak jardungo du; bihar, zapatua, Manett bilbotarren txanda izango da; eta domekan, Keu Agirretxeak girotuko du Kulturate.

Soinu afrikarrak

Afrikar soinuak lantzen ditu Mamy Wata musika taldeak. Frantsesez idatzitako kantuetan, dantzak eta musikak bat egiten dute Mamy Wataren saioetan. Taldeko ahots nagusia den Déa gidari, sona handia lortu du taldeak azken bolada honetan. Uda osoan jaialdiz jaialdi ibili eta gero, Arrasaten izango dira gaur, egubakoitza, 20:00etan. Sarrera doan izango da.

Bilbotarren txanda bihar

Bilbotarrek *Suburbia* disko berria aurkeztuko dute Kulturaten. Hamar abestiz osatutako lana da *Suburbia*, Moonpalace estudioak editatua. Edu Guzman -bateria-jotzailea-, Diego Rodriguez -gitarra eta ahotsa- eta Raul Rodri-



Keu Agirretxeak domekan jardungo du Kulturaten. | GOIENA

guez -baxu-jotzailea eta ahotsa- dira Manett taldeko kideak. Bilboko taldeak 2005ean kaleratu zuen lehen maketa -*By the railways*- eta 2009an bigarrena. Aurrenekoarekin Bilbo Hiria lehiaketan nabarmendu ziren eta bigarrena, berriz, *Mondo Sonoro* aldizkariak Euskal Herriko eta Errioxako maketa onena izendatu zuen.

Keu Agirretxea domekan

Kulturate akustikoak zikloaren azken emanaldia Keu Agirretxea-

rena izango da. *Fignuh experience* proiektua eskainiko du ondarrutarrak.

Gitarra-jotzailea izatez, azkenaldian melodiak sortzen dabil Agirretxea. Pop musikaren inguruan abesti borobilak egiten ditu, eta, horrez gain, ahotsarekin lan-keta sakona egiten du.

Pop musikaz haratago jazz eta folk doinuak ere lantzen ditu Ondarroako musikari gazteak. Agirretxearen ahotsak agurtuko du arrakasta ona izan duen kontzertu formatua.

Bost taldek girotuko dute gaztetxea bihar, zapatua

Arrasateko bi gaztek Realaren partidu baten jaso zuten isunari aurre egiteko izango da dirua

A.E. | ARRASATE

Punk-rock doinuek gaztetxea hartuko dute adierazpen askatasunaren aldeko kontzertuan. Taula gainean herrian aski ezagunak diren bost talde izango dira: Arkada Social, The Kate's Maniacs, Never Surrender, The Dirty Brothers eta Interprete Desconocido.

Kontzerturako sarrerak 5 eurotan daude salgai Iluntz eta Taupa tabernetan. Kontzertua 22:00etan izango da.

Hainbat belaunaldi

Taula gainera igoko diren taldeak hainbat belaunalditakoak dira, eta gaztetxea betetzea espero dute antolatzaileek.

Jaialdia antolatze lanak iaz hasi zituzten; hasiera baten, bi eguneko jaialdia egitea zen asmoa. Bada, antolatzaileek

gaineratu dute hainbat talderen babesa jaso dutela, baina talde guztiak elkartzea ezinezkoa izan zaiela.

Helburua: dirua batzea

Realaren partidu baten Arrasateko bi gaztek jaso zuten isuna ordaintzeko helburuarekin egingo dute adierazpen askatasunaren eguna. Hain zuzen, presoaren aldeko maindirea erakustea 4.000 euroko isuna jaso du gazte bakoitzak eta urtebetez futbol zelaietara sartzeko debekua izango dute.

Bestalde, dirua lortzeko beste bide batzuk ere izango dituzte antolatzaileek. Esaterako, Realeko jokalariek sinatutako kamisetak banatuko dituzte zozketa-txartelen bitartez. Modu horretan, "bidegabea" den isunari aurre egingo diote.

Udako zinema amaituta, berriro ere Amaiara itzuliko dira zinema emanaldiak

A.E. | ARRASATE

Denboraldi berriarekin batera berriro ere hasiko dira zinema emanaldiak Amaia antzokian eskaintzen. Uda partean Monterronen izan dira emanaldiak; baina aste bukaera honetan dute zapatuan Amaiara itzuliko dira.

Aste bukaeran bi film eskainiko dituzte: alde batetik, hau-

rrei zuzendutako *Kung Fu Panda 2* filma eskainiko dute domekan, 18:00etan.

'Media noche en París'

Bestalde, Woody Allenen *Una noche en París* filma eskainiko dute zapatuan, 19:30ean eta 22:00etan; domekan, 19:30ean; eta astelehenean, 20:30ean.



Aireko irudiak Goikobaluren DVDra

Helikoptero txiki bati itsatsitako kamerarekin irudiak grabatu dituzte herriko hainbat tokitan. Hain justu ere, Goikobalu abesbatzak 20 urte bete dituela-eta, hori ospatzeko, DVD-CDa kaleratuko du abesbatzak Gabon ingururako; hala, DVDra irudiak grabatzen ibili dira Artemanekoak.



Lilura

OIHALAK

Egin zure jantzia.

Konpromezurik gabeko aurrekontua.

Poltsak, eskularruak eta galtzerdiak bezalako osagarriak eskaintzen ditugu.

Zerkaosteta 5. behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

arbolapeta



arrasate

b9inke



BASATI

TABERNA

943 71 17 68

Haurren danborrada 18:30ean abiatuko da gaur kultura etxetik

Txomingero bazkarian umeendako jolasak egongo dira estreinakoz

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

San Martin jaiek ekitaldi askoz gehiago ekarriko dituzte asteburuan. Gaur, egubakoitza, zezenak, umeak eta Udal Musika Banda izango dira protagonistak. 09:00etan, sokamuturra egongo da erdiguneko kaleetan barrena, 16 urtetik gorakoendako eta 11:00etan, errektadore eskola ibiltaria egongo da Munibe plazan.

Bandari dagokionez, kontzertua egongo du San Martin plazan 12:30ean. *Canpo de rosas*, *Poeta y aldeano*, *The conquest of paradise*, *Around the world in 80 days* eta *San Martin* obrak joko dituzte.

Umeen danborrada

Umeen danborrada 18:30ean abiatuko da kultura etxetik eta ohiko ibilbidea eginda, San Martin plazan bukatuko dute itzulia. 19:00etan Bergara Hiria pilota txapelketako errebantxa jokatu dute Udal Pilotalekuan, BKEk antolatuta, eta 19:30ean, Im Pass izeneko kale antzerkia egongo du Iñaki Matak. 20:30etik 21:30era, erromeria egongo da San Martin plazan Xakenajak taldearekin,



lazko umeen danborradaren irudi bat. | MONIKA BELASTEGI

22:00etan, suzko erruberak, Agorrosinen, eta 22:00etatik 00:30era berriz egongo du erromeria Xakenajak taldeak.

Txomingeroen bazkaria

Bihar, zapatua, berriz egongo da sokamuturra erdiguneko kaleetan,

09:00etan eta 14:30ean, txomingeroen bazkaria egongo da. San Martin plazan izango da, Ustekabe txarangak alaituta. Eurria egongo balu, Simon Arrietako arkupeetan egongo da. Bazkaria eta gero, nagusiendako zein umeendako jolas eta tailerrak

egongo dira, Jardunen eskutik, 16:30ean.

Umeendako jolasena berrikuntza da. Aurten arte nagusiendako jolasak egon izan dira bakarrik. Bada, aurten, nagusi zein ume, guztiak jolas egiteko moduko jolasak egongo dituzte Jardu-

neko 6 begiralek. Hala, goxoki jaurtiketan, taldekako soka saltoan, laranja jolasean... ibiltzeko aukera izango dute, beti ere, ume zein nagusien taldeak berezita. Horrekin batera, tailer bi ere egongo dira: aurpegi margotzea eta globoflexia.

17:00etan Ustekabe txarangak kalejira egongo du eta ordu berean Larraineko herritarrek Telefono Monzon pastorala egongo dute Seminarioko patioan.

19:00etan 2011-2012 denboraldiko saskibaloia taldeak aurkeztuko ditu BKEk San Martin plazan eta 20:30ean, Senegalgo Batu perkusio taldeak kalejira egongo du, Seminarioko patioetik abiatuta.

Dantza txapelketa, domekan

Domekan, hilak 18, 38. ageriko pintura lehiaketa jokatu dute, 09:30ean hasita. 10:00etatik 14:00etara 39. xake azkarreko txapelketa, Agorrosin Ekintza Gunean. 10:00etan, 23 urtez azpikoendako 66. San Martin Saria txirindularitza lasterketa jokatu dute, Lokatzak antolatuta. Irteera eta helmuga Ibargarain izango dira. Helmugaratzea 13:00etan izango da.

11:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara haur, gazte eta helduendako puzgarriak egongo dira Munibe plazan eta 12:30ean, berriz, Moises Azpiatzuren ome-nezko 27. dantza suelto txapelketa jokatu dute, San Martin plazan, Abarka dantza elkartearen laguntzarekin.

Zabalik dago izen-ematea Udal Euskaltegian

Bailarako udal euskaltegiek, Bergarakoak barne, ikasturte berrirako eskaintza aurkeztu dute asteon. Hauek eskainiko dituzte, hain justu: tituluen baliokidetzak, HABEren mailetako azterketak, 4. maila, tutoretzak, gazte etorkinendako hizkuntza erreformatuak, auto-ikaskuntza ikastaroak, euskalkia, hitanoa, AISA ikastaroak eta merkataritza eta ostalaritzari zuzendutako ikastaroak.

Izena emateko, jo Irizar jauregira, deitu 943 76 44 53 telefonora edo idatzi *berg.eusk@udal.gipuzkoa.net* helbidera.

Irailaren 24an hasiko dira gaztetxoendako DJ jaialdiak

Ohi bezala, Zabalotegin izango dira, doan

M.B. | BERGARA

Ikasturte berriarekin batera, Udaleko Gazteria Zerbitzuak Zabalotegi aretoan antolatzen dituen gaztetxoendako DJ jaialdiak ere hastera doaz. Hain justu ere, irailaren 24an izango da lehenengo eta horren ondoren gehiago etorriko dira. Ohi bezala, 18:30etik 21:30era izango da.

Jaialdi horiek egitea Gazteria Kontseiluan parte hartzen duten 12-14 urte bitarteko nerabeen proposamena izan zen, eta, Udalak egoki ikusita, antolatzeari ekin zion iaz. Hala, ikasturte

osoan barrena hilero saio batekin edo birekin gozatu ahal izan dute neska-mutikoei.

Alkoholik gabeko gunea

Gaztetxoak elkartu eta dantza egiteko alkoholik gabeko doako diskoteka baten antzerakoak dira jaialdi horiek.

Arrakasta handia izan dute eta Zabalotegi aretoa lepo bete izan da saio ia guztietan. Bada, nerabeen aldetik erantzun hori ikusita, aurtengo ikasturtean ere antolatzen jarraitzea erabaki du Udaleko Gazteria Zerbitzuak.

Irailan ere Madariagari buruzko bisita gisatuak egongo dituzte

M.B. | BERGARA

Irailan ere Andres de Madariaga Zaldunaren gaineko bisita gidatuak eskainiko dituzte turismo bulegoan, uztailean eta abuztuan egin zuten moduan.

Hain justu ere, hiru bisita eskainiko dituzte. Bi euskaraz: irailaren 18an, 12:00etan; eta 23an, 17:00etan. Eta bat gaztelaniaz: hilaren 24an, 12:00etan.

Madariagaren bisita gidatuok dohainik izango dira. Informazio gehiagorako idatzi *turismoa@bergara.net* helbidera edo deitu 943 77 91 28 telefono zenbakira.

Balorazio positiboa

Uztailean eta abuztuan lehenengo egin dira bisitok eta udal ordezkariak balorazio "ona" egin dute. Esan dutenez, 200 bat lagunek egin dute bisita eta iritzi asko jaso dituzte, "bergararrenak eta kanpotarrenak, eta gehienak positiboak izan dira". Era berean, hauxe gehitu dute: "Irailan beste hiru bisita eskaintzea erabaki da, jendeak interesa azaldu duelako".

Datorren urteari begira hauxe esan dute Udaletik: "Edukiak doitu egongo ditugu, eta eskolentara ere zabaldu nahi dugu eskaintza".

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Jostailuen truke azoka antolatu du Jardunek

Erabilitako jostailuak hilaren 19an hasiko dira batzen, hilaren 30ean eta urriaren 1ean azoka egiteko

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Jostailuak trukatzeko azoka antolatu du Jardun elkarteak bigarrenez. Jostailuekin izaten den gehiegizko kontsumoa murrizteko eta jostailuen berrerabilpena bultzatzeko antolatu dute azoka hori. Hala, umeez erabiltzen ez dituzten eta egoera onean dauden jostailuak Jardunen bulegora eramanda, txartela emango dute han. Gero, txartel hori beste jostailu bategatik trukatu ahal izango da azokan.

Trukerako jostailuek egoera onean eta osorik egon beharko dute. Bestetik, panpinak eta garraioak, kopurua dena delakoa dela ere, txartel bakar baten truke aldatuko dira; eta ez dira onartuko sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrera erakusten duten jostailuak.

Bestalde, aintzat hartzea komeni da jostailua haurraren garapenerako tresna ezin hobea dela eta, horregatik, jostailu hezitzaileen alde egitea komeni dela, Jardunetik aurreratu dutenez.



Umetxo jostailua aukeratzen iazko azokan. | JARDUN ELKARTEA

Bi eguneko azoka

Astelehenean hasi eta 29ra arte batuko dituzte jostailuak Jardunek kultura etxean duen bulegoan, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Azokari dagokionez, Arrizuriaga jauregian egingo dute irailaren 30ean 17:00etatik 20:00etara eta urriaren 1ean 11:00etatik 13:00etara.

Iaz harrera "oso ona"

Iaz lehen aldiz antolatu zuen Jardunek azoka. "Harrera oso ona" izan zuenez, aurten ere beste edizio bat egitera animatu dira. Jardun elkarteko kideek gehitu dutenez, "oro har, halako ekimenen aurrean jendearen erantzuna ona izaten da. Eta, gainera, herriak ideia berriak ondo hartzen ditu".

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOEN BAZKARIA EGINGO DUTE

1963ko kintoez, gizon eta emakume, urriaren 1ean bazkaria egingo dute Azpeitxi jatetxean. 14:30ean izango da, eta, urtero bezala, aurretik argazkia aterako dute. Izena emateko azken eguna irailaren 26a da, Azpeitxi jatetxean, 20 euro aurrerata. Egun horretatik aurrera ez da inor onartuko.

1944AN JAIOTAKOEN BAZKARIA EGINGO DUTE

Urriaren 22an egingo dute, 14:30ean, Zumelagan. 13:00etarako egin dute hitzordua Irala kalean. Izena emateko azken eguna urriaren 22a da, zerbaki hauetan: 943 76 21 86 (Rosa Mari Martinez), 943 76 10 32 (Florita Txintxurreta) eta 943 76 23 70 (Sanchez ile-apaindegia).

AGORROSIN ITXITA ASTEBURUAN ERE

Asteburuan eraikin osoa itxita egongo da garbiketa astea dela-eta. Astelehenean zabalduko dute berriz.

ATE IREKIAK XANTI ARRIETAREN TAILERREAN

Bolu kaleko 53. zenbakian duen tailerrean egingo ditu, zeramika ezagutzera emateko asmoz. Interesa duena gaur hasi eta hilaren 30era bitartean, astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara, joan daiteke. Orduetegi horretan joan ezin duenak 656 77 85 91 zenbakira dei dezake.

HIRU PEOI LANPOSTU BETETZEKO AZTERKETA

Udalak egin du deialdia hilaren 21erako, 09:00etan, Udal Pilotalekuan.

Astelehenean, hilaren 19an, ekingo diote Agorrosin Ekintza Gunean neguko ordutegiari

Astelehenean, hilaren 19an, hasiko da neguko ordutegia Agorrosin Ekintza Gunean. Hori horrela, 07:00etan hasi eta 22:00ak bitartean egongo da zabalik astelehenean egubakoitzera; zapa-tuetan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara irekiko dute eta domeketan, berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Ekintza gunean eskaintzen diren ikastaroei dagokienez, irailaren 26an hasiko dira.

Gizakiaren eta faunaren arteko harremanaz hausnartzeko lekua

'Sentitzea animaliek bezala' erakusketa irekiko dute hilaren 21ean

M.B. | BERGARA

Gizakiaren eta animalien arteko harremanaren gainean hausnartzera daraman erakusketa irekiko dute eguaztenean, hilak 21, Zabalotegiko frontoian. *Sentitzea animaliek bezala* izenburupean, hilaren 28ra arte egongo da zabalik, astelehenean egubakoitzera 09:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta asteburuan 12:00etatik 14:00etara.

Erakusketaren ildo gidaria gizakiaren eta animalia basatien

arteko elkarbizitza da, eta baso sinboliko baten zehar eramango du bisitaria. Aldundiak parte hartzen duen Faureco Europa mailako proiektuaren barruan dago erakusketa, eta fauna basatia berreskuratzeko zentroek eta, bereziki, Donostiako Arrano Etxeak egiten duten lana zein den erakutsiko diete bisitariak.

Hiru espaziotan barrena

Erakusketa hiru espaziotan banatzen da: lehenengoak *Bizitzaren*

misterioa du izenburu eta bertan, bisitaria basoaren bizitzan murgilduko da. Zentzumenak esnatzen dira, naturaren txokoek ezkututzen dutena ezagutzeko.

Bigarren espazioak *Milaka urtetan elkarrekin bizitzaren kontu honetan* du izena, eta gizakien eta animalien arteko harremana iraganean izan zenaren eta gaur egun denaren gaineko hausnarketa egiten du. Aldi berean, etorkizunerako testuinguruak proposatzen ditu.



Arranoa. | GOIENA

Etxea (Gipuzkoa), Ilundain (Nafarroa) eta Alca Torda (Landak) fauna sendatzeko zentroen arteko kudeaketa eta teknika-trukea bultzatzeko Fareuco proiektuaren azalpena ikus daiteke.

Arrano etxea, erreferente

1985ean, Albisu familia euren inguru naturalean bizirik irauteko moduan ez zeuden animalia zaurituak hartzen hasi zen, Igeldoko baserrian. Animaliak berreskuratzen zituzten, ahal zen heinean bizitza basatira itzul zitezten. Hala, Arrano Etxea sortu zuten, eta, azken urteotan egindako lanagatik, Gipuzkoan erreferente bilakatu da faunaren berreskurapenean. 200 espeziatiko 7.000 animalia baino gehiago artatu ditu -hegaztiak batik bat-, eta %63 naturara itzultzea lortu dute.

Hirugarrenak, *Fauna sendatzeko zentroak, biziazaren eta heriotzaren bidean* izenekoak, fauna basatia berreskuratzeko zentroen lana jasotzen du. Hala, Arrano

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53



Iazko lasterketan Naturgas taldeko Pello Bilbao Bergarako helmuga gurutzatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Bergara Hiria pilota txapelketako errebantxa jokatu dute gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita

Ohiturari jarraituz, Bergara Hiria galdu zuten finalistek gaur, egubakoitza (19:00, Udal Pilotalekua), izango dute errebantxa hartzeko aukera. Lehenengo partiduan Juanenea-Lasa eta Victor-Resusta izango dira aurrez aurre. Ondoren, Larrañagak Jauregirekin jokatu du eta Mugurutzak Iruretarekin; izan ere, Mendizabalek eta Untoriak profesionaletara salto egin dute.

Beñat Rezustak afizionatu mailako Diario Vasco pilota txapelketa jokatu du

Aurten ere promesen mailan jokatu du iazko irabazle Beñat Rezusta bergararrak, eta Alegiako Artola izango du bikotekide. Txapelketa asteburuan hasiko badute ere, Rezusta eta Artola taldeburu direnez ez dute aurretik kanporaketarik jokatu behar izango, zuzenean egingo dute salto final-laurdenetara. Azaroaren 13an jokatu dute kanporaketa, 17:00etan, Matienan.

Bergarako saskibaloitza San Martin jaiak aprobetxatu dituzte taldeak aurkezteko

Zapatuan (19:00) egingo dute Bergara saskibaloitza taldekoek aurkezpen ofiziala, eta kalean bertan aurkeztuko dituzte talde guztiak. Horretarako, hainbat saski jarriko dituzte San Martin plazan, eta ariketak egiteko aprobetxatu dute. Horrez gain, eguaztenterako, hilak 21, 1999. eta 2000. urteetan jaiotako gazte txoak deitu ditu klubak, Martinez de Irala plazan (17:30).



Labegarrietako saskiak kalekoengatik ordezkatu dituzte bihar. | GOIENA

Xake hitzordu bikoitza izango da zapatuan: xake azkarreko txapelketa eta Bergara Hiria

San Martin jaien barruan xakelariak bi hitzordu izango dituzte asteburuan: zapatu goizean, 10:00etatik 14:00ak arte lagun arteko 39. xake azkarreko txapelketa jokatu dute Agorrosinen. Motorrak berotzen joateko aitzakia izango da, arratsaldean nazioarteko Bergara Hiria torneo jokatu dute-eta, 16:30ean hasita. Txapelketa hori ere Agorrosinen jokatu dute.

San Martin sariak itxiko du Lehendakari txapelketa

Zapatuan oñatin egingo dute lasterketa eta domekan Bergarakoak erabakiko du txapelketa

XABIER URTZELAI | BERGARA

Afizionatuen mailako Lehendakari txapelketa asteburuan erabakiko da, Debagoienean izango dugun hitzordu bikoitzean. Zapatuan (09:30) ziklistek Oñatin hasiko dute 100 kilometroko lasterketa eta domekan (10:00), aurreko egunetik ondoren erreperatzen direnek geratzen zaizkien indar apurrak Bergaran xahutuko dituzte, beste 100 kilometro izango dituen proban.

Lasterketako irabazleak ez, baina Lehendakari txapela janztera podiumera nor igoko den dagoeneko aurrera genezake, 189 puntu batuta Caja Rural tal-

deko Karol Domalgaskik matematikoki poltsikoan du-eta saria. Bigarren postuan Bidelan-Kirolgi taldeko Haritz Orbe dago (136) eta hirugarren Seguros Bilbaoko Markel Anton (133). Hala, lasterketa bakoitzean 25 puntu daudenez jokoan, ez da aparteko emoziorik egongo.

Caja Rural, errebantxa hartuz

Azken sei urteotan Seguros Bilbaoko taldeko ordezkari batek irabazi du Lehendakari txapelketa, eta, kosta egin bazaie ere, aurten Caja Ruralek eten du bolada hori. Azken txapelduna Ramon Dome-ne izan zen, egun Androni Gio-

catoli talde italiarrean dagoen txirrindularia. Hark jantzi zuen Bergaran Lehendakari onenaren maillota, baina helmugan Naturgas taldeko Pello Bilbao jaso zituen besoak (Euskaltel taldera jauzi egin berri du).

Asentzioko gaina izango dute

Domekako lasterketa Asentzio gainean erabakiko da, seguruenik. Ziklistek 90 kilometro egingo dituzte Zubillaga eta Soraluze artean -Elgoibarrera joan-etorri bat egingo dute- eta azken kilometroetan Asentzio igo beharko dute, Bergarara ziztu bizian jais-teko, Ibargaraira (12:40).

Itsasoan igeri egiten eman dute uda

Begarako igerilariak XI. Distantzia Luzeko Ligan egin dituzten sei lasterketan izan dira udan, eta emaitza oso onak lortu dituzte. Infantil mailan Ainhoa Osa bigarren sailkatu da eta Amaia Oregi hirugarren. Senior mailako gizonetakoan, berriz, Jon Muxika txapeldun izan da eta Joseba Osa hirugarren sailkatu da. Horrekin batera, irailaren 19an hasiko dituzte aurtengo denboraldiko entrenamenduak, Agorrosinen.



AMAI AROTZENA



Mikel Urdangarin zornotzarra. | GOIENA

Mikel Urdangarinek 'Zubia' laneko abestiak eskainiko ditu gaztetxean

'Egubakoitzak kartzelan' egitasmoaren hirugarren saioa eskainiko dute gaur

A.E. | BERGARA

Astebeteko atzerapenarekin etorriko da Mikel Urdangarin Bergarara. Aurreko egubakoitzera-ko aurreikusita zeukan kontzertua bertan behera geratu zen gripeak jota zegoelako Zornotzako bakarlarria. Hala, gaur egingo du emanaldia kartzela zaharretan, 22:00etan. Sarrera 3 euro da.

Hamar abestiko diskoa

Zubia Urdangarinen hamargarren lana da. Karmele Jaio idazleak honela deskribatzen du bakarlarriaren azken lana: "Desira, begirada, nostalgia eta hasperenek osatzen duten mundu lanbrotu hori argiztatu eta ikusgai bihurtzeko dohain berezia du, eta, ispilu baten antzera, norberaren burua erakusten dio entzuleari".

Diskoaren izenak dioten moduan, zubi bat eraiki du Urdangarinek eta dei egin du bestaldetik, eskua luzatuz eta "hemen nago" esanez. Hamar abestiz osatutako lana da *Zubia*; disko-

ko abestien letrak Urdangarinek berak idatzi ditu, lau abestitakoak izan ezik. Lau abesti horien letrak Unai Iturriagak, Karmele Jaio eta Kirmen Urubek (2) idatzi dituzte. *Egubakoitzak kartzelan* egitasmoaren hirugarren saioa izango da gaurkoa.

Irrati eta Internet bidez

Kontzertura joateko aukerarik ez dutenek Internet bidez jarraitzeko aukera izango dute zuzeneko. Txapa Irratiaren bidez FMko 97.2 dialean eta streaming bidez www.txapairratia.org atarian entzun ahal izango da kontzertua. 22:00etan hasiko da.

Bigarren edizioa

Uztailean egin zuten *Egubakoitzak kartzelan* egitasmoaren lehenengo edizioa; arrakasta hura ikusita, irailean errepikatzea erabaki dute. Hurrengo emanaldiak izango dira: irailaren 23an Napoka Iria eta Mara; eta irailaren 30ean Azkaiter Peloxen eta Saioaren emanaldiak.

Herriko txokoak irudikatuko dituzte margolariek domekan

38. ageriko pintura lehiaketa egingo dute etzi, domekan; sari banaketa 14:30ean izango da

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Beart arte taldeak antolatuta eta Udalak lagunduta ageriko pintura lehiaketa egingo dute domekan. Aurtengoa 38. edizioa izango da.

Parte hartzeko oinarriak

Bada, pintura lehiaketan edonork parte har dezake eta bakoitzak artelan bakarra aurkeztu ahal izango du.

Margolanak Bergaran eta aire zabalean egin beharko dira. Teknika eta gaia libreak izango dira, eta, gainera, lanak herriko edozein lekutan egin ahal izango dira.

Derrigorrezkoa izango da lanak euskarri gogorrean aurkeztea eta lanaren oinarria librea izango da. Norberak erabakiko du ze material eta ze neurri erabili. Domeka goizean euskarrien zigiladura egingo dute: Udaletxean izango da, 09:00etatik 11:00etara. Euskarriak lanerako aurretik presatuak eraman daitezke, baina ez dute onartuko inolako marrak, zirrimarra edo marra aztarrenik edukitzea. Goiz osoan margolanak egiteko denbora izango dute parte-hartzaileek



Pintura lehiaketa. | GOIENA

eta 13:00etatik 14:00etara aurkeztu beharko dituzte lanak Bergarako udaletxean.

Sari garrantzitsuak

Domekan bertan emango dute lehiaketaren epaia, 14:30ean. Jarraian sari banaketa egingo dute. Gainera, lehiaketan parte hartzen dutenendako lunch txiki bat egongo da. Sariak izango dira: lehenengo saria 1.000 euro; bigarren saria 410 euro; lehenengo bergararrari 210 euro emango dizkiote; eta bigarren bergararrari saria

BEART elkarteak emango dio, 180 euro. Lehenengo eta bigarren sariak eskuratzen dituzten margolanak Bergarako Udalaren eta Bearten esku geratuko dira.

Horren harira, Bergarako Udalak erakusketa antolatuko du lehiaketan parte hartzen duten lanekin. Bergarako udaletxean izango da, irailaren 21etik urriaren 2ra arte, biak barne, 18:00etatik 21:00etara astelehenetik ostiralera eta aste bukaeretan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du gaur, 12:30ean

San Martin plazan izango da saioa, gaur, egubakoitza. Alfredo Gonzalez Chirlaque-ren zuzendaritzapean *Campo de rosas*, *Poeta y aldeano*, *The Conquest of paradise*, *Around the world in 80 days* eta *San Martin* lanak eskainiko dituzte. 12:30ean hasiko da kontzertua.

Monzonen gaineko erakusketa urriaren 2ra arte egongo da zabalik

Atzo zabaldu zuten Monzonen bizitza eta obra erakusten duen erakusketa udaletxean. Ordutegia da: astean zehar 18:00etatik 21:00etara eta aste bukaeran 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Bihar, zapatua, hari buruzko pastorala egingo dutela aprobetxatuta, 11:00etatik 21:00etara egongo da zabalik.

Kutxu Otamendiren lanak ikusgai daude Aroztegi aretoan

Kutxu Otamendi zenaren obra ezagutzera eman eta haren ekarpeni omenaldia egitea izan da Beart elkartearen asmoa erakusketa antolatuta. Joan den egunean zabaldu zuten eta hilaren 25era arte egongo da ikusgai. Artistaren 15 bat pieza jarri dituzte.



Iturgintza - Berogintza

Laskurain

Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra



Hiru puntuko alegazioa aurkeztu diote Jaurlaritzari

Mugaketari eta babes mailari buruzkoak dira bi puntu nagusiak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Irailaren lean bukatu zen Oñatiko herrigune historikoa monumentu-multzo kategoriako kultura ondasun izendatzeko Eusko Jaurlaritzak martxan ipinitako espedienteari alegazioak aurkezteko epea. Udalak hiru puntu nagusi dituen alegazioa aurkeztu du, eta hainbat herritarrek ere euren alegazioak aurkeztu dituzte.

Mugaketa eta babes maila

Jaurlaritzak aurkeztutako dokumentuak Oñatiko herrigune historikoaren mugaketa egiten du, eta gune horretako hainbat eraikin eta elementuk izango duten babes neurriak zehazten ditu.

Proposatzen den mugaketa horren gainekoa da Udalak aurkeztu duen alegazioaren lehen puntua. Hain zuzen, udal ordezkariak eskatzen dute 90eko hamarkada ezkerreko herrigune historikoa babesteko indarrean dagoen araudia mantentzea. "Bidaurreta sartu gura dute, eta hori posible egiteko, Euskadi etorbidea, Apaolaza, Etxaluze eta Lazarraga kaleak sartu dituzte. Hori esan ziguten Jaurlaritzan egon ginean, eta guk esan genien Bidaurreta babestea begi onez ikusten dugula, baina badaudela beste programa batzuk hori egiteko",



Galartza etxeak erdi mailako babes maila dauka eta berezia izatea proposatu du Jaurlaritzak. | MIREIA BIKUÑA

esan digu Hirigintza eta Zerbitzuak batzordeko buru Josu Lizarralde.

Alegazioaren bigarren puntu nagusia babes mailari dagokiona da. Udalak eskatzen duena da mugaketaren barruan dauden eraikin eta elementuek orain arteko babes maila mantentzea. Hori horrela, eskatu dute, adibidez, Baruena, Galartza eta Leturia etxeek erdi mailako babesa mantentzea. Jaurlaritzak babes bereziko eraikin izatea proposatu du. "Erdi mailako babesa duten eraikinetan obrak egiten direnean, fatxada ezin da ukitu, baina



Baruena etxea, Patrua kaletik ikusita. | MIREIA BIKUÑA

barruko banaketa aldatu egin daiteke. Babes bereziko eraikinetan, aldiz, ezin daiteke barruko banaketa aldatu. Bada, etxe horietako jabeek alegazioak aurkeztu dituzte orain arte izan duten babes mailarekin jarraitzeko eskatuz", esan digu Josu Lizarralde. Dena den, herrigune historikoan egin gura diren edozein obra edo birgaitze lanek Kultura Sailaren oniritzia jaso beharko dute. Oñatin babes berezia dute parrokiak, unibertsitateak eta udaletxeak, besteak beste.

Udalaren alegazioaren hirugarren puntuan, "antzemandako akats teknikoak" laburbildu dituzte. "Hirugarren puntuak atal asko ditu. Adibidez, Txantxiku ikastolaren eraikina bitan banatu dute babes maila zehazteko orduan, eta horrek ez dauka zentzurik", dio Lizarralde. Udalaren alegazioaz gain, beste hainbat herritarrek ere aurkeztu dituzte proposamenak.

Epea luzatzeko eskaera

Jaurlaritzak abuztuaren 8an argitaratu zuen herrigune historikoa kultura ondasun izendatzearen inguruko ebazpena, eta zehazten zuen alegazioak aurkezteko epea irailaren lean bukatzen zela. Epea 30 egun luzatzea eskatu zion Udalak Jaurlaritzari, oporrak tartean zeudela argudiatuta, baina ez zuen onartu.

ESANAK

"Indarrean dagoen araudia mantentzea eskatu dugu"

JOSU LIZARRALDE | ZINEGOTZIA

Konplexu karstikoa ezagutzeko irteera bihar

M.B. | OÑATI

Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe konplexu karstikoa ezagutzeko espeleoabentura irteera egingo dute bihar, zapatua -azkena urriaren 15ean egingo dute-. Hiruzpalau orduko irteera da eta beharrezkoa da material erosoak, katiuskak eta frontala eroatea. Gehienez, 16 urtetik gorako 20 pertsona onartuko dituzte, eta interesatuak aldez aurretik eman behar dute izena 943 08 20 00 telefonoan.

Ibilaldian parte hartzen dutenek Arrikruzeko eszentrika ikus ahaliko dute. Arrikruzeko galeriako fosilak oso aberatsak dira: estalaktitak, estalagmitak, zutabeak, kanpai itxurako koladak, eszentrikak, *gours*-ak eta bestelakoak.



MIREIA BIKUÑA

Erretiratuen eskulanak ikusgai

Pake Leku elkartearen erakusketa izan dute ikusgai asteon. Iazko eskulan ikastaroetan egindako lanak erakutsi dituzte; besteak beste, bitxigintza, orratz eta puntu lanak. Bestalde, ikasturte berrirako ikastaroetako izen-emate epea zabalik dute hilaren 19ra arte: dantzak, euskara, informatika, sendabelarrak, marrazketa, bitxigintza... Interesatuak erretiratuen elkartearen eman behar dute izena.

Euskara Olinpiadak egingo dituzte Ulmakoek

M.B. | OÑATI

Ulmaren negozioetan euskara indartzeko eta euskararen erabilaren alde ludikoa lantzeko, hango langileek Euskara Olinpiadak egingo dituzte gaur, egubakoitza.

Plazako pilotalekuan egin ohi dituzte, baina ordu berean herri mailako pilota txapelketa dagoenez, merkatu plazan bilduko dira, 17:00etan. Joko eta jolas asko egingo dituzte; besteak beste, aulki eta taula jokoak, Mihiluze jokoa, mus eta bakailao txapelketak.

Ulmako langileak elkarren kontra lehiatuko dira, negozioka banatuta, eta negozio trebeentako taldeak irabaziko ditu Euskara Olinpiadak. Ekitaldia irekia da herritar guztientzako.

Nafarroaren konkistaren gaineko erakusketa

M.B. | OÑATI

Gaurtik domekara arte Euskal Herriko II. historialarien biltzarra egiten dihardute Oñatin, eta horren barruan askotariko ekitaldiak egin dituzte. Besteak beste, erakusketa antolatu dute. Hain zuzen, Nafarroaren konkistaren gaineko erakusketa. Irudiak, testuak eta iritziak batu dituzte kultura etxeko erakusketa gelan. Astelehenan, hilaren 12an, zabaldu zuten, eta 23ra arte ikusi ahal izango da, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

Bestalde, Nabarraldeko antolatu duen biltzarraren barruan, Joseba Tapiak kontzertua egingo du gaztelekuan bihar, zapatua, 20:00etan. Aurretik, Eskuez bikote oñatiarrak emanaldia egingo du.



Haur Dantzarien Eguneko parte-hartzaileak alardean dantza egiten, iaz. | JOSETXO ARANTZABAL

350 bat neska-mutiko Haur Dantzarien Egunean

Aitor Tatieggi alkate txikiak egingo die ongietorria plazan, 12:00etan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Dantzariak, haur dantzariak izango dira protagonista bihar, domeka, herriko kaleetan. Haur Dantzarien Eguna ospatzeko Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako 350 bat neska-mutikok hartuko dute Oñati. Kolorea eta euskal dantzak izango dira protagonista.

Egun osoko egitaraua prestatu du Oñatz taldeak (ikus ondoko taula). 10:15ean elkartuko dira dantza talde guztiak. 17:00etako alardea bukatu ondoren agurtuko dute Haur Dantzarien Egun handia.

12 talde eta Oñatz

Guztira, 12 taldek onartu dute Oñatzek egindako gonbidapena: Urrats (Soraluze), Salleko (Sestao), Ibaieba (Lizarrar), Oinarin (Antzu-

DOMEKAKO EGITARAUA

09:00 Txistularien kalejira.

10:15 Taldeei ongietorria Otadui zuhaitzian.

11:00 Hamarretakoa pilotalekuan.

12:00 Alkate txikiaren agurra.

12:15 Kalejira.

13:30 Haurrak banatuko dituzte, bazkal dezaten.

17:00 Alardea plazan.

18:30 Txorimaloak.

la), Elai Alai (Gernika), Lore Gazteak (Arrasate), Mollarri (Zarautz), Txikitxu (Arrasate), Leizaran (Aretxabaleta), Berriztasuna (Portugalete), Korosti (Legazpi) eta Lagunartea (Aramaio). Haiekin batera Oñatzeko dantzariak arituko dira.

Arratsaldean alardea

12:00etan Aitor Tatieggi alkate txikiaren agurra jasoko dute guztiak plazan. Segituan kalejira egingo dute kalerik kale eta, bazkaldu ondoren, alardea egingo dute. Mutilek txakarranko, bana-ko eta jorrai-dantza egingo dituzte eta neskek, zintza-dantza, arku-dantza eta kaskarotz. Alardea bukatzeko, guztiak batera, euzko-dantza, zapatagailu, makil joko, sant petit, txulalari, fandangoa eta arin-arina.

OHARRAK

PLASTIKO BILKETA

Baserrietan pilatutako plastikoa batuko dituzte hilaren 27an. Plastikoa zuria eta beltza batuko dituzte. Oñatin lau lekutan utzi daiteke: Murgian Asentzio ermitaren ondoan, Zañartun Zuazolan, Olabarrietako autobus geltokian, eta ETEO atzealdean.

IZENEMATEA

Igeriketa ikastaroetarako eta ur-ekintzetarako izena emateko azken eguna gaur da. 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eman behar da izena. 0-8 urte arteko neska-mutikoen gurasoek kiroldegiko bulegoan eman behar dute izena igeriketa irakaslearekin batera.

Jaietako hainbat kirol txapelketa aste bukaeran jokatuko dituzte

Ziklismo, eskubaloia, tenis eta pilota txapelketak nagusi kiroldegian eta kalean

M.B. | OÑATI

San Migel jaiekin batera, askotariko kirol txapelketak antolatzen dituzte. Aste bukaeran tenisa, ziklismoa, eskubaloia eta pilota izango dira protagonista. Txirrindularitza eta eskubaloia aste bukaeran hasi, eta aste bukaeran bukatuko dituzte; eta pilota eta tenisa hainbat astetan egingo dituzte.

Tenisetik...

Jaietako tenis txapelketa bihar hasiko dute eta bi fasetan jokatuko dute. Izena ematen duten jokalarikopuruaren arabera hainbat taldetan banatuko dituzte eta lehen fasea ligaxka modura jokatuko dute. Bigarren faserako tenis jokalarik onenak sailkatuko dira eta kanporaketa moduan jokatuko dute: final-laurdenak, finalerdia eta finala.

Bihar, bestalde, 09:30ean afizionatu mailako txirrindulariek hartuko dituzte herriko errepi-deak, 24. Oñati saria jokatzen. Guztira, 98 kilometro egingo

dituzte Unibertsitatetik irtenda. Oñatitik Legazpi aldera egingo dute. Udana eta Aztiria igotzen, Elorregin (San Prudentzio) Epele aldera hartu eta Kanpanzar igoko dute. Bergara aldetik sartuta, Torrea aldera egingo dute eta, Santipillau baserriko aldapa igota, hilerritik helduko dira helmugara.

...pilotara

Aloñako eskubaloia sailak ere gertu du bere txapelketa. Bihar, 12:15ean senior mailako mutilek Eibarko Haritzaren kontra jokatuko dute; eta 15:45ean neskek izango dira protagonista: kadete, gazte eta senior mailetako taldeak Eharialdearen kontra lehiatuko dira.

Bestalde, pilota txapelketak egongo dira aste bukaeran. Gaur hasiko da herri pilota txapelketa. Bihar eta etzi kanporaketak jokatuko dituzte.

Azkenik, San Migeletako pilota txapelketako finalerdia bihar, zapatua, jokatuko dute, 16:30ean.



Afizionatu mailako ziklistak errepi-dean, iaz. | GOIENA

Bazkaltzeko elkartuko dira Elkar Hezi ikastetxeko ikasle ohiak

M.B. | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeko ikasle ohiak mahaiaren bueltan bilduko dira bihar. 150 bat ikasle baiezkoa eman diote uztailean Elkar Hezi ikastetxeak egindako deialdiari.

Guztiak egun borobila ospatuko dute bihar. Batzuk Elkar Hezi ikastetxeko ohiak dira, baina beste asko Santa Eskolastika eta Milagrosa ikastetxeetako ikasle ohiak.

Bazkaria eta sagardo kupela

Uztailean deialdia egin zutenean aurreratutako egitarauan aldaketa bakarra dago. Orduan esan zuten bazkaria txosnagunean

egingo zela, baina plazako pilotalekuan egingo dute, 14:30ean. Euria egiten badu, azoka egiten den lekuan egingo dute. Sagardo kupela ipiniko dute txotx egin gura duenarendako.

Dena den, bazkaldu aurretik elkartuko dira. 12:30ean potea egingo dute kalerik kale Trikiti elkarteko laguntzarekin. Bazkaldu ondoren, 16:30ean, karaoketa eta jolasak egingo dituzte.

Festa bukatzeko, 18:00etan, kontzertuak izango dira nagusi: alde batetik, Miren, Agur eta Gorkak erromeria egingo dute; eta beste alde batetik, La Pollaren bertsoak egiten dituen taldeak rock emanaldia egingo du.

Herri Eguneko bazkarirako txartelak salgai Izarraitz, Arrano, Antton, Umerez eta Olakuan

Kultura Sailak ipini ditu salgai urriaren 1ean egingo den Herri Eguneko bazkarirako txartelak. Izarraitz, Arrano, Antton, Umerez eta Olakua tabernetan eros daitezke 19 euroren truke. Zubikoa kiroldegiko kantxan egingo duten bazkariko menua izango da: patatak errioxar erara, arkumea txilindron erara, hostopil tarta piñarekin, kafea eta kopa. Kultura Sailak 1.000 bat txartel ipini ditu salgai. Herri bazkaria 14:30ean hasiko da.

Rock eta ska estiloak bateratzen dituen Ez! taldeak DVDa aurkeztuko du bihar gaztetxean

Ez! musika taldeak grabatu berri duen DVDa aurkeztuko du bihar Oñatiko gaztetxean, 18:00etan. Lan berria aurkeztu aurretik, merienda egingo dute, eta ondoren, estudioan egindako DVDa erakutsiko dute. Rock eta ska estiloak bateratzen ditu Ez! taldeak. 2007an sortu zuten taldea Jonek, Mikelek, Josuk eta Beñatek. Dagoeneko bi disko argitaratu dituzte eta Danbaka musika lehiaketako laugarren edizioan parte hartu zuten. Hainbat aldaketa izan dituzte taldean.

Goroeta eta Ugastegiko kontuak ezagutzera etzi

Loramendik antolatutako hirugarren ibilbide historikoari dagokion irteera da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Domekan, hilak 18, hirugarren ibilbide historikoari dagokion bigarren zatiaren berri emango du Loramendi elkarteak. Goroeta eta Ugastegi auzo inguruetako txokoak ezagutu eta bertako kontuen berri jasoko dute ibilaldia egitera doazenek.

Hitzordua Herriko Plazan dagoen 82. kilometroan dute, ohi legez (09:00). Automobiletan joango dira handik Goroeta auzoraino, eta gero handik gora Ugastegira jo. Umeak autoetan igotzeko aukera eskainiko dute antolatzaileek.



Lehen ibilbide historikoa hasteko gertu, iazko maiatzean. | M.A.

Toponimia taldekoak gidari

Hirugarren ibilbidearen lehen zatia ekainean egin zuten. Orduan, Arkarazo auzoa ezagutu eta Areantzaraino iritsi ziren, baina eguraldi eskasa zela eta ez zuten aurrera egiterik izan. Oraingoan, Goroetako paraje eta kontuak ezagutuko dituzte, bertako base-rietatik pasatu, bazterrak ezagutu eta historia kontuak eta sasoi bateko istorioak jakin. Gero, Urkulu urtegitik gora dagoen Ugastegi auzora igoko dira eta bertan egingo dute antolatzaileek eskainiko duten hamarretakoa, indarrak berreskuratuzeko.

San Migeletan taloak egiteko deia

Urtero legez, taloak egingo dituzte Loramendiko kideek San Migel jaietan, hilak 24. Talo horiek egiteko "zenbat eta esku gehiago izan hobeto", esan dute Loramendikoek, eta pozik hartuko dituzte boluntarioak. Bi txanda egingo dituzte: 10:30-12:30 eta 12:30-14:00. Lanerako gertu egonez gero, elkartera jo egunotan eta jakinarazi bertan (16:00-20:00).

Loramendiko Toponimia Taldea dabil herri eta auzo inguruetako ibilbide horiek gertatzen. Eta bertako kideak ibiliko dira domekan ere gidari lanetan; tar-

tean, gure herriko kontu asko dakizkien Jesus Osinaga. Ibilbidearen nondik norakoak jasotzen dituen liburuxka ere banatuko dute.

Urbaltz eguna bihar, herri bazkaria eta mojito jaia eginda

M.A. | ARETXABALETAKO

Bihar, irailak 17, Urbaltz elkar-teko eguna ospatuko dute Mitarte plaza inguruan. Elkar-tea sortu berritan egiten zuten ospakizuna berreskuratuko dute horrela. Iaz 25. urteurreneko jaiak izandako arrakastaren ondoren erabaki dute jaiari jarraipena ematea. Hala, bada, 120 bat bazkide dituen elkar-tea indartuta dabil azken urteotan.

Ospakizunaren lehen ekitaldia martitzenean izan zuten; Patxi Abasolo historia irakasleak Euskal Herriko historiaren gainean dakizkien kontuak entzuteko lagun asko elkartu ziren Arkupen.

Herri bazkaria Mitarte plazan

Egun nagusia, baina, bihar da. Urruñatik (Lapurdi) etorritako Kuxkuxtu txarangak eman-go dio hasiera ospakizunari (13:00) kalejira eginda, eta gero, Mitarte plazan elkartuko dira bazkide eta Urbaltzeko lagunak herri bazkarirako (14:30). Iaz 100 lagunetik gora elkartu ziren eta aurrean ere antzera ibiliko direlakoan daude antolatzaileak.

Bazkalostean berriro izango dira Kuxkuxtu txarangak kideak herriko bazterrak girotzen. Eta gau partean, 22:00etan hasita, mojito jaia egingo dute Elvis Caino disko-jartzailea lagun hartuta.

Langabeendako ikastarorako izen-ematea gaur bukatuko da

M.A. | ARETXABALETAKO

Udalak herriko langabeendako antolatu dituen hiru ikastarorako izen-emate epea gaur eguerdian bukatuko da. Udaltzeko Enplegu Sailera joan behar da edo posta elektronikoki bidez hona idatzi: larrea@aretxabaleta.net.

Ikastarorako dira igerileku eta spa guneen mantentze-lanak; etxebizitza eta eraikuntzetako

instalazio elektrikoaren mantentze-lanak; eta klimatizazioa eta eguzki plaken mantentze-lanak. Debalde dira hirurak.

Eskatzaileak honako baldintzak bete behar ditu: langabea izatea; Aretxabaletan erroldatuta egotea; eta antzeko lanetan gutxienez urtebeteko lan esperientzia izatea edo Lanbide Heziketako erdi mailako ikasketaren bat eginda izatea.

Ludotekak ate irekiak egingo ditu 21etik 30era

Ludotekan ez ezik, beste hainbat txokotan ere erakutsiko dute neska-mutikoendako eskaintza

M.A. | ARETXABALETAKO

Algara ludotekak atek zabalduko ditu datorren eguaztenean, hilak 21, egonlekua erakutsi eta egiten dituzten ekitaldien berri emateko. Aurrean, baina, Gazteria Zerbitzuak erabaki du ekitaldi guztiak Gernika plazako egoitzan egin beharrean herriko hainbat txokotan egitea. Hala, hilaren 30a bitartean kanpoan eta barruan

jolas egiteko aukera izango dute 3 eta 12 urte arteko umeek.

Mugikortasun zirkuitua

Twister jolas erraldoiarekin eman-go diete hasiera ekitaldiei irailaren 21ean, eguaztena, Irabalbarri plazan (17:00-18:30).

Eguenean, hilak 22, mugikortasun zirkuitua jarriko dute Kurtebarri eskolako kantxan (17:00-

-18:30). 3 eta 5 urte arteko umeak motor eta patinetarekin ibiliko dira eta Lehen Hezkuntzakoak, 6-12 urte, skate eta patinekin.

Ludoteka barruan

Irailaren 26tik 28ra, ostera, barruko jolasak egingo dituzte ludotekan. Astelehenean, hilak 26, txikienek izango dute lehenengoz sartzeko aukera; hau da, 3 urtekoek.

Martitzenean, hilak 27, mahai jolasen lehiaketa izango dute 7 eta 12 urte artekoek (17:00-18:30); eta eguaztenean, hilak 28, karaokea 4 eta 6 urte arteko umeek (17:00-18:30).

Hilaren 29an eta 30ean, ostera, Herriko Plazan jolas erraldoiak egingo dituzte (17:00-18:30).

OHARRAK

HIPO ETA TOMAX PAILAZOAK DOMEKAN

Dinbi, danba! ikuskizuna eskainiko diete pailazoek umei etzi (17:00) Arkupen, 4 urtetik aurrerakoek. Sarrera, 3 euro.

KIROL ARIKETA GAINEN BERTALDIA BASOTXON

Ongizaterako ariketak izeneko bertaldia eskainiko du Xabier Susperregi adituak martitzenean, hilak 20, Basotxon (17:30).

ARETXARTXEREN ZENBAKI SARITUA 114.829

Ixadebalde azokan zozketatutako txartel sarituetako baten

jabea oraindik ez da agertu; hona zenbakia: 114.829. Ixadebalde egondako edozein merkatarirengana jo dezala. Gainerako sarituak izan dira: Juan Antonio Carrero - 95.321-; eta Satur Sanchez -111.915-. Saria: Eguzki tabernan afaria.

1946AN JAIOTAKOAK ERRIOXARA URRIAREN TEAN

65 urte betetzen dituztenek egun pasa egingo dute urriaren lehen Errioxan. Izena emateko 20 euro sartu honako kontuan: 3035 0002 1 6 002 1 07359 1 -kontzeptuan norberaren izena jarri-. Kontaktua: Ana Mari: 696 81 91 98.

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 04 39

Mobiliario ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Jou Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

Zainduz-eko kirol jardueren ikasturtea astelehenean hasiko da

Izena emateko epea zabalik dago eta taldeak osatzen dabiltza asteotan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kirol jardueren ikasturtea astelehenean, irailak 19, hasiko dute Zainduz gimnasioan. Izen-emate epea zabalik dago eta taldeak osatzen dabiltza azken asteotan. Argibideak gura dituenak, edo izena eman, Zainduzera jo dezala (07:30-21:30).

Eskaintza goiz eta arratsalde

Eskaintzari dagokionez ez dago aldaketarik. Goierna Sport enpresak jarraituko du jardueren ardura-ekin, eta, iaz legez, bederatzi eskainiko ditu. Hona jarduerak horiek: pilatesa; sasoiaren egoteko gimnasia; tonifikazioa; spinninga; multifitnesa; total fita; GAP -gluteoak, abdominalak eta hankak-; hirugarren adinekoendako gimnasia; eta Atzegikoendako gimnasia. Spinningaren barruan, gainera, gazteendako taldea sortuko dute egubakoitzetan jarduteko.

Ordutegi aukera zabala daukate. Goizez bakarrik eskaintzen dituzte: sasoiaren egoteko gimnasia eta hirugarren adinekoendako gimnasia. Gainerako guztiak arratsaldean daude eta spinninga eta multifitnesa, goiz eta arratsalde.

Emakumeak nagusi

Zainduzko arduradunen esanetan, negu partean gehiago dira jardueretara joaten diren herritarrak, "eguraldi eskasagoa delako kan-

poko kirolak egiteko". Eta arrakasta handien dutenak dira multifitnesa, GAP eta spinninga. Gainera, emakumeak dira jarduerak guztietan nagusi; gizonak spinningera eta hirugarren adinekoen-

dako gimnasiara bakarrik joan izan dira.

Prezioa mantendu

Bestalde, jardueren kostuak ez du izango aldaketarik, ez abonuen kasuan, ezta jardueren kasuan ere. Kirol abonua hilerokoa da urtarrila ezker: familia abonua, 9,50 euro; norbanakoaren abonua, 7,50 euro; eta abonua murriztua, 4,80 euro. Jarduerak ere hilerok ordaindu behar dira; horien prezioaren berri izateko Zainduzera jo behar da.

Kiroldegi berria zabaldu bitartean, jardueren eskaintza eta prezioa ez dituzte aldatuko Kirol Zerbitzuetako arduradunek.

DATUA

9

KIROL JARDUERA

laz legez, bederatzi jarduerak eskaintzen dituzte; tartean, pilates, total fit eta spinninga.



Zainduz gimnasioan lagun bat ariketak egiteko gertu. | M.A.

NIRE USTEZ

BEÑAT ZAMALLOA



Gertu daz, gertu

Gertu daz denborapasa doiazenei tarte atsegin bat pasarazteko. Gertu kuriosidadez doiazenei euren kuriosidadia beteten laguntzeko. Gertu daz lortu gure dauiena garbi daukienei ahal dauien neurrixen muturreraino

lortzen laguntzeko. Gertu buruen zer gure daukien garbi ez daukienek harrera onenez hartu eta laguntzeko.

Gertu daz herrikidiak ezagutzeko eta ezagutu ahala neurrirra aholkatzeko. Gertu harreman estuak eta aholkuak gustoko ez daukienek euren gustora hartzeko. Gertu daz daukiene biher bestetan erakusteko eta azaltzeko. Gertu ez daukiene aitortzeko, eta kasuan kasu, beste zerbaitek eskeintzeko. Gertu daz etxeko epelien probau gure dauenak, etxien probau deitzen erueten ixteko. Gertu

atzera aurrera barik probau gure dauienak bertan probau deixien emuteko.

Gertu daz doiana gure eue-naz pozik eta gustora urteterakuen benetako poztasunez agurtzeko. Gertu ezer erosi barik urtengo dienak etorri izenan benetako poztasunez agurtzeko. Gertu daz herrikide bakoitzai bere gustuko eta neurriko zerbitzua emuteko. Gertu euren zerbitzua herrikidien biherretara, gustotara eta neurrirra moldatzeko.

Gertu eta herrixen bertan, Aretxarteko merkatarixak.



M.A.

Autobus geltokia apurtuta

Uztaila ezker daude martxan markesina berri eta modernoak -irratiarekin eta argibide panel elektronikoarekin- herriko autobus geltokietan, eta joan den aste bukaeran apurtu egin zuten Txarapea ibilbidean dagoen bat. Eskoriatzatik Arrasaterako noranzkoan dagoena da txikitu dutena; alboetako bi kristalak eta argibideak ematen dituen panela apurtu dituzte. Udaltzainburuak uste du kableak lapurtu guran ere ibili zirela apurketak egin zituztenak.

Futbol eskolako denboraldia asteon hasi dute eta 2002an eta 2003an jaiotakoek, astelehenean


Aretxabaleta Kirol Elkarteko futbol eskolak hasi du denboraldia. 2001ean jaiotakoek eguaztenean izan zuten lehen entrenamendu saioa (17:00-18:15); baita 2000. urtean jaiotakoek ere. Azken horiek bi entrenamendu saio izango dituzte astean: eguazten eta egubakoitzetan (17:00-18:15).

2002an eta 2003an jaiotakoek, ostera, astelehenean, irailak 19, dute denboraldiko lehen entrenamendua (17:00-18:15), eta astelehenean izango dute gero ere. Izena eman gura duenak Ibarra futbol zelaira jo dezala, eta Igor Arenatzarekin egon.

Makroartzelen gainean jardungo dute eguenean, Artziprestaldeko espetxe pastoraltzak antolatuta

Espetxeetako bizimoduaren gaineko sentsibilizazio eta kontzientziazio astea egingo du Oñati, Arrasate eta Leintz aldeko parrokiek osatutako Artziprestaldeak. Presoen zaindari den Mesedeetako Amaren egunaren bueltan -irailak 24- urtero antolatzen duten astea da, eta berbaldi bana izango da Oñatin, Arrasaten eta gurean.

Gurera Mikel Goenaga etorriko da makroartzelen gainean jardutera, azken 20 urteotan Martuteneko espetxean boluntario lanetan dabilena. Eguenean izango da berbaldi hori, hilak 22, parrokiako lokaletan (18:30).



bizitza
zentroa

Kontsulta psikologikoa - energetikoa - naturala
umeak eta helduak

Chi Kung - Tai Chi, osasuna - erlaxazioa - bizitasuna
Asteroko ikastaroa, irailaren 20an, 19:30ean hasiko da.
(Kontsultatu bestelako ordutegiak).

Oriental dantza, Jaione Arrazola
Asteazkenean ikastaroa. Urrian hasiko da.

Asteburuko tailerrak. Kontsultatu.

Estibaliz Diez-Caballero
Araba etorbidea 25 behea • Aretxabaleta
635 72 08 36 - 943 25 26 03
bizitzazentrua@gmail.com



Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak



Joan den urtean egindako Erreka Eguna; amaitzean, jasotako zaborrak erakutsi zituzten. | ESKORIATZAKO UDALA

Patin gaua egingo dute Mugikortasun Astean

Horrez gain, Arrasate eta Eskoriatza arteko bizikleta martxa, patinaje zirkuitua eta Erreka Eguna egiteko asmoa dute hilaren 30era bitartean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Debagoieneko beste hainbat herritan bezala, Mugikortasunaren Astea egingo dute datozen egunotan. *Eraginkortasunez mugiarazi zaitze! zure mugikortasuna hobetu!* lelopean lau ekintza antolatu dituzte irailaren 30era bitartean: hain justu ere, bizikleta martxa, patinaje zirkuitua, Erreka Eguna eta patin gaua. Azken hori lehen aldiz sartu dute aurten Mugikortasunaren Astearen harira egindako egitarauan.

Etzi, domeka, hasiko dira ekintzak egiten. Eskoriatza eta Arrasate lotuko dituen urteroko bizikleta martxa egingo dute egun horretan. Familia giroan egiteko aproposa den irteera 10:00etan abiatuko da Eskoriatzako plaza-tik, eta, 20 minutu geroago, Aretxabetako Iturrigorri frontoian zain daudenak hartuko ditu; 11:00etan Arrasatekoekin elkartuko dira eta ostera ere Eskoriatzara bueltatuko dira. Udaletik esan dute 18 kilometro inguru dituen ibilbide hori amaitzean hamarretakoa egongo dela parte hartzen duten guztiendako.

Horrekin batera, gogorarazi dute derrigorrezkoa dela kaskoa

eroatea eta 10 urtetik beherako umeek nagusi edo arduradun batek lagunduta joan beharko dutela. Horrekin batera, bizikleta egoera onean eraman behar dela aipatu dute.

Erreka Eguna

Bestalde, martitzenean, hilak 20, patinaje zirkuitua izango da umeendako. Hain justu, motorrik gabeko garraio alternatiboak erabiltzeko aukera izango dute neska-mutikoeek Luis Ezeiza esko-

lako kantxan, 17:00etan. Irailaren 23an, egubakoitza, ostera, Erreka Eguna egingo dute. Auzolanean, ikasleak taldetan banatu eta erreka garbitzera jaitsiko dira. Herriko Plazan egin dute horretarako hitzordua, 10:30ean. Garbiketa egiteko arropa egokia eroatea gomendatu du Udalak.

Azkenik, irailaren 30ean patin gaua egingo dute. 22:00etarako egin dute hitzordua, plazan. Ibilbidea oraindik zehaztu barik dagoela azaldu dute Udaletik.



lazo bizikleta martxa, Herriko Plazan. | ESKORIATZAKO UDALA

Zabalik dago erretiratuen omenaldirako izen-ematea

M.B. | ESKORIATZA

Erretiratuek merezitako omenaldia jasoko dute hilaren 25ean, eta dagoeneko zabalik dago egun horretan egiten diren ekintzetarako izen-ematea. Gaur, egubakoitza, eta martitzenean, irailak 20, eman ahalko da izena erretiratuen bulegoan, 11:00etatik 12:30era bitartean. Izena ematearekin batera 6 euro ordaindu beharko dituzte 65 urtetik gorako eskoriatzarrek.

Urtero moduan, salda bana-ketarekin emango diote hasiera egunari; 11:00etatik 12:30era izango da hori; eta jarraian, meza izango dute parrokan. 14:00etan, ostera, bazkaria egingo dute Udal Pilotalekuan, eta,

ohikoa den moduan, dantzaldia eta opari banaketa izango dituzte bazkalostean.

Bihar Iruñera

Horretaz gainera, bihar, zapatua, Iruñera joango dira herriko erretiratuek, Olazar elkartearen eskutik. Egun osoa emango dute Nafarroako hiriburuan, eta, besteak beste, Santa Maria katedrala, Nafarroako museoa, Santo Domingo kalea eta udaletxea bisitatuko dituzte.

Olazartik jakinarazi digute esandako tokiak bisitatzeaz gain erakustaldi "interesgarria" ikusiko dutela. Gogorazi dute gosaria eta bazkaria ordaindu-takoaren barruan dagoela.

Alkate berriak aukeratu dituzte zazpi elizateetan eta Lete auzoan

M.B. | ARETXABALETA

Eskoriatzako elizateetan eta Lete auzoan alkate berriak aukeratu dituzte. Aspaldiko ohitura da udal hauteskundeetan ostean udalbatzara osatzea eta jarraian hauteskundeak egitea auzo-alkateak eta haien laguntzaileak aukeratzeko.

Lau emakume

Aurten ere horrelaxe egin da, eta dagoeneko aukeratu dituzte datozen lau urteotan elizateetako beharren alde lan egingo duten ordezkariek. Denera, zortzi alkate berri daude; horietako lau emakumezkoak dira.

ALKATE BERRIAK

ELIZATEA	ALKATEA
Apotzaga	Juan Mari Lezeta
Bolibar-Ugazu	Mikel Gotzon Ortueta
Gellao	Ana Rosa Iregi
Marin	Alberto Letona
Mazmela	Iban Diaz
Zarimutz	Ane Gaztañaga
Mendiola	Ane Miren Arrese
Lete	Monika Madinabettia

Gaur arte ordain daiteke estolderia eta ur hornikuntzen tasa

Udalak aurtengo bigarren hiruhilabetekoari dagokion estolderia eta ur hornikuntzen tasen eroldaren berri eman eta ikusgai dago. Gaur, egubakoitza, arte egongo da zabalik esandako tasa ordaintzeko epea. Aurrezki kutxa eta banketxeen bidez ordaindu beharra dago.

Kirol jardueretan izena eman daiteke herriko kiroldegian

Zabalik dago kirol eskaintzan izena emateko epea. Ekintza hauek daude: pilatesa, 3. adinekoendako gimnasia, spinninga, adimen urritasuna dutenendako gimnasia, sasoiaren egoteko gimnasia, total fita, aquagyma eta igeriketa heldu eta umeendako. Izen-ematea kiroldegian egin behar da.



Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 ESKORIATZA

943 71 40 63

Gurasoen eskaera: bertako elikagaiak eskolako jangelan

Jangelako menuetan bertako elikagaiak erabiltzeko eskaera egin du Pausokak

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Guraso talde baten proposamena jarraituta, Pausoka guraso elkar-teak sinadura bilketa egin zuen joan den ikasturtean herriko eskolako jangela erabiltzen duten umeen gurasoen artean, jangelako menuetan bertako produktuak erabil ditzaten eskatzeko.

Iazko ikasturtean 60 bat umek erabili zuten egunero jangela eta eskolako 40 gurasoren sinadurak jaso zituzten. Pausokak, gurasoek eta irakasleek bat egin dute guraso elkar-tearen eskaera horrekin.

Pausokaren arabera, "kalitate hobeko elikagaiak janz, etorkizuneko osasuna bermatzen da". Sinadura bilketarekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskaera egin nahi izan diote "apustu serio bat egin" dezala "eskoletako haurren elikaduraren kalitatearen alde eta, gutxienez, bertako produktuak, herrian edo inguruan ekoizten direnak (fruta, barazkiak, arraina, okela,...) erabiltzen has daitezela beraiek kontratatuta dauzkaten enprese-tan".

Idea zabaldu


Horixe izan zen joan den ikasturtean Pausokak azaldu zuen

kezka eta asmoa, eta ikasturte honetan gai honekin lotutako pausuak eman nahi dituzte. Rosa Garitano Pausokako kideak adierazi digunez, herrian zabaldu nahi dute ideia, "ea zerbait lor daitekeen" ikusteko. Izan ere, guraso elkar-teak uste du gai "oso interesgarria eta mamitsua" dela eta gustatuko litzaieke gaiak oihartzuna izatea; hausnarketa sakon bat egin eta ados dauden guztien babesa lortu nahi dute.

Ausolanen esku

Herritarren artean ideia zabaldu eta babesa lortzeko asmoaz gain, Ausolan enpresarengana (lehen Auzo Lagun) ere jo nahi dute, enpresa hori arduratzen baita Antzuolako eskolako jangelako janaria prestatzeaz. Ausolanek prestatutako janarien kalitatea ez dute zalantzan jartzen, baina eskatu nahi diete bertako produktuen alde egin dezaten eguneroko menuak osatzerako momentuan.

Hala, ikasturte honetan Hezkuntza Sailera eta Ausolan enpresarengana joko dute Pausokakoek jangelako menuetan bertako produktuen alde egin dezaten; herrian horretarako babesa lortu nahi dute.



Caos y otras esperanzas antzezlan. | TEATRO ALTOSF TALDEA

Antzezteko modu ezberdina ezagutzeko aukera gaur

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, antzeztan berezia ikusteko aukera izango dugu Torresoroan, 22:00etan, 3 euroren truke. Venezuelako Teatro Altosf taldeak *Caos y otras esperanzas* lana antzeztuko du taula gainean. Berezia izango da emanaldia, izan ere, antzerkia egiteko modu ezberdina darabil 1976an sortutako Teatro Altosf taldeak.

Antzerki Ezezaguna

El Teatro Desconocido edo Antzerki Ezezaguna da taldeak darabilen metodologia, taldeko zuzendari den Juan Carlos de Petrek sortutakoa. Inspirazio-

rako metodologia da; uneoro aktorea eta bere baitako giza-kiaren arteko kontaktua bilatzen da, bakoitzaren barrua libreki adierazteko. Teatro Altosf taldeak ez ditu antzerkigileek idatzitako lanen muntaiak egiten; aktoreak eurak ere autoreak dira eta. Zuzendariaren lana da taldearen lana etikoki eta estetikoki antolatzea.

Juan Carlos de Petrek eta haren alaba Luz de Petrek parte hartzen dute *Caos y otras esperanzas* lanean, Ana de Petren zuzendaritzapean. Kaosetik sortutako kreazio-lana da; nahas-mentu horretan ordena berria sortu nahiko dute.

Kirol taldeendako dirulaguntzen deialdia zabalik

Aste honetan, irailaren 13an, argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Antzuolako kirol taldeei dirulaguntzak esleitzeko deialdia. Eguazteenan, irailak 14, zabaldu zen dirulaguntzen eskaera egiteko epea eta zabalik egongo da 2011ko azaroaren 15era bitartean. Herriko kirol taldeendako dirulaguntzetarako 5.500 euro bideratuko ditu Antzuolako Udalak. Joan den irailaren 6an hartu zuen deialdi hori egiteko erabakia Tokiko Gobernu Batzordeak. Udaltxean aurkeztu beharko dira dirulaguntza lortzeko eskabideak, azaroaren 15a baino lehen.

OHARRAK

FUTBOLA

Erregional mailako futbol taldeak bihar, zapatua, Ezta-lan jokatu du. Lagun Onak izango du aurrean 16:30ean hasita. Joan den aste bukean berdindu egin zuten Ale-giko Intxurreren kontra, 1-1 emaitzarekin.

ODOL-EMATEA

Irailaren 22an, eguena, odola emateko aukera egongo da Olaranen, 17:30ean.

SUKALDARITZA

Sukaldaritza energetikoari buruzko ikastaroa emango dute Laskurain baserri-ko. Informazio gehiago: www.euskalnet.net/econat



ARROLA

Bazkariarekin amaitu zuten herriko bira Arrolakoek

Antzuolako biraren hirugarren etapa osatu zuten joan den domekan Arrola Mendizale Taldekoek. Olarandik irtenda honako leku hauetan izan ziren: Koroso, Arrola, Kimuberrri, Deskarga eta Trekutz. Goizeko ibilaldiaren ostean Gorlan bazkaltzea zen hasierako asmoa, baina azkenean Trekutzeko Gaztelu Gain elkartean bazkaldu zuten 21 lagunek giro apartean.

NIRE USTEZ

PATXI OLABARRIA



Intxaurrondotik sagarrondora

Goizeko zortziak, bi patrol sagasti baten parean. Batek bidea ixten du. Patroletatik guardia zibilak irten eta sagarrak batzen. Poltsakada batzuk bete eta badoaz. Ez da Torrenteren filmeko gidoia. Aurtengo udan gertatu da, Antzuolan.

Zoritxarrez, sarritan ikusi ditugu guardia zibilak Antzuolan: ondoren torturak salatu dituzten herritarrak atxilotzen, AHTko obretan egunero egiten dituzten leherketetarako dinamita ekartzen, kontroletan beraien armekin izua zabaltzen, Gorlako pinudietan ezkutatuta Vuelta arrotz bat zaintzen... Baina ez nuen usteko sagarrak lapurtzen ikusiko genituenik.

Beraien kuarteletan *Todo por la Patria* irakurri izan dudanean beti galdetu izan diot neure buruari *todo* horretan ea *guztia* sartzen den. Ikusi dugu baietz, guztia sartzen dela, sagarrak biltzea barne...

Euskal Herrian bizi dugun garai berri honetan soberan daude, inoiz baino soberago. Gerra irabazi nahian dabilta eta ez dira konturatu euskaldunok ez dugula gerrarik irabazi nahi, bakea da irabazi nahi duguna. Horregatik, Intxaurrondo eta sagarrondoak bakean utzi eta Espainiako olibondotara joan daitezela eskatzen die gure herriak.

Oñatin ere behin baino gehiagotan irakurri dute *Fan hemendik* baina momentuz beraien erantzuna hauxe izan da: "Manzanas traigo!".

"Ez dira konturatu ez dugula gerrarik irabazi nahi"



Txirritolako zuzendaritzako kideak eta sagardogileak Herriko plazan, domekako Txirritola Egunerako gonbita egiten. | JOKIN BEREZIARTUA

"Txirritola egunak merezi du, lan askotxo izan arren"

Herriko dozena bat sagardogile izango dira domekan; bazkide egiten direnendako, zozketa berezia

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

"Txirritola eguna urteko hitzordurik garrantzitsuen da Txirritola euskara elkartearendako. Egun berean hainbat ekintza izaten dira eta horrek lan asko egitea dakar. Hala ere, oso egun polita izaten da eta giro ederra egon ohi da; beraz, aurretik zein egunean bertan batzuek lan askotxo egin behar duten arren, merezi du", Olatz Altuna Txirritolako zuzendaritzako kidearen hitzak dira. Igartzen da ez dela lehen aldia Txirritola Eguna antolatzen dabilena. Domekan izango da, hilak 18. Lan handien dakarren urteko jaia dela dio: "Jende askorekin koordinatu behar da: sagardogileekin, taloak eta pintxoak egiteko laguntzaileekin, txotx egingo duen pertsonarekin, umeendako tailerrak ekarriko dituztekin...".

Lehen berba, euskaraz

Lan fisikoaz gain, antolatzaileak Txirritola eguna euskararen aldeko eguna izan dadin buru-belarri

aritu dira –eta dabilta– lanean. Argi dute eta sagardoak protagonismo berezia izan arren, euskararen aldeko jaia dela Txirritola eguna: "Euskara elkartea izanik, gure erronka nagusia

euskararen erabilera bultzatzea da. Horregatik, kartel guztiak euskaraz izaten dira, eta, euskararen aldeko jaia denez, jendea lehen berba euskaraz egiten zaio", dio Altunak.

ESANAK

"Euskararen jaia denez, lehen berba euskaraz"

OLATZ ALTUNA | TXIRRITOLA

"12 sagardogile ezberdin, denak Aramaiokoak"

JESUS ARREGI | ASE-KO PRESIDENTEA

Iparaldeko herri kirolak, oraingoan bai

Azken orduko "arazo pertsonalengatik" San Martin jaietan kale egin ostean, Udalak Iparaldeko herri kirolak eta harri-jasotzea Txirritola egunera ekartzea proposatu zion Txirritolari. Euskara elkartek begi onez ikusi du proposamena eta egitarau barruan sartu dute; aurten, beraz, arratsaldean izango da zer ikusi (17:30).

Umeendako zirku tailerra

Iaz lehen aldiz antolatu ziren umeendako tailerrak. Izan ere, antolatzaileak konturatu ziren bereziki helduendako jaia zela eta umeendako apenas antolatzen zela ezer. Bada, iazko arrakasta ikusita, aurten errepikatu egingo dute; zirku tailerra egongo da 11:30ean.

Egitarauarekin jarraituz, eta trikitilarien doinu artean, 12:00etan txotx irekiera egingo da. Ordu horretatik aurrera Aramaioko bertako 12 bat sagardo ezberdin dastatzeko aukera egongo da. Aramaioko Sagardogileen Elkarteko (ASE) presidente Jesus Arregi honela dio: "ASEko zazpi sagardogile eta elkarteko kide ez diren besteekin, 12 bat izango gara. 12 sagardogile ezberdin, eta denak Aramaiokoak, sagardoak aramaioarra izan behar du-eta". Sagardoaz gain, talo eta pintxorik ere ez da faltako. Aurten, gainera, arratsaldean ere egongo da zer ikusi: 17:30ean Iparaldeko herri kirolak eta harri-jasotzea egongo dira.

Bazkide kanpaina

Txirritolako bazkide egiteko aukera egongo da egunean bertan: "Aspaldian ez da egin", azaldu du Altunak. Sagardoa edateko edalontziak erosten diren txokoan egin ahalko da bazkide, datu pertsonalak emanda. Urte osoko kuota hamar euro da.

Gainera, bazkide egiten diren artean sari "bikaina" zozketatuko dute.

Hiru ikastaro euskaraz egiten ikasteko, Udalarari esker

J.B. | ARAMAIO

Udalak hiru ikastaro antolatu gura ditu euskara ikasteko. Lehena, hastapen ikastaroa, azken hiru urteetan parte hartu dutenendako da batez ere, baina profil berdintsua dutenek ere aukera izango dute taldean sartzeko.

Bigarren ikastaroa da alfabetatze-maila lantzekoa: hitz egiten dutenei dago zuzenduta, baina euskara batuan irakurtzen eta, batez ere, idazten ondo moldatzen ez direnendako. Herriarrek hala eskatuta antolatu dute ikastaroa.

Azkenik, Mintzalaguna programa praktikan oinarritutako ikastaro bat ere jarri gura dute martxan. Hitz egiterakoan erraztasun eta jario-tasun premia duten pertsonen zuzenduta dago. Hizkeran erraztasuna lortzen laguntzea da helburua, lagunarteko berriketa lasaian arituta. Beraz, euskaraz hitz egiten jakitea eta astean ordubete libre izatea dira bete beharreko baldintza bakarrak.

Izena emateko, udaletxera

Ikastaro guztiak udaletxean bertan ematea da asmoa. Horretarako, taldea osatu behar da eta irailaren 27a baino lehen eman behar da izena.

Udaletxera bertara joanda edo telefonoz deituta (945 44 50 16) eman daiteke izena.

Euskal kontsumo taldeen topaketak hilaren 23an eta 24an

Euskal Herriko kontsumo taldeen topaketak egingo dira Aramaion hilaren 23an eta 24an. Egubakoitzeko jardunaldia ekoizleendako izango da eta goiz eta arratsalde formazio ikastaroak jasoko dituzte. Zapatuan, berriz, kontsumitzaileak izango dira protagonista; esperientziak elkarbanatzeko balioko du.

NIRE USTEZ

ANDER ELORTONDO



Jo no acato

legalizazioak, AHT kontuaz gure alkateari, 18/98 makro sumarioa eta beste asko izan dira politika judizializatuaren armak euskal herritarren aurka. Lege aldaketak, lege berriak, jazarpenak, denak balio izan du gure nortasuna eta askatasun egarria ito nahian. Zakartasunez jokatzeko dute eta urteetan gure erakundeak kudeatu dituen eskuinak beldur izan dio, albokoak jasan baititu

orain arteko egurrak eurek anbigutasunetik erosotasunean egoteko aukera baliatuz.

Baina oraingoan Espainiako botere judizialak harri gogor batekin egin du topo. Katalunian espainiera inposatu nahi izan du eskoletan, Kataluniako alderdiak euskaldunak baino txepelagoak zirelakoan. Baina PNVri euskarak larregi axola ez dion bezala, CIUk kataluniera beste maila baten

defendatzen du. TV3k ez die kirolari katalanei gaztelaraz hitz egitea eskatzen –ETBk betidanik– eta CIUkoek medio katalanak zaintzen dituzte. Azkunak aldiz Euskadi irratitari eta Berriari *Los vasquitos* deitzen die. Katalanek argi esan dute, Espainiak hausturarik nahi ez badu, marra gorri zeharka ezin bat dago, hizkuntza. Bata, bilduta, ahots bakarrak erantzun dute: "Jo no acato".

ELGETA

Goibekoko bazkide Naiara Igartua musu-truk Gasteizko Magialdiko ikuskizun nagusira

Zapatuan Gasteizko Printzipal antzokian egingo duten Magialdiaren ikuskizun nagusirako sarrerak lortu ditu Naiara Igartua elorriarrak. Goibeko elkarteko bazkidea da eta hari egokitu zaizkio zozketan banatutako bi sarrerak. Aste bukaerarako hainbat ekintza antolatu dituzte Gasteizen: hitzaldiak, tailerrak, ikuskizunak... Argibideak www.magialdia.org helbidean.

Elgetan ere pintxo-poteoa eguaztenetan eta eguenetan: euro batean txikitoa eta pintxo

Elgetako ostalariak ere hasiak dira eskaintza bereziak egiten. Eguaztenetako eta eguenetako txikiteoa bultzatzeko, zenbait tabernatan pintxo ematen dute txikitoarekin batera, eta hori euro baten truke. Ekimena nahiko berria da herrian, baina, oraingoz, harrera ona du bezeroen artean. Denborak esango du herriko taberna guztietara iristen den edo ez. Oraingoz, eta guk dakigula, hiru tabernatan hasi dute pintxo-poteoa.

1972ko kintoendako bazkaria antolatu dute; irailaren 24an egingo dute eta izena eman behar da

Kinto-bazkaria dute 1972an jaiotakoek irailaren 24an, zapatua. Antolatzaileek izena garaiz emateko eskatu dute; bazkaria hurrengo aste bukaeran denez, irailaren 18rako baieztapena ematea eskatu dute.

Bazkaltzera joateko interesa dutenek ondorengo telefono zenbakira deitu behar dute: 628 88 73 01. Argibideak eskatzeko ere telefono horretara deitu behar da.

**Inauguratu dute Maialde hotela**

Eguaztenean lagunarteko inaugurazioa egin zuten Maialde hoteleko ugazaba berriek. Etapa berria abiatu da San Roke kaleko hotelean eta Izarra Arriarnek eta Jesus Mari Kalboetxeagak lagunenean eta herriarren konpainia izan zuten eguazteneko ekitaldian. Mokadutxoak eta tragoak banatu zituzten. Hotelak zazpi logela, jangela eta taberna ditu. Zorte on ibilbide berrian!

LEINTZ GATZAGA

Erretiratuen Eguna egingo dute bihar, bazkari eta trikitilariekin

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA
Erretiratuek egun berezia dute bihar, hilak 17. Behin jaiak bukatuta Udalak urtero eskaintzen dien ospakizuna izango dute, eta herriko 28 bat erretiratu elkartuko dira jai giroko egun-pasa egiteko.

Eguerdi partean elkartu eta herrian ibilalditxoak egin ondoren,

bazkaltzera joango dira guztiak Garro jauregiko lehen solairura. Urtero legez, bazkari bikaina eskainiko diete bertan.

Bazkalostea, oster, trikitilariek girotuko diete, eta kantuan egin, kontu-kontari jardun eta karta jokoan egingo dute elkartutakoek, arratsaldea bukatu artean.

75 lagun domekako Vespa eta Lambretta eguneko bazkarirako

Zapatuan, berriz, herriko dozena bat baserritarrek ipiniko dute postua azokan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Museo txiki bat dirudi egunotan Fermin Iribarren garajeak. Zortzi motor erakutsi dizkigu; bost Lambretta, bi Vespa eta berriki erosi duen Harley Davidson bat. Ondo zainduta daude, zein baino zein distiratsuago. "Ez dira denak nireak", zioen irribartsu. "Bi Lambretta *Albitxunak* dira, Jose Antonio Arrazolarenak; eta bi Vespak Troquesako Jose Aranbururenak".

Prest dauzka domekan egingo den Elgetako VI. Vespa eta Lambretta topaketarako. "Ezin dut esan zenbat motor etorriko diren, baina bazkaltzeko 75 lagunek eman dute izena", adierazi du. Sei urte dira lagun talde batekin topaketa antolatzen duela. "Afizioa badago. Gero eta gehiago nire ustez. Jende kopuru polita etortzen da motorrekin eta ikustera ere asko hurbiltzen dira plazara". Domekan, 10:00etatik 12:00etara egongo dira motorrak plazan ikusgai. Eguerdian, urteroko irteera egingo dute motorrekin eta bazkaria, aurten, Intxorta elkartean egingo dute. "Gardoki izango dugu bazkalostean. Egundua pasa polita egiteko aukera izango dugu", esan du.



Fermin Iribar, domekarako prest dituen bost Lambretta motorrekin. | LZ

Azoka eta XV. Sagardo Eguna
Zapatuko agenda ere beteta dator. Baserritarrek urteroko azoka egingo dute plazan 11:00etan hasita. Dozena bat lagunek eman dute izena eta pozik daude antolatzaileak. Arratsalderako plana bes-

telakoa da. Eguerdia herri bazkaria antolatu du gaztetxeak eta urteroko tortilla lehiaketa 18:00etan hasiko da. Kontzertua ere egingo da gaztetxean; 22:30ean hasita Zarraparra eta The All-nighters taldeek joko dute.

Astelehenean zabalduko dute ludoteka zerbitzua

3-12 urte bitarteko neska-mutikoendako zerbitzua da; lehen astean sarrera irekia izango da

L.Z. | ELGETA
Elgetako Udalak gertu ditu ludoteka zein gazteleku zerbitzuak. Astelehenean, irailak 19, zabalduko ditu ateak ludotekak.

Bi berrikuntza nabarmenekin dator ludoteka zerbitzua aurten. Hileko kuota egongo da ikasturte honetan; 40 euro umeko. Bestalde, barikutan 18:00etan itxiko ditu ateak; aurreko urtearekin alderatuta ordubete lehenago. Gainerakoan zerbitzua bere horretan mantenduko da; astelehene-

tik barikura bitartean egongo da zabalik eta gurasoek horrela eskatuz gero hezitzaileek jasoko dituzte umeak eskolatik ludotekara eramateko. Adinaren arabera, bestalde, bi talde egingo dituzte.

Gazteleku

12 urtetik gorako neska-mutikoendako gazteleku zerbitzua irekiko du Udalak aurten ere. Zerbitzu hori barikutan, irailak 23, zabalduko dute eta lehenengo

aste bukaeran sarrera irekia izango da. Zerbitzua zazpi ordu eta erdiz egongo da zabalik aste bukaera oro. Barikutan 18:00etatik 20:30era, zapatutan 17:30etik 20:30era, eta domeketan 17:30etik 19:30era.

Kasu honetan ere adinaren arabera bi talde egingo dituzte, eta hileko kuota kobratuko dute aurten; hilean 25 euro umeko.

Izen-ematea zabalik

Txirikil taldeko Mireia Berriozabalek eta Maialen Elortzak gidatuko dituzte zerbitzuok aurtengoan ere.

Ate irekiak egingo dituzte lehenengo egunotan. Izena eman gura dutenek edo argibide gehiago behar dituztenek ludotekara bertara edo udaletxera jo behar dute.

Irailaren 26an, astelehena, zabalduko dute KZgunea

Hilaren 26 arratsaldean etorriko da Aitor Madrid dinamizatzailea Gatzagako KZgunera (16:00-20:00). Ohi bezala, hainbat ikastaro egiteko aukera eskainiko du, gehienak bi ordukoak: sare sozialak, Google-ek eskaintzen dituen aukerak... Horrez gain, zalantzak argituko ditu eta Interneten ibili ahal izango da.

Nagusienei aipamena

Biharko Erretiratuen Egunean, bazkaltzen elkartutakoaren artean nagusienak direnei aipamen berezia egingo diete, eta oparitxoak jasoko dute Udalaren partetik.

Herriko nagusia Astaisolo baserriko Narciso Beitia da, urrian 101 urte egingo dituena, hain zuzen; eta emakumeen artean herrian bertan bizi den Matilde Arrese da, 93 urte martxoan egingo da. Bihar bazkaltzera joaterik baldin badute, oparitxoak jasoko dute biek.

Urrian erretiratuen irteera

Bestalde, Toki Eder erretiratuen elkartek irteera egingo du urrian, ohi duen legez. Udazkeneko irteera Nafarroa aldera egin izan dute eta aurten ere harantz joko dutelakoan daude zuzendaritzako kideak. Dena den, biharko bazkarian bazkideen artean eztabaidatuko dute kontua, eta iritziak jaso. Gero erabakiko dute nora jo, zer egin bertan, eta zein egunetan. Seguru asko, urriko lehenengo astean egingo dute irteera hori.

AUTOMOBILISMOA

Aramaioko rallysprintak tramu berriaz ospatuko du 10. urteurrena, bihar

Tramu berria Uribarri eta Arexola auzoetatik igaroko da

XABIER URTZELAI | ARAMAIO

Azpiko Racing taldeko lagunek tramu berri batekin ospatu nahi dute Debagoieneko rallysprint bakarra, Aramaiokoa. *Berritu ala hil*, dio esaerak, eta, Aramaio-ko lasterketaren kasuan egoera horren muturrekoa ez bada ere, zaleek ondo hartuko dituzte hamargarren edizioeko probari gehitu dizkioten osagai berriak, baita pilotuek ere.

Lasterketako azken bederatzia edizioetan ez da aldaketarik izan, lehenengoan Zabola auzoan hasi eta Kurtzeta gainean amaitu zuten -eta lasterketa: "Ordutik hona ez da aldaketarik egin. Urteren baten antolatzaileek Gantzagatik Ibarrra jaisten Andramariko bidegurutzea hartzeko proposamena egin zuten, baina jendeak arrisksuegia zela uste zuen, autoak aldapa behera azkar etorriko zirelako eta kurba itxia dagoelako hor. Hala, baztertu egin zen proposamen hura, eta bederatzia urte hauek ibilbide berarekin egin ditugu", adierazi digu antolatzaile lanetan dabilen Inhar Amenabar pilotuak.

73 pilotu irteeran

Zapatuko lasterketarako 73 pilotu eman dute izena. Igoeretan debagoiendar mordoa dabilen arren, rallysprintean ibarreko ordezkariak ez da horren zabala izango. Inhar Amenabarrek (R5 GT Turbo) Agurtzane Zubieta izango du kopilotu lanetan, haiek izango dira Aramaio-ko ordezkariak. Eskoriatzatik, berriz, Gorka Idigorasak (Opel Astra GSI) Joseba Frutosekin osatuko du taldea eta Oñatitik Aitor Arnaitz (R5 GT Turbo) eta Joanes Uria etorriko dira.

Eta lasterketan aurrealdean ibiltzeko lehian ibiliko dira, besteak beste, Angela Vilariño, Tricio, Labaka, Jaio... Hala, ikusteko dago Errioxatik etorriko diren Moro anaiek ze maila ematen duten: "Denbora onak egiteko gaitasuna duten autoak ekarriko dituzte, Mitsubishi EVO 6 autoa batek, eta BMW M3 autoa besteak.



Kopilotuek notak berri beharko dituzte biharko lasterketarako. | GOIENA

Ikusi egin beharko da ze lan egiten duten".

Lasterketa lehenengoz egingo dutenek bestetan baino desabantaila txikiagoa izango dute, probako lehenengo tramu guztiondako izango delako berria: "Pilotuak joan den asteburuan izan ziren zati hori ikusten, eta, polita izango bada ere, kontu handiz ibiltzeko bi zona ditu. Batez ere euria egiten badu".

Hankook Koparako baliagarria

Lasterketa, bestalde, puntuagarria izango da Hankook koparako. Horretarako, derrigorrezkoa izango da etxe horretako pneumatikoekin korritzea, eta horrek ere orain arte Aramaion egon ez diren pilotuak erakarriko ditu probara.



GOIENA

INHAR AMENABAR
PILOTUA

"Tramu berrian zailtasun handiko tartek daude, kontuz hartzekoak"

Inhar Amenabarrek (Aramaio, 1988) auto barrutik jarraituko du zapatuan proba. Eta antolatzaile moduan egin dituzten aldaketak gidari moduan ere probatuko ditu. Tramu berriak lasterketa berrituko duela uste du.

Aldaketekin dator hamargarren urteurrena.


Bai, aldaketak beharrezkoak izaten dira; bestela, jendea aspertu egiten da urtero-urtero gauza bera ikusteaz. Orain arte batu ditugun iritziengatik, pilotuek ondo hartu dute aldaketa, eta uste dut zaleek ere halaxe egingo dutela; hau da, tramu berriak jende gehiago erakarriko duela probara. **Uribarriko auzoa pasa eta berehala bat-bateko sestra aldaketa (rasante aldaketa) handia izango dute pilotuek.**

Hori izango da tramu berriko puntu kritikoetako bat, auto batek baino gehiagok hegan egingo duelako hor. Baina kontuz ibili beharko dugu, ez delako azkarregi sartzea komeni. Sestra aldaketa horretan ez da batere erraza izango autoa ondo kokatzea.

Proba ikusteko leku ikusgarria izan daiteke hori.

Bai. Arexola auzo barruko tartea ere kontu handiz ibiltzeko izango da, batez ere zoru bustita baldin badago. Auzo horretan ez dago asfaltorik, zoru labainkorra dago, eta gidariak argi ibili beharko dute hor ere.

RALLYSPRINTEKO IBILBIDEA



GOIENA

IA BI KILOMETRO GEHIAGOKO LASTERKETA

Biharko lasterketak azken urteotakoak baino 1,8 kilometro gehiago izango du, tramu berriari esker. Eta, hain zuzen, tramu berri horrek batuko ditu, pilotuei dagokienez, zailtasun handiena izango duten guneetako batzuk.

Lasterketa ordua: 15:30ean.

Erepedearen ordua: 14:30ean.

Oharra:

Gaur pilotuek tramu ikusatu ahal izango dute, baina kaleko autoekin eta poliki.



Euskara ikasteko.
Ordutegi malgua:
goizez, arratsalde eta gauzez.
Beka sistema eta diru laguntzak ditugu.

ARRASATEKO

UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net



BERGARAKO

UDAL EUSKALTEGIA

Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Bergara
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 • 20550 **Aretxabaleta**
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10 • 20540 **Eskoriatza**
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA

UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarrieta kalea 18 **Oñati**
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

PARAPENTEA



Kurtzebarritik egingo dute pilotuek salto. | X.U.

Euskadiko parapente akrobatiko txapelketa bihar eta etzi Urkulun

XABIER URTZELAI. | ARRASATE

Eguraldiak laguntzen badu, Euskadiko parapente akrobatiko txapelketa egingo dute asteburuan Urkulun. Eguraldi iragarpena ez da ona, eta euriarekin ez dute salto egingo, baina antolatzaileek espero dute tarteren baten eguraldiak tregoa emango diela, txapelketa egin ahal izateko.

Txapelketako antolatzaile Oscar Fernandezek onartu digu azken orduan egin dutela hitzordua: "Berez, Katalunian egin behar genuen Munduko Koparako proba puntuagarria, baina, aurrekontu handia behar zenez, bertan behera geratu da hitzordua. Hala, proba hori ordezkatzeko Euskadiko txapelketarako puntuagarria

izango den txapelketa egitea erabaki dute Urkulun.

Bihar, zapatua, 11:00etatik 13:00etara egingo dute lehenengo txanda eta 16:30etik 18:00etara bigarrena. Finalak, berriz, domekan egingo dituzte, 11:00etan hasita: "Zapatuan ezin badugu hegan egin, domekan ahaleginduko gara beste txanda bat eginen".

"Modalitate ikusgarria da"

Txapelketan 10-15 pilotu izango dira: "Kurtzebarritik aireratu eta lur hartu aurretik epaileek aurrez ezarritako hainbat ariketa akrobatiko egin beharko ditugu, eta ariketa horiek oso ikusgarriak dira".

BORROKA LIBREA

Maider Undak munduko txapelketa jokatu du asteburuan Istanbulen

Belauneko lesioa gaindituta, ilusioz abiatu da Turkiara

X.U. | ARRASATE

Aste osoan 104 herrialdetako 900 kirolari saiatuko dira munduko txapelketan urrea lortzen, eta, bide batez, datorren urtean Londresen jokatuko dituzten Olinpiar Jokoetarako txartela lortzen. Izan ere, modalitate bakoitzeko sei onenek lortuko dute Olinpiar Jokoetarako sailkatzea.

Lesiotik errekeratuta

Urtarrilean Maider Undak min hartu zuen ezkerreko belaunean. Udaberri eta udako tarte handiena eman du osatzen eta lesio horretatik ateratzeko prestatze lanetan; hala, Istanbulen hitzordua aproposa izango da lesiotik zelan errekeratuta den ikusteko, eta azken hilaletotako sentsazio onak berresteko. Undak azken urteotan aurrean izan dituen borrokalarietara egingo



Maidar Unda, izako Europako txapelketan. | MAIDERUNDA.COM

du topo, 72 kilo azpiko kategorian. Eta erronka ez da makala, txapelketarik ia jokatu barik abiatu delako Istanbulera.

Maidar Undak 2009an brontzeko domina lortu zuen Danimarkan egin zuten Munduko

Txapelketan, eta 2010ean bosgarren sailkatu zen Europakoan, Bakun. Hala, aurten ere dominaren bat eskuratzen ahaleginduko da Istanbulen, horrek Londresko hitzordura gerturatu lukeelako.

FUTBOLA

Aretxabaletak eta Bergarak derbia jokatu dute domekan, ligako bigarren jardunaldian

Liga hasi baino ez da egin eta dagoeneko badugu denboraldiko lehenengo derbia, Aretxabaleta eta Bergara zein baino zein gehiago (domeka 17:00, Ibarra). Juanan Cruzen mutilek behar den moduan hasi dute liga, Hondarribian irabazita. Bergarak, berriz, 0-3 galdu zuen Tolosaren kontra. Bestalde, Mondrak Trintxerpe hartuko du zapatuan (16:30) eta Aloñak Ondarroako Aurrera domekan (16:30).

MENDIA

Mendizaleek domekan ospatuko dute Oroimen Eguna, Besaiden, Arrasateko mendi elkarteak antolatuta

Domekan, mendian hildako mendizaleak izango dituzte gogoan, urtero moduan, Besaiden. Aurten Arrasateko mendi elkarteak hartu du Oroimen Eguna antolatzeko ardura. Hala, 08:30erako Monterronen egin dute hitzordua, handik Besaideko bidea hartu eta ekitaldiari ekiteko. 10:30ean txistulariak egongo dira eta 11:00etan meza. Besaiden bertan txosna jarriko dute.

TXIRRINDULARITZA

Afizionatu mailako txirrindulariek hitzordu bikoitza dute asteburuan gurean, Oñatin eta Bergaran

Oraingo asteburuan amaituko dute afizionatu mailako Lehendakari txapelketa, eta, urtero moduan, hitzordu bikoitzarekin izango da. Zapatuan Oñati saria korrituko dute (09:30ean hasita), eta, 100 kilometro egin ostean, 12:00 inguruan iritsiko dira helmugara. Domekan, berriz, San Martin saria egingo dute Bergaran, San Antonio auzoan hasita (10:00).

ATLETISMOA

Zabalik dago urriaren 8an egingo duten Arrasate-Oñati lasterketarako izen-emate epea

Antxintxikak hartuko du aurten ere Arrasate-Oñati lasterketa antolatzeko ardura, eta proba horretarako izena www.kirolprobak.com webgunean egin daiteke dagoeneko. Komeni da izena aurrez ematea, gehenez 500 korrikalari onartuko dituzte-eta -EHko errepide gaineko txapelketarako puntuagarria izango da-. Era berean, aurten, patinatzaileendako lekua ere egongo da (125 plaza).

CITROËN
T. CHAPIME
C/ SAN ANDRÉS AUZOA, 5
20500 ARRASATE-MONDRAGÓN

X. RALLYSPRINT'a
ARAMAIXO-ARABA
RALAK 17
2011

1go MANGA, 10:30ean
BIDE MOZKITA, 14:30ean
3 MANGA

JUBAR Mendi gaiturak, zuloak, zuloak, zuloak... Tel: 943 79 10 20	PERFIPAR, S.L. APLICACIONES INDUSTRIALES CON PERFIL DE ALUMINIO Tel: 943 79 10 20	Lurgorri, s.l. Agencia de turismo y viajes Tel: 696 992 598	BESIDE S.L. Tel: 943 71 26 96 - 943 79 78 31 Polígono Markate 20500 ARRASATE
Udalaitz, S.L. Tel: 943 79 10 20	KANPAZAR SERVICIO OFICIAL Tel: 943 79 10 20	CE Cristalería Errasti, S.L. Tel: 943 79 10 20	Izar cars MULTIMARCA KMP ARRASATE SEMINUEVO
GORSEA Tel: 943 79 10 20	IBABE GARAJE IBABE C.B. Tel: 943 79 10 20	EKI TABERNA Tel: 943 79 10 20	ZERRAJERA C/ ZERRAJERA, 3 B/ Local 3-1 20500 ARRASATE-MONDRAGÓN Tel: 943 79 94 21 FAX: 943 79 96 44 perito@conet.es
AÑAI TABERNA Tel: 943 79 10 20	epelería Calderería Tel: 943 79 10 20	TAKOLO Tel: 943 79 10 20	LETE TOLDOAK Tel: 943 79 10 20
KUSKAL PRESOAK Tel: 943 79 10 20	epelería Calderería Tel: 943 79 10 20	K3 Inprimategia & diseinu grafiko Tel: 943 79 10 20	GRUAS IBAI SERVICIO PERMANENTE Tel: 943 79 10 20
vnbot Tel: 943 79 10 20	JOMA Tel: 943 79 10 20	BEREYA Instalaciones eléctricas - TDT Tel: 943 79 10 20	ARGI-PLASTIK Tel: 943 79 10 20
AMG Tel: 943 79 10 20	BIRIBILU TABAKOAK, EDARIAK Tel: 943 79 10 20	Gallastegi Tel: 943 79 10 20	BOLINTXO OBINDEGIZ - GOZOTEGIZ Tel: 943 79 10 20

Gremioen gida



Jatetxeen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida



Profesional liberalen gida



Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA

Mugarik gabeko munduan dauden mugak, antzerki bidez erakutsita

- ▶ Argentinarra jaiotzez, Arrasaten egiten du lan Angel Mario Fernandez idazleak
- ▶ Minusbaliatuekin dihardu gaur egun lanean 'Los perfectos' antzezlanean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Idazlea eta zuzendaria da Angel Mario Fernandez argentinarra. Batzuei ezaguna egingo zaizue haren aurpegia, Arrasateko gasolindegian batean egiten duela lan. Izan ere, kultura munduan dabilen arren, zaletasuna ez du ofizio oraindik.

Hainbat lan idatzi ditu dagoneko Fernandezek. Lan horietako batekin buru-belarri dabil orain: *Los perfectos. Un mundo sin límites*. Aktore minusbaliatuekin egindako antzezlan da aipatutakoa; estreinaldi-aurrea irailean egin zuten arren, datorren hilean Sorluzen egingo dute estreinaldi ofiziala.

Aktore izateko aukera

Los perfectos apustu gogorra izan dela gogoratu du Fernandezek, batez ere alde teknikitik ikusita. "Zergatik antzerkia ikasten duen pertsona batek minusbaliatua izate hutsagatik ezin du aktore izan? Ikastaroetan ikusi dut antzerkia ikasten dabilen aktore askok ez dutela izan aukerarik oholtza batera igotzeko. Antzezle kalitatea ez da baloratua izaten. Horregatik, lan hau egitea bururatu zitzaidan", dio idazle eta zuzendariak.

Atzera begira jarrita, Fernandezek gogoratu du antzezlan hori egiteko orduan arazo mordoa izan dituztela. Uztailaren 14an estreinatu zuten lana, Irunen.

Lanak ordubete irauten du eta komedia ironikoa da. Mugarik gabeko munduan, minusbaliatuen mugez dihardu lanak. "Gogoeta egin gura du: minusbaliatuak nola bizi diren eta zela erlazionatzen diren gainerakoekin", dio Fernandezek. "Egoitza batean bizi diren bost minusbaliatu dira; eta egoitzaren jabea den emakumea hil egiten da. Emakume hori argazkien bitartez bakarrik ikusiko dugu. Oinordekoek etxearekin geratu gurako dute eta han bizi direnak kalera bota gurako dituzte. Hala, dirua biltzeko antzezlan bat prestatuko dute, eta modu horretan aurrera irteteko dituzten baliabideak erakutsiko dituzte", azaldu du.

Idazlea eta zuzendaria

Proiektuarekin orain dela bi urte hasi ziren. "Hasiera batean Ana



Antzerkian, fokoan atzean dabil Angel Mario Fernandez; azaldu du nahiago duela idaztea zuzentzea baino. | A.E.

Perezek izan behar zuen antzezlaneko zuzendaria, baina, hainbat ezbehar tarteko, sei hilabetez atzeratu zen proiektua. Perezek ezin izan zuen jarraitu horrenbeste denbora; hala, Durangoko Patxi Hermosori deitu genion.

Baina obra estreinatu baino pixka bat lehenago hil egin zen Patxi. Ondorioz, nik hartu nuen antzezlanaren zuzentzeko ardura", azaldu du Fernandezek.

Aktoreak bost dira: Alberto Couto, Gaizka Mikelarena, Irene Unanue, Teresa Sousa eta Osmar Vazquez. Irun, Donostia eta Sorluzeko aktoreak dira *Los perfectos* lanean taula gainera igotzen direnak. "Oholtza gainera egoteko baldintza bakarrik aktore onak izatea da, ez minusbaliatuak izatea", argitu du zuzendariak. Fernandezek zuzendari lanaz hauxe dio: "Zuzendaritza ikastaro bat jaso nuen Argentinan; baina, egia esan, nahiago dut idaztea zuzentzea baino".

Fernandezen asmoa Arrasatera eta ibarreko gainerako herrietara antzezlanarekin etortzea izango da. Horretan gogor lan egingo dutela esan du.

Kpaz elkarteak sortu dute

Antzezlanaren proiektuarekin hasi zirenean Kpaz elkarteak sortu zuten. Modu horretan, Fernandezek uste du antzezlanak bide luzea izango duela. Elkarteak bera Kpaz da, baina antzerki taldearen izena Los Rotos da: "Patxi Hermosoren oroimenez jarri genuen izena. Hark horrela

deitzen zien bai bere buruari eta baita minusbaliatuei ere", dio.

Fernandez orain dela bost urte iritsi zen Euskal Herrira. Urte hauetan bi lan taularatu ditu: "Lehenengoa 30.000 izan zen. 2009ko maiatzaren 5ean Victoria

Eugenian estreinatu zuten Oscar Terol eta Ana Pimienta aktoreek". Orain, *Los perfectos*-ekin dabil, eta dagoeneko idatzita dauka *Corralito*. Argentinako *korralitoa* ardatz hartuta idatzitako lana da hori.

Nobela bat argitaratuko du

Kazetaritza ikasketak egin zituen Argentinan Fernandezek, eta idaztea du gustuko. Hala, Euskal Herrian daroan bost urteetan hainbat lehiaketataratu aurkeztu ditu idatzitakoak. "Dagoeneko 33 lehiaketa irabazi ditut", dio. Irabazi duen lehiaketa horietako bat Bartzelonakoa izan da. "Iaz irabazi nuen lehiaketa, eta, hain zuzen, datorren urriaren 14an aurkeztuko dugu nobela Sorluzeko udaletxean", azaldu du Fernandezek. Bartzelonan argitaratu diote nobela, eta izenburua da: *Las clases de literatura*.



Alberto Couto aktorea. | A.M. FERNANDEZ




Osmar Vazquez aktorea. | A.M. FERNANDEZ



Itsuarena eta gorrarena egiten duten aktoreak ez dira minusbaliatuak. | A.M.F.

Debagoieneko GREMIOAK



ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
- Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

F: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Monzonen obra eta bizitza iparraldeko euskaran ezagutzeko aukera bihar

Pastorala 17:00etan hasiko da eta lau ordu inguru iraungo du

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Dena gertu dute Bergaran Monzonen gaineko pastoral hartze-ko. Seminarioko jolastokian 2.200 lagunendako lekua gertatu dute; eguraldi aurreikuspenak ez dira onak, eta, horregatik, karpa handi bat jartzea erabaki dute.

Asteon *Goiena* magazinea-n eskainitako elkarrizketan antolatzaileek azaldu dute dagoeneko 700 sarrera saldu dituztela, eta aholkatu dute sarrerak aurrez erostea, ez uzteko azken unera-ko. Dena saltzeko asmoa dute.

Jean Bordaxar idazlea

Larraineko herritarrek hartu

dute aurten pastoral egiteko ardura. Telesforo Monzonen bizitza eta obra erakutsiko dute ikuskizunean; abuztuan estreinatatu zuten Larrainen bertan (Zuberoa). Jean Bordaxar kantugile ezagunak idatzi du eta Larraineko 170 bat lagunek parte hartu dute. Bergarara 163 lagun etorriko dira.

Monzon protagonista izanda, haren kantu ezagunak abestuko dituzte emanaldian; hala, bergarar askok gertu-gertutik sentituko dituzte hainbat eszena. Gainera, Bergarako beste pertsonaia batzuk ere agertuko dira; adibidez, Jose Luis Elkoro.



Karpa erraldoia muntatzen jardun dute asteon. | ENENK AZKARATE

Monzonen gaineko erakusketa zabalik

Atzo, eguna, Telesforo Monzonen gaineko erakusketa zabaldu zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan. *TM3: Telesforo Monzon (1904-1981): Bergararra; Politikaria; Kultura-gizona* izena izango du erakusketak. Astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta aste bukaeretan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, urriaren 2ra arte.

Euskal ikus-entzunezkoen garapena bultzatzeko Zineuskadi elkarteak sortu dute

Elkarteak udal zinema aretoen sarea koordinatuko du; tartean dago Arrasate

A.E. | ARRASATE

Asteon aurkeztu dute Bilbon Zineuskadi elkarteak. Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailak eta ikus-entzunezko ekoizle profesionalen bi taldek -EPE eta Ibaia- osatzen dute Zineuskadi.

Elkartearen helburu nagusia "euskal ikus-entzunezko sektorearen garapen estrategikoa bultzatzea da", eta horretarako "babe-sa" emango diete enpresa eta profesionalen garapenerako eta zabalkunderako, Estatuan, Europan baita nazioartean ere.

Elkartearen ekintza guztiak europar eta euskal ikus-entzunezko ondarearen babes politikaren baten barruan kokatzen dira.

Arrasate, aretoen udal sarean Zineuskadiren lehen ekimena udal zinema aretoen sarea osatzea da; oraingoz, zortzi udal sare tuko dute sare hori; tartean Arrasate dago.

Jon Garai Arrasateko Udaleko Kultura teknikariak azaldu du kultura erakunde diren aldi-tik eskaintzen dutenaren "kali-

tatea" bermatu behar dutela. Europako zinemaz gain, eremu urriko hizkuntzak ere babestuko dituzte; besteak beste, euskara. Zineuskadiren lana sarea "koordinatzea eta dinamizatzea" izango da, eta komunikazio eta sustapen ekintzak sortu.

Aurrera begira udal sare hori handitzea espero dute bultzatzaileek. Zineuskadi elkartearen presidentea Mikel Toral izango da eta zuzendaria, ostera, Veronica Sanchez. Blanca Urgell ere izan zen aurkezpen ekitaldian.

Joseba Tapiak kontzertua eskainiko du Oñatiko gaztelekuan

Euskal Herriko historialarien II. biltzarren barruan, Joseba Tapiak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Oñatiko gaztelekuan. Sarrerak 8 eurotan (helduak) eta 5 eurotan (gazteak) daude salgai. 20:00etan izango da. *Eta tira eta tunba* diskoak kaleratu zuen Tapiak 2010eko irailean, eta azken disko horretako doinuak ekarriko ditu gaztelekura.

Soinu-jotzaile lasarte-rraren aurretik Oñatiko Eskuez bikoteak girotuko du gaztelekua. Trikiti doinuak gustuko dituztenendako hitzordu paregabea biharko Oñatin.

'¿Deja la Ciencia sitio para Dios?' erakusketa Harresi aretoan

Iniciativa Atea elkarteak antolatuta, zientzia eta Jainkoa bateragarriak diren edo ez hausnartuko dute. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute. Orduetgia: astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatua eta domeketan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa 40 marrazkik osatuko dute. Luis Ledok egin ditu marrazkiak, *El Jueves* aldizkariako pertsonaia oinarrituta. Erakusketaren helburua erlijioa atoen ikuspuntutik azaltzea da. Hilaren 23ra arte egongo da zabalik.

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2011
irailak 17

urriak 15
azaroak 19

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
■ Empleo eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
harbitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



Arkaitz Bengoa | Dantzaria

"Dantza oso gustura egiten dugu, baina, kapitaina zarenean, dena ondo irteteko ardura daukazu"

Arkaitz, Oñatz dantza taldearen urteurreneko zapiarekin.

ANDER MONEDERO | OÑATI

Arkaitz Bengoa (Oñati, 1984) adminitrari komertzial moduan egiten du lan Arrasateko Astore enpresan. Txikitan, gurasoek bultzatuta, dantzan hasi zen eta dagoeneko 20 urte daramatza dantzan.

Noiz hasi zinen dantzan?

6 urterekin hasi nintzen dantzan. Gero, 16 urterekin utzi, eta, bi urte geroago, 18 urterekin berriz ere hasi nintzen dantza egiten.

Zer ematen dizu dantzak?

Dantza egitea asko gustatzen zait eta, gainera, estilo asko ikasten ditugu. Euskal dantza desberdin asko daude eta horietako asko egiten ditugu. Horretaz aparte, dantza taldean giro ona dugu, elkarrekin ordu asko pasatzen ditugu eta lagun on asko egin ditut.

Beraz, bigarren familia bat duzu.

Bai. Urte asko dira eta lagun talde bilakatu gara; entsegu eta emanaldiez aparte, elkarrekin gauza asko egiten ditugu.

**Txikitatik dantzan hasteak lagun-
du egiten du?**

Bai. Diferentzia handia dago; ikasteko orduan, txikitatik ikasi duenak pausoak azkarrago ikasten ditu. Normalean, dantza taldean gaudenok txikitatik ikasi dugu dantzan. Ez da oso ohikoa 18-20 urterekin dantzan hastea.

16 urterekin utzi eta 18rekin berriz ere dantzan hasi zinen. Gogo handiagoarekin hartu zenuen?

Berriz ere dantzan hasi nintzean oso desberdina izan zen: jende nagusiarekin hasi nintzen dantzan eta euren mailara iristea zaila izango zela uste nuen. Nagusien taldean esperientzia handia duten dantzari asko daude eta irakasteko abilezia dute.

Aurtengoa Oñatz taldearendako urte berezia da, ezta?

Bai. Aurten 40. urteurrena ospatu dugu, orain dela bi aste bazkaria egin genuen. Giro polita egon zen, herriko belaunaldi asko elkartu ginen eta dantza egiten ospatu genuen. Errepikatze moduko eguna izan zen.

Urtean zenbat emanaldi egiten dituzue?

Urtero, egun jakin batzuetan dantza egiten dugu: Aratusteak, Corpusa, bailarako Dantzari Eguna... Eta gero, urtean zehar emanaldiak lortzen saiatzen gara. Urte batzuetan asko lortzen ditugu eta beste batzuetan, berriz, zailagoa izaten da. Aurreko urtean

Zurichera joan ginen.

Zer-nolako esperientzia izan zen?

Esperientzia oso polita da. Gu dantza erakustera joan ginen, gogo handiarekin joaten zara eta asko disfrutatzen da.

Aurten Corpusean kapitainorde izan zara, baina kapitainaren funtzioak bete dituzu. Nolako esperientzia izan zen?

Esperientzia oso polita izan da. Ardura handiko postua da, oñatiarrentzat egun garrantzitsua baita. Dantza egiten dugun guztiok oso gustura egiten dugu, baina, kapitaina zarenean, dena ondo irteteko ardura daukazu.

Dantza irakaslea zara. Zer-nolako esperientzia da?

Oso ona. Azken bost urteetan talde berarekin lanean egon naiz. 10 urterekin hartu nituen eta dagoeneko nagusiak dira.

Domekan Haur Dantzariaren Eguna ospatuko duzue.

Egun handia da. Herri desberdinetako taldeak gonbidatzen ditugu, guztira, 12 bat, eta egun osoa dantzan pasatzen dute. Goizean herriko kaleetan eta arratsaldean plazan.

Egun polita izango da.

Bai, urte osoan herri desberdinetako haur dantzariaren egunetan ibiltzen gara eta etxekoa berezia izaten da. Dantzaldira familia eta lagunak etortzen dira eta motibazio handiarekin dantza egiten dute.

Eguna antolatze lanetan ari zara?

Ume talde baten arduraduna naiz eta beste askok baino lan gutxiago egitea tokatu zait.

Zer-nolako lanak dira egunean egin beharrekoak.

Talde guztiak kudeatu behar dira, ume asko datoz eta guztienezko bazkatzeko lekua topatu behar da. Horretaz aparte, arratsaldeko saioa bukatzerakoan dena batu beharra dago.

MARRA AZKARREZ

Bizi izateko leku bat: Oñati eta Menorca.

Bisitatzeko leku bat: Txile.

Bisitatu nahi duzun leku bat: Zeelanda Berria.

Herriko txokorik gustukoena: Orkatategi.

Dantza bat: Arratiako dantza eta porrusalda.

Kolore bat: Laranja.

Mania bat: Jendea puntuala izatea.

Urtaro bat: Udaberria.

Kirol bat: Tenisa.




ASTEAGOIENAN



Aramaioko rallysprinta berbagai

Zapatuan jokatu den Aramaio-ko rallysprinteko irudiak jasotzen izango da Goiena telebista; irudiak *Harmailatik* saioan ikusi ahal izango dituzue. Eta bertan gertatutakoez jardungo dugu saioan zehar.

'Harmailatik'
Astelehena, 20:42



Zinemaldian ere izango da Goiena telebista

Imanol Ariasi emango diote aurreten Urrezko Kutxa saria eta Goiena telebista bertan izango da. Han jasotakoa eguaztenean eskainiko dizuegu *Magazinea* saioiko *Zaharrak berri* tartean, 19:45ean.

'Magazinea'
Eguaztena, 19:45

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 16

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
14:00 Onein
14:30 Iruñekohotsak
14:47 Berriak
15:17 Baratzeko loreak
15:55 Marrazki bizidunak
16:25 Leku txiki bat
16:40 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:43 Ipupomamua
18:13 Leku txiki bat
18:23 Berriak
18:53 Marrazki bizidunak
18:28 Magazinea
20:28 Gipuzkoa kultura
20:58 Magazinea
21:58 Erreportajea:
Monzonen Pastoral
22:54 Magazinea

ZAPATUA, 17

08:00 Marrazki bizidunak
09:30 Ipupomamua
10:00 Leku txiki bat
10:30 Ordizia, euskal jaiak
11:23 28.Klip
11:53 Lekeitioko jaiak
12:28 Onein
12:52 Berriak
13:07 Magazinea
14:07 Gipuzkoa kultura
14:37 Marrazki bizidunak
15:12 Berriak
15:27 Gernikako jaiak
16:29 Gipuzkoa kultura
16:59 Bizitegia
17:29 Lekeitioko jaiak
19:11 Magazinea
20:11 Bi tartean
20:57 Gernikako jaiak
21:27 Berbaz
22:27 Ordizia, euskal jaiak
23:20 Magazinea

DOMEKA, 18

08:00 Marrazki bizidunak
09:00 Ipupomamua
09:30 Leku txiki bat
10:00 Marrazki bizidunak
10:30 Gernikako jaiak
11:10 Bizitegia
11:40 Berbaz
12:40 Gipuzkoa kultura
13:10 Lekeitioko jaiak
13:50 Onein
14:14 Gipuzkoa kultura
14:44 Bi tartean
15:30 Magazinea
16:30 Marrazki bizidunak
17:15 Berriak
17:30 Berbaz
18:30 Baratzeko loreak
18:57 Bizitegia
19:27 Gipuzkoa kultura
19:57 Bizitegia
20:27 Berriak
20:42 Magazinea
21:42 Lekeitioko jaiak

ASTELEHENA, 19

12:25 Magazinea
13:25 Marrazki bizidunak
13:45 Gernikako jaiak
14:45 Berriak
15:15 Gipuzkoa kultura
15:45 Jaiak: Ordiziako euskal jaiak
16:43 Berriak
17:13 Leku txiki bat
17:23 Baratzeko loreak
17:50 Onein
18:14 Iruñekohotsak
18:42 Berriak
19:12 Marrazki bizidunak
19:42 Magazinea
20:42 Harmailatik
21:27 Magazinea
22:27 Harmailatik
23:12 Gipuzkoa kultura
00:13 Gernikako jaiak

MARTITZENA, 20

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
14:00 Onein
14:20 Iruñekohotsak
14:48 Berriak
15:18 Harmailatik
15:58 Jaiak: Ordiziako euskal jaiak
16:51 Berriak
17:21 Baratzeko loreak
17:48 Bizitegia
18:18 Gipuzkoa kultura
18:48 Berriak
19:18 Marrazki bizidunak
19:46 Magazinea
20:46 Baratzeko loreak
21:13 Magazinea
22:13 Berbaz
23:13 Magazinea

EGUAZTENA, 21

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Jaiak: Gernikako jaiak
15:42 Baratzeko loreak
16:10 Iruñekohotsak
16:38 Leku txiki bat
16:58 Berriak
17:29 Bizitegia
17:56 Baratzeko loreak
18:26 Gipuzkoa kultura
18:56 Berriak
19:10 Marrazki bizidunak
19:46 Magazinea
20:46 Harmailatik
21:31 Magazinea
22:31 Jaiak: Lekeitioko jaiak
23:31 Bi tartean

EGUENA, 22

12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak
13:55 Jaiak: Ordiziako euskal jaiak
14:48 Berriak
15:18 Onein
15:46 Iruñekohotsak
16:14 Bizitegia
16:39 28.Klip
17:09 Berriak
17:39 Berbaz
18:39 Berriak
19:09 Marrazki bizidunak
19:44 Magazinea
20:44 Baratzeko loreak
21:11 Magazinea
22:11 Gipuzkoa kultura
22:41 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Dantza ikuskizunerako sarrerak zozketan

Maniatic@s ikuskizuna eskainiko du Euskal Herriko Organik taldeak Amaia antzokian zapatuan. Bertara joateko sarrerak ditugu zozketan. Parte hartzeko deitu 943 25 05 05era edo idatzi irratia@goiena.com helbidera.

Gazte bulegoaren albisteak eguaztenean

Eguaztenean, gazte bulegoak dituen azken albisteak jasoko ditugu Dorleta Kortazar gazte teknikariaren eskutik. Gazteen intereserako azken berriak ekarriko dizkigu eguaztenean, 10:30ean, Arrasate Irratian.



Felipe eta Antoni

Felipe Unamuno eta Antoni Etxeberria 1961eko irailaren 8an ezkondu ziren eta irailaren 17an ospatuko dituzte urrezko ezteiak familiarekin Zelai Zabalen. Zorionak eta ondo pasa dezazuela eguna.



Nerea eta Ander

Nerea eta Ander zapatu honetan ezkondu dira Uribarriko elizan. Ondoren Zarauzko Otzarreta jatetxean ospatuko dute. Familia eta lagunentzako partetik, zorionak eta ondo pasa dezazuela eguna.




Joane eta Ritxar

Joane Garcia eta Ritxar Valoria zapatuan ezkondu dira Bergarako udaletxean eta ondoren Lasa jatetxean bazkalduko dute familiarekin eta afaldu lagunekin. Eztei-bidaian Balira joango dira. Lagun eta familiakoentzako partetik, zorionak eta ondo pasa dezazuela eguna.



Maidar eta Iban

Irailaren 10ean Iban eta Maidar Dorletako ermitan ezkondu ziren eta ondoren Gure Ametsa jatetxean ospatu zuten egun zoriontsua familia eta lagunekin. Momenturik onenak pasata eta oraindik hoberenak pasatuko dituzuelarik, mila zorion eta urte askotarako! Besarkada handi bat, zuen familien eta lagunentzako partetik! Ondo ibili Thailandian!



Iñigo eta Amaia

Amaia Agirre eta Iñigo Arzelus Bergararako zapatuan ezkonduko dira Bergarako udaletxean eta ondoren Lasa jatetxean bazkalduko dute familia eta lagunekin batera. Eztei-bidaian Argentinara joango dira. Lagun eta familiakoentzako partetik, besarkada handi bat eta izan zoriontsu!



Aritz eta Ainhoa

Ainhoa Usaola eta Aritz Lopez irailaren 17an ezkonduko dira Armenttiako San Prudentzio basilikan eta ondoren El Casero erretegiari ospatuko dute. Zorionak, bikote!



Mikel eta Gurutze

Mikel eta Gurutze datorren zapatuan, hilak 17, ezkonduko dira. Zuen irribarre hori zaindu eta aurrerantzean ere piztuta mantentzen saiatu, ederra da-eta! Besarkada handi bat Goikobaluko lagunentzat partetik! Zorte on!



David eta Veronica

David Casillas eta Veronica Fortuna bergararrak abuztuaren 6an ezkondu ziren Badajozko Villanueva de la Serenan. Familia eta lagunekin egun zoriontsua pasatu zuten eta ondoren eztei-bidaia ederra egin zuten. Familia, lagun eta, batez ere, alaba Laiaren partetik, zorionak eta muxu handi bat!



Antonio eta Nieves

Eskoriatzako Antonio Irazabal eta Nieves Galdos 1961eko irailaren 9an ezkondu ziren. Aurten urrezko ezteiak ospatu dituzte, eta irailaren 9an Burgosko Homenaje al Pastor jatetxean bazkari ederra egin zuten. Zorionak, familia guztiaren partetik.



Emilio eta Arantxa

Emilio Garro eta Arantxa Nafarrate 1961eko irailaren 9an ezkondu ziren. Familiarekin batera ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Denon partetik, "urte askotarako, bikote!"



Jesus eta Maritxu

Jesus Ugalde bergararra eta Maritxu Lamariano antzuolarra 1961eko irailaren 16an ezkondu ziren, San Martin egunean. Datorren irailaren 17an, zapatuan, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Lehenengo meza izango dute Santa Marinan eta gero bazkaria Lasa jatetxean. Zorionak, familia guztiaren eta euren biloben partetik, batez ere.

HILDAKOAK

Angeles Gallastegi Arregi.

Arrasaten, irailaren 1ean, 89 urte.

Francisco Madina Bengoa.

Aramaion, irailaren 1ean, 95 urte.

Benito Davila Muñoz.

Bergaran, irailaren 1ean, 56 urte.

Francisco Javier Lascuirain Arizaga.

Arrasaten, irailaren 2an, 71 urte.

Geronimo Arrocha Garcia.

Arrasaten, irailaren 3an, 81 urte.

Angel Biain Urzelai.

Oñatin, irailaren 5ean, 64 urte.

Valentina Lizarralde Ezkibel.

Arrasaten, irailaren 7an, 83 urte.

Pilar Suinaga Azkarate-Askasua.

Bergaran, irailaren 7an, 89 urte.

Jose Luis Kapanaga Azkuenaga.

Bergaran, irailaren 9an, 82 urte.

Emilio Pico Clemente.

Arrasaten, irailaren 9an, 90 urte.

Sabas Igartua Orbe.

Bergaran, irailaren 11n, 75 urte zituela.

Dolores Castilla Torres.

Arrasaten, irailaren 12an, 94 urte.

Esperantza Uranga Arregi.

Arrasaten, irailaren 12an, 91 urte.

Santi Zubia Ojanguren.

Oñatin, irailaren 13an.

Mariano Cañamaque Ruiz.

Arrasaten, irailaren 14an, 74 urte.

Visitacion Fernandez Perez.

Arrasaten, irailaren 14an, 86 urte.

OROIGARRIA

Santi Zubia Ojanguren

'Learre'

Oñatin hil zen irailaren 13an.

*Elkartearen sortzaile
gure animatzaile
denok izango gara
zure lanaren jarraitzaile.*



Olabarrieta elkarte.
Oñatin, 2011ko irailaren 16an.



ESKER ONA

Sabas Igartua Orbea

M. Arantxa F. de Arroiberen alarguna

Bergaran hil zen 2011ko irailaren 11n, 75 urte zituela.



Lerro hauen bidez Sabasen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu horrenbeste eratan maitasuna eta elkartsuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2011ko irailaren 16an.

ESKER ONA

Jose Luis Kapanaga Azkuenaga

Bergaran hil zen 2011ko irailaren 9an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkizuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2011ko irailaren 16an.



URTEURRENA

Maria Luisa Noarbe Portela

Patxi Beistegiren alarguna

2010eko abuztuaren 31n hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan,
irailaren 18an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.**




URTEURRENA

Joakin Gastesi Agirrezabala

Lehen urteurreneko meza domekan,
irailaren 18an, 12:00etan,
Elgetako elizan ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.**



URTEURRENA

Maritxu Azkarate Jauregi

Ernesto Amezarriren alarguna
'Txarrantxa' tabernakoa

Lehen urteurreneko meza domekan,
irailaren 18an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.**



URTEURRENA

Francisca Arizaga Jauregi

Lehen urteurreneko meza domekan,
irailaren 18an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.**



URTEURRENA

Bittoriano Kortabarria Agirre

Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 17an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

*Agur aitta Bittoriano
Zenbat oroitzapen guztiongan
Poza eta tristura aldi berean
Ikusten ez zaitugula aldamenen.*

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.**



URTEURRENA

Juana Elkoro Golonetxea

2010eko irailaren 1ean hil zen, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 18an, 10:30ean,
Uberako San Paulo elizan ospatuko da.

*Argi bat itzali da
hemen lurrean,
Berri bat piztu da,*

*han, zeru ederrean.
Beti jarraituko duzu
gure bihotzean.*

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.**



BERGARA Mikel Urdangarin

Ibilbide luzea eta kantu sorta ederra dauka Zornotzako kantariak. Zuzenekoak ere makinatxo bat egin ditu hainbeste urtean, baina gaur, modu akustiko eta intimoagoan joko ditu horietako asko, gaztetxe-ko patioan, *Egubakoitzak kartzelan* emanaldi sortaren barruan.

Gaur, gaztetxean, 22:00etan.



CATEDRALGASTEIZ.COM



HOTSAK

ARRASATE Keu Agirretxea

Gitarra jotzen maisutza erakutsi du Keu Agirretxek, baina, Etsaiak ala Fjord taldeen garaia alde batera utzita, pop, folk eta blues giroetan dabil azkenaldian.

Domekan, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan.

MUSIKA**BERGARA Dantzaldia Gaubela taldearekin**

San Martin jaien barruko ekitaldia da.

Bihar, zapatua, San Martin plazan, 23:00etan.

ARRASATE Adierazpen

askatasunaren aldeko kontzertua

Jasotako dirua Arrasateko bi gaztek duten isun bat ordaintzeko erabiliko da. Taula gainera herrian aski ezagunak diren bost talde igoko dira: Arkada Social, The Kate's Maniacs, Never Surrender, The Dirty Brothers eta Interprete Desconocido.

Irailaren 17a, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Kalejira Batu Senegalgo taldearekin

Kaleko giroa alaitzeaz arduratuko dira.

Irailaren 17a, zapatua, Seminarioko patiotik abiatuko dira, 20:30ean.

ARRASATE Manett taldearen akustikoa

Kulturate akustikoa zikloaren barruan Manett talde kataluniarak joko du.

Irailaren 17a, zapatua, Kulturaten, 20:00etan.

OÑATI Joseba Tapiaren kontzertua Oñatin

Gaztelekuan, Euskal Herriko historialarien II. Biltzarren barruan, Joseba Tapiaren kontzertua. Aurrez, Eskuez bikote oñatiarraren emanaldia egongo da. Sarrerak: 8 euro (helduak) eta 5 euro (gazteak).

Bihar, zapatua, Oñatiko gaztelekuan, 20:00etan.

OÑATI Ez! taldeak zuzeneko DVDa aurkeztuko du

Oñatiko Ez! taldeak 2010eko Gazte Egunean grabatutako DVDaren aurkezpena egingo du Oñatiko gaztetxean. Egitaraua:

18:00etan Xabier Rezabalen argazki erakusketa egongo da, 18:30ean meriendatxoa egingo dute eta 19:00etan kontzertua eskainiko du Ez! taldeak. Ondoren DVDa oparituko dute.

Zapatuan, Oñatiko gaztetxean, 18:00etan.

BERGARA Kalejira Ustekabe txarangarekin

San Martin jaien barruan joko du Eibarko taldeak.

Irailaren 17a, zapatua, herriko kaleetan, 17:00etan.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

IRAILA 16
IRAILA 22

BERGARA Xakenajak taldea

Erromeria egingo du taldeak gaur iluntzean.

Gaur, San Martin plazan, 20:30etik 00:30era.

ARAMAIO Blues Mornings Singers

Blues musika zuzenean, irailean, egubakoitzero.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.

ARRASATE Mamy Wata taldearen emanaldia

Kulturate akustikoa zikloaren barruan Mamy Wata taldeak kontzertua eskainiko du Kulturateko areto nagusian.

Irailaren 16a, egubakoitza, Arrasateko Kulturaten, 20:00etan.

BERGARA Udal Musika Bandaren kontzertua

San Martin jaietako kontzertua da. 11:15ean kalejira egingo dute.

Gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 12:30ean.

ANTZERKIA**ARETXABALETA Hipo eta Tomax pailazoak****OÑATI Joseba Tapia**

Karlista eta liberalen liskarrak hartu ditu kantatzeko gai moduan Joseba Tapiak azken lanean: *Eta tira eta tunba*. Bandak lagunduta etorriko da oraingoan Oñatira, hamai-ka txokotan diskoa dagoeneko aurkeztuta, trikitia alboan eta ohiko koplak eta kantu ezagunak ahaztu barik.

Zapatuan, gaztelekuan, 20:00etan.

Dinbi, danba! ikuskizuna eskainiko die Hipo eta Tomax pailazoek, 4 urtetik aurrerako neska-mutikoei. Sarrera, 3 euro.

Irailaren 18a, domeka, Arkupeko Zاراia aretoan, 17:00etan.

ANTZUOLA Venezuelako Teatro Altosf taldea

Venezuelako Teatro Altosf taldeak *Caos y otras esperanzas* antzez-tuko du Torresoroan hilaren 16an. Sarrera 3 euro.

Gaur, irailaren 16a, egubakoitza, Torresoroan, 22:00etan.

BERGARA 'Im Pass' antzezlana

San Martin jaien barruko ekitaldia da.

Irailaren 16a, egubakoitza, Munibe plazan, 19:30ean.

DANTZA**BERGARA Bikote nagusiendako 27. dantza txapelketa**

San Martin jaien barruko ekitaldia da, Moises Azpiazu zena- ren omenez.

Irailaren 18a, domeka, San Martin plazan, 12:30ean.

JAIAK**ELGETA Sagardo Eguna**

Tortilla lehiaketa, sagardo das-taketa upeletan eta kontzertua gaztetxean.

Irailaren 17a, zapatua, Elgetan, 18:00etan

OSPAKIZUNAK**ARETXABALETA Urbaltz Eguna**

Mitarte plazan egoitza duen Urbaltz elkartearen eguna ospa-tuko dute: 13:00etan Kuxkuxtu txarangarekin kalejira, 14:30ean herri bazkaria Mitarte plazan. Arratsaldean, Kuxkuxtu txaranga kalejira eta 22:00etan Mojito Jaia, Elvis Caino disko jar-tzailearekin.

Irailaren 17a, zapatua, Mitarte plazan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**ARETXABALETA 'Adictos al plástico' ikus-entzunezkoa**

Plastikoaren gehiegizko erabi-leraren gaineko hausnarketa

sustatu gura duen ikus-entzunezkoa. Ingelesean da filma baina azpittuloak izango ditu, gazte-leraz.

Irailaren 22a, eguna, Arkupeko Zاراia aretoan, 19:00etan.

ERAKUSKETAK**BERGARA Aire libreko margo lehiaketako lanak ikusgai**

San Martin jaietako Aire libreko XVIII. lehiaketako lanak egongo dira ikusgai.

Irailaren 21a, eguaztena, Osoko bilkuren aretoan, 18:00etan

ARRASATE 'Kimu Berri' erakusketa

Teknologia berrien gaineko erakusketa egongo da Kulturateko klaustroan hilaren 21etik aurrera. Egunero egongo da zabalik 17:30etik 20:30era.

Irailaren 21etik aurrera Kulturateko klaustroan.

BERGARA 'Sentitzea animalien bezala' delako erakusketa

Gizakiaren eta faunaren arteko harremanaren gaineko hausnarketa eragitea da erakusketaren helburua.

Irailaren 21a, eguaztena, Zabalotegiko pilotalekuan 09:00etan.

TOPAKETA**ELGETA Vespa eta Lambretta VI. Eguna**

Motor erakusketa, ibilbidea eta bazkaria.

Irailaren 18a, domeka, Elgetan, 10:00etan.

IRTEERA**ARETXABALETA Toponimiako hirugarren ibilbidea**

Loramendi Elkarteak antolatuta toponimiako hirugarren ibilbidearen bigarren zatia erakutsiko dute: Goroeta auzoa-Ugastegi. Bazterrak ezagutu eta kontuen berri emango dute. Herriko Plazan dagoen mugarririk atera (09:00) eta Goroeta auzoraino autoan joango dira, handik Ugastegira jotzeko. Ume txikiendako automobil zerbitzua eskainiko dute.

Irailaren 18a, domeka, Herriko Plazan, 09:00etan.



NOTICIAS DE NAVARRA



goiena

2011-09-16

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

"Jendearen babesak asko lagundu digu"

- ▶ Magali Muruamendiaratzek Bergaran igaro du uda eta tratamendua etxean jarraitzea da asmoa
- ▶ Gurasoak pozik daude, Galizian egondako hilabeteetan aurrerapauso garrantzitsuak eman dituztelako

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bederatzi hilabete inguru pasa dira azkeneko aldiz Magali ikusi genuenetik. Irribarre polit batekin eman digu ongiatorria eta haren-gana gerturatu garenean, gure besoetara etorri da.

Hilabete hauetan guztietan asko ikasi du Galiziako Foltra osasun zentroan. Horixe bera kontatu digu haren amak: "Galizian lan asko egin dugu Magalirekin: fisioterapia, ikusmen-estimulazioa, terapia okupazionala-sentsibilitatea lantzeko... Horrez gain, psikoneurologoa eta logopeda ere bazituen jarraipena egiten. Asko aurreratu dugu. Orain gehiago dago mundu honetan eta badirudi hasi dela gauzak ulertzen. Badaki, esaterako, amatxo eta aitatxo nortzuk garen eta ikusten gaituenean pozik jartzen da. Hori, esaterako, niretako oso-oso garrantzitsua izan da. Goizean jaiki eta harengana joaten naizenean besarkada bat ematen dit. Horrez gain, barre asko egiten du orain eta kontaktua eta mimoak asko gustatzen zaizkio", kontatu digu Nagore Egurennek.

Familia elkarrekin berriro ere

Neska-mutiko guztiek bezala, Magalik ere oporrak hartu ditu abuztuan eta Bergarara itzuli da. Asmoa da,



Magali Muruamendiaratz, amatxorekin, Bergaran. | ARRITXU BARRUSO

orain, Galizian hasitako tratamenduak eta lana Bergaran jarraitu ahal izatea eta Galiziara itzuli beharrik ez izatea: "Urriari medikuarekin txanda daukagu Galizian eta hark esango du zer egin. Dena dela, guk nahiko genuke Bergaran gelditu eta tratamenduekin hemen jarraitu, betiere Galiziako Foltra zentroaren gidaritzapean". Izan ere, etxera itzultzea oso garrantzitsua izan da familia guztiarentako: "Oso urte gogorra izan da. Azkenean, berriro ere elkarrekin gaude guztiok eta horrek asko laguntzen du. Galizian hutsune handia sentitzen nuen".

Erantzunarekin hunkituta

Bergaran denek ezagutzen dute Magali, asko izan dira-eta haren tratamendurako dirua lortzeko egin diren ekitaldiak. Amak kontatu digu oso garrantzitsua izan dela herritarren babesa: "Ezin dut hitzez azaldu nola sentitzen garen. Oso berezia izan da. Galizian geundela jaialdiaren bideoa ikusi genuen malko artean. Jendearen babesa oso garrantzitsua izan da aurrera egiteko".

Familiaren eta lagunaren bertasunean, poliki-poliki eta egunetik egunera, aurrera egingo du Magalik. Ongi etorri!

AZKEN BERBA

AINTZANE
OIARBIDE



Etxegarate

Orain arte, abiadura handiko errepideak eraiki eta mantentzea gipuzkoarrok bakarrik ordaindu dugu gure zergen bitartez. Autopistetakoko peajeetan, badi-tugu deskontuak TAG txartelaren sistemari sartuz gero. N-lean, ordea, ez du gure Lurralde zeharkatzen duen inork ordaintzen, baina gipuzkoarrok bai, noski, gure zergen bitartez mantentzen dugu eta sufritzen ditugu lepoz gainezka dagoen errepide honetako arazo larriak. Europako arau batek dioenez, erabiltzaile orok ordaindu behar ditu errepide transeuropar guztiak eta hemendik dator Etxegarate peajea ipintzeko zergatia. Baina Errepideetako diputatu andreaeren hitzetan, ez du peaje hori kobratzeko asmorik, "Euskal Herriaren bertebrazioaren aurka" omen doalako (???), baina azken argumentua, peaje hori ez zegoela aurreikusia errepideen zorrak eta mantenua ordaintzeko. Zertarako kobratu peajea egunero erabiltzen duten Europako kamioi astun guztiei? Hautzat guztientzat, alfonbra gorria eta gure errepide honetatik doan pasatzeko gonbita!

Bitartean, debagoiendarrak, urte askotan bezala, abiadura azkarreko errepideak ordaintzera!

Carrascal aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82 • Faxa: 943 10 69 66
scarrasc_1@infonegocio.com

ESKAITZA
BEREZIAK
FINANTZAKETA
ZURE NEURRIRA

